


Askatasunaren arbola

Lezo Historia Garaikidean (1793-1876)

Carlos Rilova Jericó



Lezoko historia urratsez urrats 3



ARANZADI

zientzi elkartea . society of sciences
societat de ciencas . société de sciences

Lezoko historia urratsez urrats 3

Zuzendaria: Juan Carlos Mora Afán

Askatasunaren arbola
Lezo Historia Garaikidean
(1793-1876)

Carlos Rilova Jericó



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo - Udala

2005

Rilova Jericó, Carlos

Askatasunaren arbola : Lezo Historia Garaikidean (1793 - 1876) / Carlos Rilova Jericó. - Lezo: Udala, 2005.

122,94 or. : ir. kol. eta tx. b. ; 24 cm. - (Lezoko historia urratsez urrats; 3 / Juan Carlos Mora Afán)

L.G. SS-1475-05. - ISBN 84-932870-7-5

1. Lezo - Historia - XIX. mendea
946.62"17/18"Lezo

Euskara: BIHUR itzulpenak. bihurnet@euskalnet.net

Maketazioa: eragin.com

Inprimatzea: Gráficas Lizarra

ISBN: 84-932870-7-5

Lege gordailua: SS-1475-05

Zuzendu gutunak helbide honetara:

ARANZADI zientzi elkarte

Zorroagaina 11

20014 Donostia

Tel: 943466142 Fax: 943455811

idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

www.aranzadi-zientziak.org

HITZAURREA:

Historia unibertsala gainbegiratur gero, 1789. urtea mugari baten antzera agertuko zaigu. Parisen urte hartan abian jarritako Frantziar Iraultzak garaiko ideia eta bizimolde zaharrituen hondamendia ekarri zuen. Hau da, Antzin Erregimenaren oinarriak errotik suntsitu zituen, Aro Garaikideari parez pare irekiz ateak. Hala, Europa osoko handikiak, eliz agintariak eta errege absolutuak asaldatu egin ziren. Are gehiago 1793. urtean, Konbentzioak Luis XVI.a gillotinan hilarazi zuenean. Gertakari haren oihartzuna, gerrahotsekin batera, bolbora bezala hedatu zen mundu zabalera. Eta burgesiak, boterea bereganatzearekin batera, hizkuntza-politiko berri bat sortu zuen, non hiritartasuna, konstituzioa, liberalismoa edo giza-eskubideak bezalako kontzeptuek karga ideologiko izugarria hartuko duten.

Alabaina, absolutismoaren eta liberalismoaren arteko borrokak, hau da mundu zaharraren eta berriaren artekoak, luze joko zuen. Gurean bai behinik behin, hain zuzen ere 1876. urtera bitartean. Eta gerra bat ekarriko zuen bestearen atzetik, Lezo bere historiako garairik ilunenetako batean murgilduz. Konbultsio horiek eta aipatutako aldaketak politikoez, ordea, onurarik ere ekarriko zioten gure herriari: zer eta askatasuna! Ez behin, bitan baizik lortuko baitzuen apurtzea Lezok 1203. urteaz geroztik izandako Hondarribiarekiko mendekotasuna; lehendabizikoan behin-behingo, entsegu baten gisara, baina bigarrenean behin-betikoz. Eta baita modernitate ere, bere trenbide, fabrika eta abarrekin batera; Lezoko demografia, ekonomia eta gizartea atzerabiderik gabeko aldaketen zurrunbilora bideratuz.

Ustekabez betetako liburu honetan Carlos Rilova-k garai aldakor horien erretratu bizia egin digu; arreta guztia Lezoko herrian jarriz baina historiaren gurpilari begirik kendu gabe; ohituta gaituen eta beti eskertzen den estilo zorrotz bezain atseginean.

AURKIBIDEA

SARRERA GISA, ZER GERTATU ZEN ZAHAZKI LEZON 1789KO IRAILAREN 16AN?	15
---	-----------

I. ATALA: LEHEN OLDAR IRAULTZAILEA

Iraultza baten itzala. Konbentzioaren aurkako gerra eta okupazio iraultzailearen garaia (1793-1795)	22
--	-----------

Frantsesaren itzulera. Napoleon Bonaparteren aurkako gerra eta lehen iraultza liberalaren eragina (1808-1814)	41
--	-----------

II. ATALA: KAUSA LIBERALAREN GAINBEHERA ETA GORALDIA

Karbonaroen zorigaitzeko patua. Hirurteko Liberala Lezon (1820-1823)	58
--	-----------

Garaipen apala. Espainiako azken errege absolutuaren ondorengotza eta lehen gerra karlista (1833-1841)	77
---	-----------

III. ATALA: ALKOLEAKO ZUBIKO SEGADA

Iraultza ospetsua eta azken gerra karlista (1868-1876)	90
--	-----------

Epilogo. Bilakaera, iraultza, inboluzioa? Seiurteko demokratikoaren eta Errestaurazioaren balantzea	105
--	------------

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIAK

Iturriak	111
----------------	------------

Bibliografia	112
--------------------	------------

A MANERA DE INTRODUCCIÓN, ¿QUÉ PASÓ EXACTAMENTE EN LEZO EL 16 DE SEPTIEMBRE DE 1789?	5
---	----------

PRIMERA PARTE: LA PRIMERA OLEADA REVOLUCIONARIA

La sombra de una revolución. La guerra contra la Convención y el período de ocupación revolucionaria (1793-1795)	12
--	-----------

El retorno del Francés. La guerra contra Napoleón Bonaparte y el impacto de la primera revolución liberal (1808-1814).	30
--	-----------

SEGUNDA PARTE: CAÍDA Y AUGE DE LA CAUSA LIBERAL

El destino fatal de los carbonarios. El Trienio Liberal en Lezo (1820-1823)	46
---	-----------

Un moderado triunfo. La sucesión del último rey absoluto español y la primera guerra carlista (1833-1841).	62
--	-----------

TERCERA PARTE: LA ENCRUCIJADA DEL PUENTE DE ALCOLEA

Una gloriosa revolución y una última guerra carlista. (1868-1876)	76
---	-----------

Un epílogo. ¿Evolución, revolución o involución?. Balance del sexenio democrático y de la Restauración	91
--	-----------

SARRERA GISA, ZER GERTATU ZEN ZEHAZKI LEZON 1789KO IRAILAREN 16AN?

Segur aski batek baino gehiagok pentsatuko du egun horretan, 1789ko irailaren 16an, ez zela ezer gertatu Lezon. Ez behintzat hemen hasiera doan Historiako liburu batean kontatzea merezi zuen ezer. Areago, seguruenik askok pentsatuko dute galdera horrek ez duela garrantzirik, ez duela zentzurik. Arrazoi izango dute, nonbait. Alde batera, behintzat, bai.

Lezon ez zen ezer gertatu, Parisen bi hilabete lehenago gertatu zenarekin alderatzen badugu. Dena lasai eta txukun zebilen. Ez zekiten ezer –edo hori dirudi behintzat– agintariek “independentziaren eta askatasunaren alderdia” izenez ezagutzen zituztenek egindako gehiegikeriez. Beraz, badirudi muga gertu egon arren, Iparraldeko ibilbidea egiten zuten diligentziek eta posta-zaldiek, haiek baino are azkarragoak zirenek, ez zutela “independentziaren eta askatasunaren alderdiak” argitaratutako egunkari bat bera ere ekarri Luis XVI.a erregeak ekainaren 20rako deitu zuen **Batzar Nazionala** egin zenetik. Bertan, Batzar Nazionala ez deuseztatzea erabaki zuten harik eta herrialdea goitik behera aldatu arte, erregimen –politiko, sozial eta ekonomiko– guztiz berria emanez, ordura artekoaren aurkakoa eta, aurrena Frantzia eta gero Europa guztian –bereziki Lezo barne–, “Antzinako Erregimen” izena hartuko zuena.¹

Beraz, 1789ko irail hartan Lezoko Unibertsitateak Hondarribirengandik –XIII. mendetik

Batzar Nazionala. Frantziako gizartea –Lapurdi izan ezik– eta oro har Europa guztikoa Erdi Arotik banatuta zegoen hiru estamentuen bilera zen: hau da, klerikoak, nobleak eta komunak edo Hirugarren Estatua. Frantziako Monarkia Absolutuaren baliabide bat izan zen sistemaren krisi sakonari aurre egiteko, baina, paradoxikoki, haren amaiera bizkortzeko baino ez zuen balio izan. Gainera, boteretik baztertuta sentitzen ziren horiek indartu zituen: alegia, komunak edo Hirugarren Estatua, zenbait noble eta klerikoren laguntzarekin, egoeraren jaun eta jabe bihurtuko zirenak, Frantzia gaur egun “iraultza frantsesa” izenez ezagutzen dugun matxinada hartara eramanez.²

¹ Agi denez, Frantziako hexagonoa inguratzen duten monarkia absolutu guztien “osasun kordioak” –aurrerago mintzatuko gara honi buruz– primeran funtzionatu du. Hala ere, baliteke maila apalagoko agintariek –probintzia eta udal mailako eskalan, zuzenean Madrilen menpe zeudenak– deus ez jakitea edota zuhurki isiltzea Frantzia gertatzen ari ziren aldaketa sakonei buruz zekiten guztia. Hauxe gertatuko zen segur aski Frantziatik oso legoa gutxitara: Lezoko Unibertsitatean. Zer esanik ez, jakina, Pasai Donibaneke portuan, non Frantziako berriek azkarrago iritsi behar zuten. Nolanahi ere, Sarrera honetan ikusiko dugun bezala, azaroaren hasieran hasi ziren iristen berriak Lezoko agintariengana.

² Kontzeptu hauei buruz, ikus TULARD, Jean-FAYARD, Jean-François-FIERRO, Alfred: *Diccionario de la Revolución francesa*, 753 or. Iraultza frantsesaren ikuspegi orokor baterako, bibliografia zabala dago; aipa ditza-gun soilik testu gutxi-asko klasiko batzuk, esate baterako: SOBOUL, Albert: *La revolución francesa*; VOVELLE, Michel: *La caída de la monarquía 1787-1792* eta WORONOFF, Denis: *La república burguesa. De temor a brumario 1794-1799*.

nola edo hala Lezo menperatzen zuena— jaso zituen berri bakarrak, ofizialki behintzat, Karlos III.aren heriotzari buruzkoak dira. Espainiako inperio zabalaren tronura 1763an igo arren, berriz egin behar zen tronuratzeko zeremonia, oraingoan Karlos IV.arekin, Frantziako errege Luis XVI.aren lehengusua, hain zuzen ere. Azken honen erregealdia amaitzeaz zegoen eta berarekin herrialde guztia eta are beste kontinente batzuk eramango zituen herrestan. Bi lehengusuen antza —fisikoki eta beste alderdi batzuetan— nabarmena zen inondik ere, bion erretratu ofizialak edo enkarguzkoak —Francisco Goyak Espainiako erregearen sendi osoa oihal batean bilduz egin zuena, kasu— alderatuz egiazta daitezkeen bezala.³

Hondarribiko udalak haren menpe zegoen Lezori agindutakoa ez da ezer aldatzen Errege Katolikoen garaitik —XV. Mendearen bukaeran— egiten ari zenaren aldean. Udalbatza bilduko zen “Real Proclamación en la forma acostumbrada” egiteko. Hau da, oholza prestatuko zen eta haren aurrean barrutiko herritar guztiak desfilatuko zuten formazioan, armak erakutsiz. Hondarribian kokatutako goarnizioko ofizialak eta orobat bertako parrokiako elizgizonak gonbidatuak izan ziren borboitar monarkiaren berreste-zeremonia honetan parte hartzeko. Nola ez, azken hauek baitziren hurrengo egunean erregealdi berriaren hastapena bedekatzeko “Te Deum” bat abestu behar zutenak.⁴

Beraz, aurreikusi bezala gertatu zen dena. Duela mendeak bezala. 1789ko urriaren hasieran hiriko miliziaren eskuadroia —Gipuzkoako probintziako foruari jarraiki, 18 urtetik 60 urtera arteko osasun oneko herritarrek osatuta— Hondarribiko udaletxearen inguruan eratu zen. Bertako kapitulu-gelan udal korporazio guztia bildu zen, hura bezalako egun handietan ohikoa zen legez. Lehen alkate Jose Ventura de Rameryren jantzia, berriz, kolorezkoa zen. Alegia, garai hartako eguneroko arropak, miliziaren eskuadroia osatzen zutenei exijitu zitzaizkien bezalakoak. Behin kapitulu-gelara iritsita, hiriko bigarren alkateak hiriko zutoihala eman zion, errege berria aldarrikatuz airean eragiteko. Zutoihala jaso izanaren lekukotasuna emateko akta egin ondoren, alkatea eskuadroiarekin bat egitera jaitzi zen. Halaxe deskribatzen ditu akta liburuak: “ciento y cinquenta fusileros ricamente bestidos y con escarapelas en los sombreros”. Haiekin batera, txirula eta danborra. Ez ziren, beraz, ilustrazioko Europa hartan eratu ziren eta garai hartantxe azkenetan zeuden hainbeste milizia haietako ezain baino gutxiago.⁵

Handik, kale nagusian gora, hiriko Arma Plazaraino iritsiko dira formazioan. Bertan, udal txeko berriko balkoitik, gaur egungo Paradorearen aurreko etxeetako batetik, alkatea aldarrikapena egiteko prestatu zen. Balkoia egun horretarako apainduta zegoen damaskozko oihal

³ Joseba Goñik bere garaian nabarmendu zuen antza hau. Ikus GOÑI GALARRAGA, Joseba: “La Revolución francesa en el País Vasco: la guerra de la Convención (1793-1795)”, in ZZEE: *Historia del Pueblo Vasco*, 3. liburukia, 13 or. Erdi Aroan Lezoko lurraldea Hondarribiari emateaz, ikus RILOVA JERICÓ, Carlos: “Dueño y señor de su estado”. *Un ensayo sobre la persistencia del feudalismo. El señorío colectivo de la ciudad de Hondarribia (1499-1834)*, 39 or. Bertan, Gaztelako errege Alfonso VIII.ak sinatutako agiria esanahiari buruz XVII. mendetik aurrera egindako oharren laburpena egiten da. Honi buruz, ikus LARRAÑAGAZULUETA, Miguel-TAPIARUBIO, Izaskun: *Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia (1186-1479)*, I. liburukia, 5-7 or.

⁴ Honi buruz, Hondarribiko Udal Artxibategia (HUA) kontsultatu: A 1 134, orriak: 114 itzulua -115 zuzena.

⁵ HUA: A 1 134, orriak: 125 zuzena-125 itzulua. Testuan agertzen diren antroponimoak normalizatuak izan dira gaur egun baliokidea izango zen grafia batekin. Hartara, agirian azaltzen den “Josef Ventura de Ramery”, hemen “José Ventura de Ramery” izango da. Irizpide berari eutsi diogu toponimoei dagokienez, testuan zehar ikusiko dugun bezala.

gorri biziarekin eta errezel baten azpian erregearen eta bere erreginaren erretratuak zeuden. Bateko olibo gongonbidatu handi horiek eta beste kokatuta, herriaren aurrean jarri eta hiru aldiz eragin zuen milizia haraino eramateko erabili zuen zutoihala. Hiru bider ere, ozen eta argi, ohiko hitzak esango ditu: “Silencio, silencio, silencio, oid, oid, oid, Fuenterravia, Fuenterravia, Fuenterravia, por el Rey catholico Nuestro Señor Don Carlos quarto, que Dios guarde”.⁶

Han bildutako herri onak ez zuen eragozpenik jarri; hortaz, Frantzian azken bi hilabeteetan gertatzen ari zenari jaramonik egin gabe, “con suma alegria y universal aplauso, en altas voces viua, Viua, Viua” erantzun zuen. Miliziaren eskudroiak fusileriaren hiru deskarga itxi jo zituen “en forma militar” herriaren goraiamenak indartzeko. Honen ostean, alkateak berriz desfilatuko du eskudroiaren aurretik eta argien mendean ohikoak ziren deskarga konplexu horietako bat egingo du. Gero, udaletxe zaharrera itzuliko dira, hiriko korporazioari zutoihala itzultzeko. Gau horretan, aldarrikapen zeremonia dantzaldi batekin itxi zen eta errege berrien erretratuak jendaurrean erakutsi ziren, militar estiloko –nola ez– guardia batek zainduta. Hiri osoko balkoiak argiez apainduta zeuden eta argi horren pean egin zen, ohikoa zenez, aldarrikapen berria ospatzeko dantzaldia. Orrialde horietan bertan aipatzen da gutxienez Lezoko lau ordezkariak –lau dira, behintzat, izen-abizenez aipatzen direnak– parte hartu zutela aldarrikapen zeremonia horretan: Rafael Agirre, unibertsitateko administrazioaren burua eta Baltasar Eizagirre, Jose Bernardo Olaizola eta Santiago Agirre erregidoreak. Haiekin batera, Lezoko miliziaren zati bat gerturatu zen, Hondarribiko hiriarenera joan behar izaten zuten eta.⁷

Lezoko ordezkariak lekuko izan zituen zeremonia hori bakean bukatu zen, baina, logikoa zenez, hark ez zuen gehiegi iraun. Irailean jada, neurriak hartu behar izan zituzten garia lortzeko eta gosea herri hartan nagusitu zedin saihesteko. Izan ere, herri hori errege berriaren aldeko bibak jaurtizeko gai zen bezalaxe, gai zen orobat benetako matxinada bat antolatzeko, errege berria goraiatzeko erabilitako armak aginte-ikur haien guztien aurka itzuliz. Halaxe gertatu zen, hain zuzen ere, hiru urte lehenago, Karlos IV.aren aita 1766ko matxinada ospetsuan era horretan aldarrikatu zutenean.⁸

Txinparta hau Parisko herri xehearen artean piztua zen berriz ere gariaren gabezia zela-eta. Hala, laster, 1789ko azaroaren 4an, erregeak goraiatzen jarraitzen zituzten udal agintari leial haiei jakinarazi zitzairen monarkiaren mugen barnean ere ageriak zirela jada arrangura hori

⁶ HUA A 1 134, orriak: 126 zuzena-126 itzulia.

⁷ HUA A 1 134, orriak: 125 zuzena

⁸ Honi buruz, ikus HUA A 1 134, orriak: 116 zuzena. 1766ko matxinadari buruz, ikus GURRUCHAGA, Ildefonso: “La machinada del año 1766 en Azpeitia. Sus causas y desarrollo”, 379-392 or. Ikerketa klasiko bat, lehenengo mendeko 30eko hamarkadan idatzia. Mende horretako 70eko hamarkadatik aurrera pixkanaka profesionalizatzen joango diren euskal historialariek hark hasitako bidea garatuko dute. Ikus OTAZU Y LLANA, Alfonso: El “igualitarismo” vasco: mito y realidad. Beste bat autore berarena: “La burguesía revolucionaria vasca a fines del siglo XVIII”. Berriagoa: IÑURRATEGUI RODRIGUEZ, José María: *Monstruo indómito: rusticidad y fiereza de costumbres*. Hiru liburuko monografiko horiez gain, 1766ko matxinadari edo haren alderdi zehatzagoei buruzko artikuluak eta hitzaldiak ditugu. Ikus PIQUERO, Santiago-SÁNCHEZ, Javier: “Zarauz tradicional”, in ZZEE: *Zarauz a través de la Historia*, ZABALA, Aingeru: “La matxinada de 1766 en Bizkaia”, 143-170 or. Azkenik, interesgarriak izan daitezke orobat Baskoniako Zuzenbide Historikoko Institutuak antolatutako II. Symposiumera berriki bidalitako bi artikulu: RILOVA JERICÓ, Carlos: “Este feroz y desmandado pueblo. Reacciones frente a la machinada de 1766 y la revolución norteamericana. Apuntes para una Historia comparativa”, 413-431 or. eta ZAPIRAIN KARRIKA, David-MORAAFÁN, Juan Carlos: “Docena bat guizonen artu naute”: 1766ko urteko matxinadari buruzko zenbait xehetasun eta euskaraz idatzitako txosten baten berri”, 433-442 or.

xaxatzeko prest zeuden eragileak. Malagan, esate baterako, ezagutzen zituzten jada “las ocurrencias de París”. Bertan kokatutako hiru frantses, gutxienez, agertuak ziren entseinak kapeletan zituztela, Hondarribiko eta inguruko gizonak Karlos IV.a errege aldarrikatu zuten egunean eramaten zituztenengandik oso desberdinak, gainera. Hondarribikoei mezua igortzen zieten agintarien arabera –haiengandik Lezoko agintariengana pasatuko zen, inondik ere–, hiru koloreko entseina haiek Frantziaren “Yndependencia y livrtad” defendatzen zutenek eraman ohi zituztenak ziren. Gauza bera gertatu zen Malagako zaindaria den “Virgen de la Victoria”ren egunean; izan ere, bertan, Frantziako berrogeita hamar bat hiritarrek “hicieron igual abuso de aquella señal”. Eta ez zen soilik hiru koloreko entseina iraultzaile haien kontua, okerrena zen “askatasun osoz” kontaktzen ziotela entzun nahi zien guztiari beren herrialdean gertatzen ari zena.⁹

Pedro Escolano Arrietak, Ganbarako eta Kontzejuaren gobernuko eskribauak, berri kezkarri horiek guztiak kontaktzen zizkion Valladolideko Errege Kantzileritzako presidenteari, irailaren 26tik Madrilgo hiribilduko Etxe eta Gorteko alkateek haien berri zutela jakinaraziz. Mezua argia zen: denok bat zetozen halako “desorden” hura ez zela zabaldu behar esatean eta, erregearen aginduz, halako gertakariak konpondu behar ziren “del modo mas oportuno”. Alegia, “emisarios y propagadores de la livrtad” ziren haiek isilarazi behar zirela.¹⁰

Agi denez, hala Hondarribiko agintariek nola haien menpeko Lezokoeak, hasiera batean behintzat, arrakasta nabarmena izan zuten erregeak beren funtzionarioen bidez agindutako eginkizunean. Hala ere, egoera horrek ez zuen askoz gehiago iraungo. Egia esan, egun horietan Donostian, izan zen hiru koloreko entseina bere hiru puntako kapelan eraman zuenik. Gertakari larria inondik ere, Ricardos jeneralak, hari buruz galdekaturia izan zenean garrantzia kendu zion arren, entseina eraman zutenak “gente de poca consideración” zirela esanez.¹¹

Izan ere, bere garaian Alfonso de Otazu y Llanak eta haren ondoren Paloma Miranda de Lagek ohartarazi zuten bezala, propaganda iraultzaileak, akta-liburuez eta ordura arte beren gustura administratu –edo, nola ikusten den, nagusikeriaz gobernatu–duten gizartearekiko nagusitasuna eta kontrola arriskuan ikusten duten agintarien gogoeta aztoratu hauetaz harago, bazuen non errota 1789 hartako Gipuzkoan. Inkisizioko komisarioek, ikaraturik, txostenak bidaltzen zituzten Madrilera esanez Donostiako zenbait lekutan, hala nola “La casa del Café” izeneko lokalean, erregea madarikatzen zuten zibilak eta militarrek biltzen zirela eztabaidatzeko eta, beste zenbait ideia kezkarriren artean, frantsesek promulgatu nahi zuten konstituzioa gorapatzen zutela.¹²

Horiek horrela, has gaitetzke pentsatzen baietz, 1789ko irailaren 16 horrexetatik, XV. men-

⁹ HUA A 1 134, orriak: 223 zuzena. Malagako entseinen berriei buruz, Lezon jasotzen zituztenak baino askoz okerragoak, ikus ELORZA, Antonio: “El temido árbol de la Libertad” eta DOMERGUE, Lucienne: “Propaganda y contrapropaganda en España durante la revolución francesa (1789-1795)”, biak ala biak in AYMES, Jean-René (arg.): *España y la revolución francesa*, 72 or. eta 129 or., hurrenez hurren.

¹⁰ HUA A 1 134, orriak: 223 zuzena-223 itzulia.

¹¹ 1789ko abuztuan izan zen. Ikus DOMERGUE: “Propaganda y contrapropaganda en España durante la revolución francesa (1789-1795)”, in AYMES (arg.): *España y la revolución francesa*, 129 or.

¹² Ikus OTAZU Y LLANA: *La burguesía revolucionaria vasca a fines del siglo XVIII* eta MIRANDA DE LAGE, Paloma: “Frantseseko argitalpenak Gipuzkoan Iraultzauren garaian-Las publicaciones francesas en Gipuzkoa en tiempo de la revolución”, in ZZEE: *Gipuzkoa duela 200 urte-Hace 200 años en Gipuzkoa*, 29-49 or.

detik ezer ez zela aldatu zirudien arren, dena nahaspilatuko zela Lezoko inguru gertuenean. Zerbait gertatua zen jada beste askorengandik berdin-berdina zen egun horretan. Beraz, iraultza frantsesak borrokatzen zuen Antzinako Erregimena, Hondarribiko aldarrikapen zere- monia horrek edo, urte dezente lehenago –XVII. mendearen hasieran– Lope de Isastik uni- bertsitatearen gainean hegan ikusi omen zituen sorginek –garai haietako Elizak ideia hau arbuiatzen zuen arren, inguru hauetan, nola ez, izan zuen osperik XVIII. mendera arte– hain ondo irudikatua, laster ordezkatu du mundu berri batek, zeinean erregeak aldarrikatu beha- rrean, errepublikak aldarrikatzen ziren eta zeruan fabriketako tximinietako eta baporetako kea besterik ez zen. Mundu honetan, kutsu feudaleko botereak, Hondarribia hiriko erakunde- ek edo Guillermo Muru Lezoandia bezalako lehiakide txikiek ordezkatuak, Lezoko jurisdikzio- tik baztertuko ditu pixkanaka gizarte antolakuntza berri batek, ezein sorginek egingo zituenak baino bitxiagoak, magikoagoak eta eraginkorragoak ziren makinek mugitzen zituzten fabrika eta baporeek sortutako aberastasunean oinarrituta.¹³

XIX. mendearen amaieraraino erabat asaldatua egongo den Europa batean, zenbait iraul- tza –1808koa, 1820koa, 1854koa eta, bereziki, 1868koa– izango dira komunitate honetan gauzak gaur egungo munduaren norabidean bultzatuko dituztenak. Hauen ondorengo ehun orrialde pasatxoek azalduko dute hau guztia era errazean baina zehaztasunez.

¹³ XVII. mendearen hasierako Lezoko sorginei buruz, ikus CARO BAROJA, Julio: *Brujería vasca*, 244-256 or. Guillermo Muru Lezoandiaren bizitza eta heriotzari buruz, biak ala biak Konbentzioaren armadak garaitzeko prest zegoen Barrokoko Europako gizartearen paradigma ezin hobeak, ikus RILOVA JERICÓ: "*Dueño y señor de su estado*". *Un ensayo sobre la persistencia del feudalismo*, 21-22 or. eta ZURUTUZA, Lander: "Lezoandiko jaunaren hilketa", 13-17 or.

I. ATALA

LEHEN OLDAR IRAULTZAILEA

IRAULTZA BATEN ITZALA. KONBENTZIOAREN AURKAKO GERRA ETA OKUPAZIO IRAULTZAILEAREN GARAIA (1793-1795).

Zenbait urtetan zehar, 1789ko irailaren 16 horretatik 1793ko udara arte, Lezo, era batera edo bestera, bertatik legoa gutxitara –hobe izango da, agian, kilometro esatean, Parisko iraultzaileek bezala– gertatzen zenetik at egon zen. Agiriak ez dira esplizituegiak horri dagokionez. Unibertsitateak sorturikoetan ez da ezer aipatzen 1789ko udazkenetik 1793ko udara bitartean gertatukoari buruz.

Hondarribikoek, berriz, artean Lezo administratzen zuen gunea izanik, zer edo zer laguntzen dute une honetako paisaia iluna argizatzen. Bide bat zuen aurrean Lezok garai hartan: Antzinako Erregimeneko Europak berezkoa zuen industriaurreko mundua –Frantzia suntsitua izan zena jada– eta 1793tik 1876 artean arian-arian zertzen joango zen gizarte industrial eta demokratizatua lotzen zituen.

Etsaia, dudarik gabe, akta-liburuetan irakurtzen dugunaren arabera, unibertsitatetik oso gertu zegoen jada. Hondarribiko Kontzejuko geletatik, behintzat, horixe ikusten zuten argi eta garbi.

Lezo gobernatzen zuen udal honen aktetan, Europa osoa hankaz gora jartzen ari den iraultza beldurgarri eta izugarri horri buruzko berriak pilatzen dira.

Nahikoa da 1793. urteko udal gobernuaren erabakiak jasotzen dituen liburuaren aurreneko orrialdeak irakurtzea ikusteko ezer ez dela izango 1789ko uztailearen 14aren aurretik bezala. Jende arrotza zebilen hiritik hurbil. Konbentzio frantziarrak bidalitako espioiak ziren, iraultzak aurrera egitearen aurka zegoen potentzietako baten atariaz jabetzeko asmoz. Horrexegatik agindu zuten bost gizonak zaintza egin behar zuten Guadalupeko ermitaren inguruan, hortik gertu ikusi izan dutelako zokomiran jantzi “ridiculo y no propio de estos Payses” omen zeraman gizon bat. Bazekiten, gainera, edo hori diote aktek, behintzat, santutegiaren atea bortxatzen saiatu zirela. Hondarribia –gogora dezagun Higerretik, hiriko harresia gaindituz, Lezoko Unibertsitateraino iristen zela– gobernatzen zuten gizonak ez ziren harago joan urte erabakigarri hartan. Dena den, Guadalupe inguruan azaldu zen gizona Parisko iraultzaileei gerra deklaratu dieten potentzien lurraldeetako edozein bazterretan agertzen hasiak direnen espeziekoa dela dirudi: hau da, iraultzak ordaindutako espioen eta eragile agitatzaileena.¹⁴

Zaila da ez ikustea jantzi barregarriko gizon arrotz horrengan gutxi gora behera egun horietan –1795. urtea zen–, Ingalaterran, Nankineko galtzamotzekin jantzita azaldu zen beste gizon haren oihartzuna, agintari britainiarren mesfidantza eragin zuena. Agintari britainiarrak Espainiako erregearen –1789ko udaren amaieran, Lezo gobernatzen zuten

¹⁴ Ikus HUA A 1 138, orria. 11 itzulia.

agintariak goraiatu zuten bera– aliatu leialak ziren eta orobat historia kolektibo moduko hori pairatzen zuten; izan ere, epaitzen eta exekutatzen zituzten –prozesu sumarioetan, gainera– ikusten zituzten usteko espioiak, oraingoan, logikoa denez, William Pittek iraultza barnetik leherrarazteko bidaliak.¹⁵



Lezo Pasaiaiko bidetik
Iturria: Kutxa Fototeka

¹⁵ Ikus THOMPSON, Edward Palmer: *Tradición, revuelta y conciencia de clase. Estudios sobre la crisis de la sociedad preindustrial*, 218-219 or. Informazioa mamitsua zen benetan. 1795ean, hau da, Britainia Handian jakobinoen aurkako historiaren unerik gorenean, Hastings-eko alkate zenarengandik zetorren. Frantziako usteko agente horren goitizena Leigh jauna zen eta haren itxura, hautsezatu gabeko ilajea salbu, Robespierrearen eta haren jarraitzaileena dakar gogora: txaleko beltza, kolore bereko kasaka, Nankinezko –“nanquin”, Thompsonen liburuan– ohialeko galtzamotz famatuak eta “aspecto triste”. Haren hostalaria eta honen neska, Ingalaterrako gaitz guztiak Mantxako Kanalaren bestaldeko etsaiei edo haiek erositakoei errua egotzen zien alkatearekin elkar hartuta. Ez zen gauza handirik izan, baina haren mugimendu guztiak jarraituta, hurbileko goarnizioetako soldaduak bereganatzeko ahalegin handiak egiten ikusi zuten, edatera eta berarekin mintzatzera gonbidatuz. Haren irakurgaiak –besteak beste, Payneren “Gizakiaren eskubideak” eta Brotherreren profeziak– zelatatuak izan ziren ere eta orobat, handik gutxira, bere ustekabeko alde egitea Hastingsetik –1066an, frantziarrek Ingalaterra indarrez hartu ondorengo azken bataila gertatu zen hiria, hain zuzen ere–. Thompsonen lan honetan bertan, jakobinoen aurkako ikarari buruzko beste bi pasarte interesgarri ditugu, haren ustez Ingalaterran gertatutako edozein zalapartaren atzean Frantsesaren eskua baitzegoen, ikus, esate baterako, 123-124, 196, 199 eta 206-207 or.

Frantziaren historiari buruz, bere lerroen artean behin eta berriz espioiak aurkitzen dituen, ikus TULARD-FAYARD-FIERRO: *Historia y diccionario de la revolución francesa*, 752 or.

Lezora iristen ziren berriak –edo iritsi behar zutenak, behintzat– kezkarriagoak ziren, egia esan, Europa erdian zehar barreiatutako iraultzaren agente hauei zegokienez.

Izan ere, modaren aldaketak, Fernand Braudel historialariak bere garaian adierazi zuen bezala, europarren eta haien dinamismo sozial eta politikoaren nortasun ezaugarri garrantzitsuenetakoak dira eta kasu honetan erne jarriak zituzten jada Karlos IV.aren monarkia-ko agintariak, eta hauek, beren aldetik, Gipuzkoako probintziakoak jakinaren gainean jarri zituzten. Azken hauek, jakina, berehala adierazi zieten Hondarribikoei eta handik –pentsatzekoa denez– Lezora iritsi ziren luze gabe.

Horiek horrela, Gipuzkoak ahaldun nagusi Rafael Palaciosek jakinarazi zuen ekainaren 4an, Erresumako Errenta Zuzendari Nagusiak 1794ko Errege Ordena bat –hil horretako 6an datatua eta ekainaren 2an Tronuak sortua– bidali zion. Bertan adierazten da Cadizeko gazte batzuek Paris iraultzaileko dandyen azken moda eraman zutela hirira. Alegia: “uso extravagante de un Bastón corto por el qual heran conocidos con el nombre de los del cetro roto, y de un Pañuelo que llamavan á la Guillotina”. Andaluziako hiriko gobernuak errotik moztu zuen moda berria, izan ere, hain zen politikoki konprometitua, non agintariak “abuso” zela baitzioten. Erregeak, bere aldetik, bere menpeko lurraldeko mugetako herri guztiak –zer esanik ez, Hondarribia eta haren menpean zegoen Lezo, Pasai Donibaneko portutik hain gertu, inplikatur– erne egotea nahi zuen, moda kaltegarri horrek erresumaren ateak itxita aurki zitza. ¹⁶

Ez ziren hauek iraultzaren marea Gipuzkoako kostalderaino ekartzen ari zen hondar bakarrak. Hondarribiko akta liburuak berri esplizituagoak zekartzan. Luis XVI.aren tronu eroriarengatik lehian ari direnen arteko alderdi erradikalenak Iraultzaren hidraren aurka piztutako gerrari buruzkoak, hain zuzen.

Hala da, Karlos IV.ak ez zuen zalantzarik izan bere lehengusu ia bikiaren –hala gizontasunarengatik nola ergelkeriarengatik– heriotza mendekatzeko orduan. Horretarako, beren lurraldea iraultza frantsesaren modaren jarraitzaile sutsuez eta Nankinezko galtzamotze-kin jantzitako **jakobino** frantsesen agentez josita ikusten zuten britainiarrekin aliatu behar izan zuen.

¹⁶ HUA A 1 138, orriak: 142 zuzena-142 itzulia. Modei eta hauen aldaketei buruz, oso interesagarria de XX. mendeko historialari nagusietako baten iritzia: Fernand Braudelena. Ikus BRAUDEL, Fernand: *Civilización material, economía y capitalismo, siglos XV-XVIII*. I. Liburukia, 275-277 or. Braudelen arabera, Europako modak aldizka jasandako aldaketek etengabeko bilakera-prozesu bat adierazten dute. Zentzu honetan, otomandar inperioan, esaterako, XX. mendera arte politikoki oso geldoa, ez zen moda aldatu Braudelen lanak hartzen dituen hiru mendeetan, garai haietako Europa kristauan ez bezala. Iraultzak ekarritako beste zenbait eguneroko objekturen aldaketei buruz, ikus VOVELLE: *La caída de la monarquía*, 245-248 or. Paloma Mirandak, bere artikulua paregabea, urte haietako Cadizen giroa –Donostia bezalako sedizio-gune bat– isalaten du. Ikus MIRANDEDE LAGE: “Frantseseko argitalpenak Gipuzkoan Iraultzauren garaian-Las publicaciones francesas en Gipuzkoa en tiempo de la revolución”, in ZZEE: *Gipuzkoa duela 200 urte-Hace 200 años en Gipuzkoa*, 37-39 or. Makila motzen eta zapien gertakariari buruz, ikus DOMERGUE: “Propaganda y contrapropaganda en España durante la revolución francesa (1789-1795)”, in AYMES (arg.): *España y la revolución francesa*, 130-131 or.

Jakobinoen alderdia: Frantziako burgesia iraultzailearen muturreko hegala. Monarkia deuseztatzearen aldeko asmo irmoak eta Errepublikaren Konbentzioaren aurreratzeak “Terrorearen Erregimena” izenekoak bultzatuko dute. Osasun Publikorako Batzardea izenekoak zuzendutako errepresiozko politikan oinarrituta, erregimen berriaren etsaiak bilatzen eta hiltzen zituen –epaiketa gutxi-asko zalapartatsuen ondoren–. Asko ziren erregimenaren etsai horiek: besteak beste, Karlos IV.ak berak eta beste zenbait despotak bultzatutako erreakzio monarkikoaren aurkako gerrekin aberastu nahi zuten espekulatuzaileak, aldaketarik onartzen ez zuten noble frantsesak edota kleroa, hazten ikusi zuen erregimena deuseztatzearen guztiz aurkakoa zena. Alderdiaren kiderik garrantzitsuena Maximilien Robespierre abokatua izan zen. Errostezina ezizenez ezagututa, benetan bihizgabe eta zorrotza patologia ukitzeraino, sektore asko jarri zituen beraren eta bere alderdiaren aurka, Parisko herri xeheak –sansculottes famatuak, gure irudimen kolektiboan, 1789ko iraultzarekin automatikoki lotzen ditugunak– laguntzea lortu gabe. Iraultzaren sektore erradikal eta herrikoia deuseztatu zuen erreakzio thermidorarra da, Errepublika burges eta askoz moderatuago bati bide eman nahian. Luze gabe, gainera, konponbide militarra pertsonifikatzen zuen Napoleon Bonaparte bultzatuko du. Iraultzaren seme bat, hark teniente kargutik jeneralenera igoa, baina, hala eta guztiz ere, militar guztiak legez, gehiegikerien eta anabasaren aurkakoa. Kontrairaultza moduko hori izango da Lezo eta Gipuzkoako lurraldearen zati on bat tropa iraultzaileen esku daudenean.

Jakobino ezizena alderdiaren lehen elkarteak kokatu zen elizatik dator, Santiagoren izenpeko ordena batekoa, inondik ere.¹⁷

Horiek horrela, espainiarren eta britainiarren ontziteriak ozta-ozta askatua zuen Toulongo portua frantses gobernu iraultzailearen eskutatik. Nolabaiteko balentria horrek gutxi iraun zuen, eta gotorlekua eta portua hustu eta erreakzio monarkikoaren alde nola edo hala agertu zirenak handik aterarazi zituen. Beraz, bi aukera baino ez zuten azken

¹⁷ TULARD-FAYARD-FIERRO: *Historia y diccionario de la Revolución francesa*, 820-821 or.

hauek: Gillotinan hiltzea, han geratuz gero, edo presoen gabarretan hiltzea, espainiar ontzietan ihes egitea erabakitzen bazuten. Izan ere, Frantziako errepublika berriko zenbait mandatarik Iraultzaren etsaiekin kargatuta zeuden ontziak zigilatu eta urperatzeko ohitura makurra hartua baitzuten.¹⁸

Gertaera hauen inguruan lezoarrek jasotako informazioa, segur asko, nahiko urria izan zen. Hala ere, kontuan hartu behar dugu, gertaera horiei buruz Hondarribiako akta-liburuak jasotako oharra zabalak eta zehatzak direla. Horrela, ohar hauek irakurriz gero, jakingo dugu Lezo gobernatzen zuten agintariak bazekitela Karlos IV.ak ez zituela abandonatu nahi exekutatu berri zuten bere lehengusuaren menpeko gizon leialak. Eta, hortaz, hauxe agindu zien bere erresumako agintariak: Itsas Armada espainiarraren ontzien “Errege Banderaren menpe” salbatu ziren Toulongo auzotar eta biztanleei “babesa eta abegi ona ez ukatzeko”.¹⁹

Alabaina, erregeak errefuxiatu talde txiki samar hori agindupeko lurretako leku batzuetatik berehala urruntzea gomendatu zuen. Izan ere, saihestu nahi zuen karitatezko egin-tza horren ondorioz etsaiak –beharbada Nankingoko oihalezko galtzamotzekin edo susmorik ez sortzeko mozorroren batekin jantzita– gune jakin batzuetan sartzea eta, izurri bat bezala, Frantziako iraultza zabaltzea.

Horiek horrela, lezoar gehienek, eta baita gobernatzen zituzten hondarribiarrek ere, ez zuten segur asko inoiz errefuxiatu horien etorrera ikusi. Informazio hori, beraz, herriaren gobernariaren eta haien izenean unibertsitatea gobernatzen zuten Lezoko biztanleen esku geratu zen soilik, eta Madrildik bidalitako zirkular horren bidez besterik ez. Erregearen aginduak nahiko argiak ziren: bere monarkiaren edozein portutatik 20 legoatara bizi zen menpeko bakar batek ere ezin zuen Toulongo errefuxiatuekin harremanik izan. Hauexek dira errefuxiatu hauek debekatuta zituzten bizilekuak: portuetatik gertu zeuden muga horiek, Frantziarekiko mugetatik hurbil, Gortetik eta Erregearen Egoitzetatik gertu, Valentziako erresumaren inguruak eta, nolana ere, ostatu har zezaketen herrietan ezin zuten lautik gora bildu. Apaizak, militarrek, artisauak “eta gainerako klaseak” ziren. Errege espainiarra, ordea, beldur zen bere lehengusu Luis XVI.aren mendeko leialen itxura xalo horien atzean ez ote ziren Nankinezko edo beste mota bateko oihalezko galtzamotzekin

¹⁸ Gertakari honi buruz, ikus SECO SERRANO, Carlos: “La política exterior de Carlos IV”, in ZZEE: *Las Indias y la política exterior*. XXXI. liburukia, II. alea, Ramon Menendez Pidalen Espainiako Historiarena, 524-528 or. Iraultzaren metodo basatsei buruz, ez hainbeste iraultzaren komisarioak bidaltzen zituzten lurraldeetan nola Parisen, ikus SOBOUL, Albert: *Los sans-culottes. Movimiento popular y gobierno revolucionario*, 153-156 or. Ikerketa sistematizatuago bat: ARASSE, Daniel: *La guillotina y la figuración del Terror*. Britainiako historiagile Eric J. Hobsbawm-ek fenomeno hau aztertu zuen eta, neurri batean, desenkusatu du nolabait; izan ere, haren ustez, historiografia kontserbadorearen zati batek Terrorrearen krimenak handietsi ditu, kontuan hartu gabe horien kopurua iraultzaren aurkako eskuinaren zenbait pasarte errepresiborenak baino txikiagoa izan zela. Honen adibidea izan daitezke 1871ko Parisko Komunako gizon eta emakumeen aurkako exekuzioak. Bigarren inperioak Paris inguratzen zuten prusiarren aurka galdu ostean, Frantziaren herri errepublika deklaratu zuten haiak. Ikus HOBBSAWM, Eric J.: *Las revoluciones burguesas*, 129 eta 133-134 or.

¹⁹ HUA A 1 138, orriak: 86 zuzena.

jantzitako jakobinoak ezkututzen. Jakobino hauek menpekoen buruak eta bihotzak iraultzaren aldeko ideiekin nahastuz gero, erregearen agindupeko lurren defentsarako funtsezkoak ziren gotorleku, portu eta herriak erori eta iraultzaren helburua –lehen atal hone-tan behin baino gehiagotan ikusiko duguna– beteko litzateke; alegia, gerra tiranoei –Karlos IV.a barne– eta bakea ordura arte gobernatu zuten herriei.²⁰

Toulongo errefuxiatuei ostatu ematea beste erremediorik ez zuten herriei hauxe agindu zieten: beren jokaerari “arretaz erreparatzea”, bereziki “haiei buruzko berri susmagarriak daudenean, edo Frantzian Erljio katolikoaren eta Erregearen aurka jardun izanaren frogak daudenean” eta orobat “reincidencia e incorregibilidad” erakusten dutenean. Hau guz-tia nahikoa izan zen, nolana ere, lezoarrek –bertako gobernariak eta hauen zirkulu fami-liarra salbu– garaiezina zirudien Errepublika iraultzaile baten kontra Toulongo portuan izandako garaipen garratz horri buruz asko jakin ez zezaten.²¹

Dena den, dagoeneko deklaraturako Iraultzaren kontra hartutako neurri horiek ez zuten luzaro iraun. Hondarribiako akta-liburu horretan –mundua hunkitu zuen iraultza horri buruz lezoarrek jakin zutena jasotzen duen agiri bakarra– argi eta garbi aipatzen zen Errepublika frantsesaren armadaren etorrera geldiezina eta orobat Karlos IV.ak agente iraultzaileen-gandik kontu handiz babestu nahi zuela probintzia.

Iraultzarekin eta gillotinarekin flirteatzen ari ziren zalduntxo cadiztarrei eta Pariseko Konbentzioaren Armadek setiatutako Toulondik ihes egiten duten errefuxiatuei buruzko berrien artean, badira beste berri batzuk, lezoarrek baztertu ezin dituztenak. Hondarribia, agindu guztien iturria eta Lezoko unibertsitatearen benetako buru administratiboa, Frantziako Iraultzaren soldaduek inguratuta zegoen.

Lapurdiko probintzian arrakastaz eta berehala aurrera egin ondoren, Ventura Caro jene-ralaren soldaduek atzera egin behar izan zuten Gipuzkoarantz. Hondarribiak erretreta babestu behar zuen eta, XV. mendetik egin ohi zen bezala, Bidasoako muga zeharkatzea lortzen zuten Koroaren etsaiei bidea itxi.²²

Ventura Carok berak ohartarazi zien Frantsesak gotorlekua hartzeko “gogo bizia” zuela. Are gehiago, bere helburua, uste zuenaren arabera, Gipuzkoa osoaren jabe egitea zen.²³

Ibaiaren bestaldean –non oraindik ere posizio batzuk bazituzten– jazotako borroken inguruko berriak baikorrak ziren. Hala, Alkudiako markesak 1794ko otsailaren 17an muga

²⁰ HUA A 1 138, orriak: 86 itzulia-87 zuzena.

²¹ HUA A 1 138, orriak: 87 itzulia.

²² Kanpaina honen gertaerei buruz, ikus GOÑI GALARRAGA: “La revolución francesa en el País Vasco”, in ZZEE: *Historia del Pueblo Vasco*, 3. liburukia, 5-69 or. eta MUTILOAPOZA, José María: *La crisis de Guipúzcoa*. XV. mendean Hondarribiak nola edo hala jasandako setioei buruz, ikus PORTU, Florentino: *Fuenterrabia: noticias históricas y curiosidades hasta 1969*, 224 or. eta hh.

²³ HUA A 1 138, orriak: 44 zuzena-44 itzulia.

defendatzen dutenak zoriondu zituen Aranjuezeko Erregearen Egoitzatik bidalitako gutun baten bidez. Gutun horretan Gipuzkoako miliziak izandako hildakoen berri ematen zen: iraultzaile frantsesen kontrako borrokan 11 hildako, 64 zauritu eta 8 “kolpatu” zituen. Gorespen hauetan zerikusi handia izan zuen Ventura Caro jeneralak –Iraultzaren armadak geldiarazteko operazioei buruz kontu emateko –Aranjuezera iritsi zenean tokiko soldadu horietaz egin zuen deskribapen kartsuak.²⁴

Alabaina milizia adoretu horiek, Foru gipuzkoarren arauaren arabera sortutakoak eta Lezoko komunitateak ere mantendutakoak, atzera egin zuten jada 1794ko urtearen hasieran. Ventura Caroren aginduek ez zuten ezer onik iragartzen, erasoaldian Bidasoaren iparrerantz aurrera egin zuten gizon horientzat bederen. Gizon hauek prest zeuden Parisen –edo Baionan edo Bordelen behintzat– zital iraultzailea lurperatzeko, izan ere, beren erregeari burua mozteaz gain, Europako gainerako erregeekin gauza bera egin nahi zuten. Bakar batentzat ere ez. Ezta Hondarribiarekin batera ordaintzen zuen armada horri Lezoko unibertsitateak –Gipuzkoako Aldundiak bere banderaren menpe borrokatzen zen batailoia mantentzen laguntzeko eskatzen zizkien 6.207 errealetatik 3.197 erreal ordainduz– erantsi beharreko hiru eta erdientzat –bai horixe: hiru eta erdientzat– ere.²⁵

Militar profesionalak hasiak ziren dagoeneko neurriak hartzen indar horiek eta beste indar batzuk Hondarribiaraino behintzat erretiratzeko. Apirilaren 30ean hiri hartako udalak jakin zuen gotorlekua iraultzaileen aurrean defendatzeko beharrezkoak ziren neurriak hartzen ari zirela. Udala mobilizatu zen eta mobilizatu zuten une horrextatik aurrera. Lehenik eta behin paperak bertako agiritegitik eta balioa zuten objektuak parrokiatik aterarazi zituen. Ia aldi berean, agintari militarrek eskatu zioten zenbait hiritar bidaltzeko harresiak defendatzen zituzten baterien zerbitzura. Alderdi guztiak kontuan hartuz, Udalak, halaber, aginduko du Ama Birjinari eskerrak emateko meza bat egin dadila Guadalupeko basilikan. Izan ere, Ama Birjinari egotzi zioten hildakorik ez egotea Hendaiako kanoiek lehenengo aldiz hilabetetan Ventura Caro jeneralak hustutako hiriaren aurka lehen aldiz tiro egin zutenean.²⁶

Uztailaren 3an etsaia ate joka zegoen. Ez dira kanoikada batzuk soilik, hau ohikoa baitzen azkeneko mendeetan bi herrietan. Orain Hondarribiako bikarioak dio komenigarria izango zela Guadalupeko Ama Birjina beraren imajina ekartzea fede katolikoaren etsaiak modurik hoberenean konjuratzeko; fedearen etsaiak, jakina, Bidasoaren iparraldean pila-tzen ari diren iraultzaileak dira eta Gipuzkoa menpean hartzeko prest daudela ematen du.²⁷

Hil horretako 12an, arriskua areagotu zen: gotorlekutik argi ikusten zen frantsesak Hondarribia setiatzeko asmoa zutela. Lubakiak eginak zituzten jada harresietara hurbil-

²⁴ HUA A 1 138, orriak: 79 zuzena.

²⁵ HUA A 1 138, orriak 13 itzulia, 14 itzulia-15 itzulia eta 23 zuzena-25 zuzena.

²⁶ HUA A 1 138, orriak 36 itzulia-39 zuzena.

²⁷ HUA A 1 138, orriak: 50 itzulia.

tzeko eta kanoi-bateriak ezartzen ari ziren haiek zulatzeko. Gotorleku baten aurkako eraso militar orenen ohiko ataria.²⁸

Jarduera frenetiko samar horren ondorioak laster egin ziren nabarmenak. Iraultzaile frantsesek Hondarribia setiatu zuten. Oraingoan, 1638ko setioak edo 1719ko setioa ez bezala, gotorlekuak errenditu behar izan zuen, aurreko bi setioen aurrekariak kontuan hartuz sinbolikotzat jo ditzakegun borroka batzuen ondoren. Bada, 1794ko abuztuaren 1ean soldadu frantsesen komandanteak mandatari bat hirira bidali zuenean berehala eman behar izan zuen amore, izan ere, sei minututan atea irekitzen ez bazituen, hiria defendatzen zuten hiritarrak eta erregearen soldaduak hil egingo zituzten. Lezoarrak zeuden miliziaren arduraduna zen hiriko udalak ez zituen armak eta gotorlekua etsaiaren esku utzi nahi. Horrela azaltzen du José Ramón Gebarak artikulu batean, non bikain jasotzen dituen



Espartero Generala, 1854. urtearen inguruan

Iturria: Kutxa Fototeka

kanpaina honekin zerikusia duten alderdi guztiak eta Lezo –ondo edo gaizki– gobernatzen zuen hiriarengan izan zuen eragina. Alabaina, neurri zorrotz haiekin –gogora ditzagun: sei minutu eraso egiteko eta defendatzaileak hiltzeko agindua eman baino lehen– mehatxatzen zituzten frantsesekin borrokatzearen aurka zeuden militar erregularrek amore eman ostean, kapitulatzea beste erremediorik ez zuen izan, eta hiriko ateez gain, gainerako probintziako atea ere irekiko ditu.²⁹

²⁸ HUA A 1 138, orriak: 52 itzulia.

²⁹ HUA E 5 II 8, 1. GUEVARAURQUIOLA, José Ramón: "Hondarribia. La Guerra de la Convención (1793-1794)", 24-26 or. Mendebaldeko gizartea pairatzen ari den aldaketen zantzu bat gehiago da. Meatxu hauek ez zituzten onartuko Argien Mendeko ezein komandante militarrek, ez baitzuten nahi inolaz ere iraultzaren armada-buruak egindako mehatxuaren pareko sarraski odoltsurik –Europako gudu-zelaietan behintzat–. Iraultzaren aurreko eta osteko gerrarako tekniketara dagokienez, ikus DUFFY, Christopher: *The military experience in the age of reason*, 293. or.

Zer gertatuko zen handik aurrera? Eta are garrantzitsuago zena: nola eragingo zion erabateko aldaketa hark Lezori? Hasteko, Hondarribia eta haren menpeko lurraldea konbentzio jakobinoaren kontrolpean zeuden. Teorian bai, behinik behin, inbaditzaileen agintea haien tropak heltzen ziren lekuraino bakarrik ailegatzen baitzen.

Hala ere, handik gutxira okupatu zituzten Lezoren lurraldeak. Dakigun bezala, Hondarribiko gotorlekuak amore ematea beste aukerarik eduki ez zuenean, arrapaladan egin zuten ihes Karlos IV.aren tronua babesten zuten tropak. Horiek horrela, inolako antolaketa gabe saiatu ziren soldadu taldeak Gaztelarantz iristen, bidean aurkitzen zuten guztia suntsituz eta iraultzaileen aurkako borrokan –beren aldekoa hasiera batean– izandako zorigaitz guztien errua gipuzkoarrei botaz. Probintziako batailoioak ere ezin izan zuten Lezoren probintziaren zati bat babestuko zuen defentsarik osatu. Ikusi dugun bezala, hiru gizon eta erdirekin eta 3.000 errealekin lagundu zuen Lezok; aldeko borrokaren eta atzetik zetozen Konbentzioko soldaduen artean harrapatuta zegoen.

Ez da erraza jakiten Konbentzioko lehen soldaduak Lezora noiz iritsi ziren; litekeena da Hondarribiaren setioan lagun izan zituzten sans-culotteekin batera heldu izana. 1794ko abuztuaren 1ean izan zen. Halaxe adierazi zioten Lezo gidatzen zuten agintariek Gipuzkoako Diputazioari, probintzia Frantziako Konbentzioaren eta horren tropen menpe egondako urte hartan gertatutako guztiaren balantzea egiteko ordua heldu zenean.³⁰

Ez dago zalantzarik: egun horretan sartu ziren “etsaiak” –edo “taldea”, garai hartan esaten zen bezala– Lezoko hirigunean.³¹

Mugimendu taktiko hori aldaketa handien atariko al zen? Lehenik eta behin, txostengileek gogoratzen dutenez, lezoarrak izuturik geratu ziren aurrean harrapatzen zuten guztia suntsitzen zuten soldadu haiekin; Monarkiak puztutako ospe txarra zekarten beraiekin. Horiek horrela, lezoar askok ihes egin zuten “bat-bateko eta ezusteko” “berrikuntza” –halaxe deitzen zioten txostengileek– haren aurrean, eta soldadu zabarrak haiek “aspalditik” eragiten zuten “izuak” bultzatuta.³²

Okupazioaren garaian izandako galerak adierazteko ardura zuten lezoarren hitz horiek kenduta, gauza gutxi dakigu hari buruz. Herria hutsik geratu zen eta handik aurrera laster aipatuko dugun zenbaki dantza hasi zen; baita urtebete inguruko aldi iluna ere, itxuraz ankerra den armada baten menpe geratuko baita Lezo, nahiz eta horrek herriei bakea

³⁰ Archivo General de Gipuzkoa-Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (AGG-GAO) JD IM 3 / 4 / 77 (1). Txostena 1797ko apirilaren 1ekoa da. Agiri garrantzitsu honen berri David Zapirain Karrikak eman zidan adeitsuki. Juan Carlos Mora Afanekin batera erabili baitzuen, Zumalakarregi Museoak 1993an emandako bekari esker, Gipuzkoari Basileako Bakearen ondorioz eragindako krisiaren inguruko azterketa egiteko. Aurrerago ere itzuliko gara agiri horretara. Ikus MORAAFAN, Juan Carlos-ZAPIRAIN KARRIKA, David: “Gerra eta krisia: 1795, Gipuzkoa Basileako Bakearen ondoan-Guerra y Crisis: 1795, Gipuzkoa tras la Paz de Basilea”, in ZZEE: *Azterketa historikoak-Estudios históricos* IV, 47-95 or.

³¹ AGG-GAO JD IM 3 / 4 / 77 (1).

³² AGG-GAO JD IM 3 / 4 / 77 (1).

agindu; zapaltzaile ziren errege-erreginentzat eta tiranoentzat bakarrik gordetzen omen zuten gerra, haien hitzetan.

Tropa iraultzaileak atzetik segika zituztela, lezoarren ihesaren ondoren gertatutakoa imajinatu nahi badugu, bigarren mailako iturrietara jo beharko dugu berriz ere; hala ere, gainera bakarrik adierazten dute horiek Lezo Konbentzioko soldauen esku geratu zenean gertatu zena.

Ignacio Vicente Sarastik dio, gerra hari buruz idatzitako eskuizkribu ezagunean –gerra horretan parte hartu baitzuen, Gipuzkoako batailoian–, bere jaioterrian, Oiartzunen –Lezotik hurbil, beraz–, iraultzaile frantsesak ez zirela monarkiak adierazi bezain bihozgabeak izan. Haren hitzak oso argiak dira horri dagokionez. Hala, dioenez, konbentzionalak “jator eta gizatasunez” jokatu zuten oro har. Harrituta geratzen zen, halaber, haiek ezertxo ere egin ez izanaz Frantziako Errepublikaren menpe ere oiartzuarrek katolikotasunarekin jarraituta. Hark ere ikusi omen zituen sinesmen hori zuten Konbentzioko hainbat soldadu, eta hauxe da gehien harritzen duena: Sarastiren ustez, inbaditzaileak ez ziren saiatu herritarrek iraultzara makurrarazten, “heretikoek eta libertinoek bezala itxurakeria, sotiltasun eta sofismak erabiliz”.³³

Oiartzungo emakumeen bertutea mehatxatzen ere ez zituzten ikusi; are gehiago, dena delako arrazoiren batengatik –diziplina, gizalegea...– ez zieten aurpegira begiratu ere egin, Ignacio Vicente Sarastik harrituta gogoratzen duenez.³⁴

Beraz, oso modu baketsuan kokatu ziren Gipuzkoan itxura guztien arabera zikoitzak ziren armada haiek, haien aurka altxatzen ziren guztiak suntsitzen zituztenak; izan ere, haien menpe geratu zen probintzia hori miliziak eta Espainiako armadak Ermua eta Eibar inguruko mugara ihes egin zutenean.

Horrenbestez, Sarastiri sinesten badiogu, lezoarrek ez zituzten pairatu behar izan Parisen iraultza garaian izandako gertakariak; izan ere, han, Frantzian, Asanblada presionatzen zuten muturrekoek –sans-culotteak– iraultzaren etsaien buruak eskatzen zituzten eta ondoren, hiria eta herrialdea erreakzio monarkikotik babesteko erabilitako makila eta

³³ CRUZ MUNDET, Jose Ramon (arg.): *Konbentzioko Gerra Gipuzkoan (1793-1795): I. V. Sarastiren eskuizkribua – La Guerra de la Convención en Gipuzkoa (1793-1795): el manuscrito de I. V. de Sarasti*, 102 or. Hau eta soldadu konbentzionalen beste hainbat jokaera Europako XVIII. mendeko armadenak, iraultzaren garaia deiturikoren aurrekoak, dira gehiago, Hondarribiari emandako ultimatum bezalako beste batzuk edo, ikusiko dugun bezala, lurralde okupatuaren arpillatze sistematikoa ez bezala. Honi buruz, ikus DUFFY: *The military experience in the Age of Reason*, 287-288 or. Erakusten digunez, armarik gabeko zibilen aurkako indarkeria –kasu honetan, bortxatzearekin mehatxatutako emakumeak– Europatik kanpoko gerra kolonialetan, gaur egungo AEBetan, adibidez, diharduten taldeetara mugatzen da. Zehaztu behar da, halere, borroka horietan mobilizatutako nazio indiarrek ez zituztela sekula emakumeak bortxatzen, Hollywooden halako hainbat topiko egon arren; baztertu egiten dute jokaera hori, eta litekeena da haien arrazoi espiritualengatik izatea. Honi buruz, ikus STARKEY, Armstrong: *European and Native American warfare*, 1675-1815, 28-28 eta 81 or.

³⁴ CRUZ MUNDET(arg.): *Konbentzioko Gerra Gipuzkoan (1793-1795)*, 102. or.



Ofizial karlista (1873-1876)

Iturria: Kutxa Fototeka

ezpatetan sartuta ibiltzen zituzten Frantziako hiriburuko kaleetan barrena. Antza denez, lezoarrek ez zuten horrenbeste sufritu Osasun Publikoko Batzordearekin eta misio batean bidalitako iraultzaren zaintzaileekin, Frantziako Iraultzaren aurka egotearen susmagarri ziren oro atxilotu eta epaitu baitzituzten, Inkisiziorik okerre-na balira bezala. Horrenbestez, iraultzaren aldera eraman ez zitza-ten ere lortu zuten; ikusi dugunez, lehen ere, erregea eta haren minis- troak asko arduratu ziren, hasieran, haiek ideia haietatik urruntzeaz.

Beraz, baztertu egin beharko da Lezo eta Gipuzkoako gainerako herri okupatuak mundua aldatuko zuen iraultzaren lekuko izanaren ustea. Hau da, errege-erreginei eta aristokratei burua moztu eta Jules Michelet edo Albert Soboulen historia liburuetan deskribatutako edo Charles Dickensen *Historia de dos ciudades* edo Anatole Franceren *Los dioses tienen sed* lanetan dramatizatutako Askatasuna, Berdintasuna eta Anaitasuna prin- tzipioak oinarri hartuta

Parlamentuak sortzeko prest zeuden herritar asaldatuak eragindakoarena.

Pentsa dezakegun bezala, ideia horiek bultzatu zuten neurri batean herritarren ihesa, 1794ko abuztuaren 1ean, uste baino askoz ere lehenago, Frantziako armadaren bi adar- reko beltzak, luma eta apaingarri zuri, gorri eta urdinekin apaindutakoak agertzen ikusi zituztenean, mundu zabalean egindako iraultza odoltsua iragartzen zutenak.³⁵

Hala ere, hutsegitea litzateke, halaber, Frantziako Iraultzak lezoarren artean arrastorik utzi ez zuela pentsatzea. Ez dago hori egiaztatzen duen iturririk. Ezta Sarastik ere. Nahiz

³⁵ Jules Micheleten *La convención* lanarena salbu, gainerako lan hauen guztien argitalpen berriak daude, lan honen bibliografian adierazten den bezala.

eta hura monarkiaren eta Antzinako Erregimenaren aldeko izan –armak hartuta defendatu zuen hura–, begi onez ikusi zituen, azkenean, inbaditzaile errepublikanoak.

Hasteko, konkistatutako lurraldea balitz bezala sartu ziren tropa konbentzionalak Lezon. Hau da, Gipuzkoan okupatutako gainerako herrietan edo Europan menderatutako gainerako probintzietan bezala; zeinahi baldintza –baita muturrekoa ere– ezar ziezaieketen haien baionetapean geratzeko zorigaitza izan zutenei; ez zeukaten inolako oztoporik. Sarastik berak gogoratzen ditu, meza entzutea galarazi ez zioten Konbentzioko soldadu haiei buruzko laudorioak egin aurretik, bandera errepublikanoan ziharduten batzuek eragindako arazoak.

Horiek horrela, zera esaten digu: Konbentziko soldaduak, herrientzat bakea eta tiranontzat gerra agintzen zutenak, ez ziren halako dotoretasunetan geratu; aurrean harrapatu zituzten Gipuzkoako etxe guztiei eraso zieten. Ez zituzten bete, inondik ere, errenditzearen ondoren egindako kontzesioei. Sarastik berak ikusi zuen etxe gehienetan egindako kalte “handia”. Horietako asko porrot eginda geratu ziren edota ezin izan zituzten Konbentzioko soldaduek egindako hondaketetatik salbatu. Izan ere, “armairuak, mahaiak, ateak, leihoak, gelak eta erregai gisa erabil zitekeen guztia desegiten zuten”. Oartzunen 22 etxe hondatu zituzten Frantziako Errepublikako soldaduek, haien politika suntsitzaileen ondorioz.³⁶

Lezon ere antzekoa gertatu zen. Hondarribiak ere horren antzeko gertakariak adierazten ditu bere lurraldea okupatu zutenean –urtebete eskaseko kontua izan zen– izandako ondorioak idazteko erabilitako agiri liburuan; Ignacio Vicente Sarastik Oartzun inguruan ikusitakoa baino zertxobait okerragoa ere izan zen. Ez dago 1794ko berririk; hala ere, lehen oharrak dio, 1795eko ekainekoak, Frantziako okupazio tropek “desegin” egin zutela herriak Bidasoa ibaian zuen izokinak harrapatzeko sarea.³⁷

Laster agertu ziren Lezok izandako kalteak. Lehen ohar horren ondoren, hamar folio aurrerago, gutxi gorabehera, hauxe adierazi zuten Hondarribiko agintariek: itxura zenez, “Frantziako Errepublikako soldaduak” ez ziren asebate udalarentzat diru iturri ederra zen izokinak harrapatzeko sarea suntsituta, eta Aldarrakontai basoko zuhaitzak moztea agindu zuten. Kalte-ordainak eskatzen zituzten herriari egindako kalte horrenatik. Lezok uste zuen, halere, kaltea bere lurraldean izan zela, eta, beraz, hari eman behar ziotela kalte-ordaina, galerak haren ondasunek izan baitzituzten, eta ez hiriak.³⁸

³⁶ CRUZ MUNDET (arg.): *Konbentzioko Gerra Gipuzkoan (1793-1795)*, 98. or.

³⁷ HUA A 1 139, orriak: 8, itzulia.

³⁸ HUA A 1 139, orriak: 14 itzulia -15 zuzena. Mendi eta baso komunalek Gipuzkoan garai hartan zuten garrantziari dagokionez, ikus URZAINQUI MIQUELEIZ, Asuncion: *Comunidades de montes en Guipúzcoa: las parzo -nerias*. Orainsuago, Alvaro Aragon Ruanoren tesiak zehatz-mehatz aztertzen du arazo hori eta horren inguruko guztia. ARAGON RUANO, Alvaro: *El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad*. Bidasoako izokinen balioari dagokionez, Euskal Herriko Aro Modernoko arrantzarekin zerikusia duen guztian espezialista den Xavier Alberdi Lonbidek adierazi zidanez, izokin bat milaka erreal ordain zezaketen Madrilan, eta eroskeria gisa erabiltzen zuten tokiko eta monarkiaren hiriburuko agintarien arteko negoziatioetan.

Arazo horrek ere bereak eta ondorioak ekarri zituen Lezoren eta Hondarribiaren artean hainbat mendetan, lehenak bigarrenarekiko erabateko independentzia lortu zuen arte izandako liskarretan.

Konbentzioko tropek eragindako kalteen ordainak lortzeko izandako tirabiretan islatzen da, halaber, Iraultzak Gipuzkoako alde horretan izandako eragina. Izan ere, gobernu iraultzaileak diru-paper bidez bakarrik ordaindu nahi zituen kalteak. Konbentzioa finantzatzeko erabilitako “*assignats*” ezagun sorta batekin. Diru hark ez zuen gehiegi balio, Ignacio Arburu Pasaiaiko merkataritza trebeak gogoratzen duen bezala. Hura izan zen iraultzaileek udal basoetan egindako kalteak ordaintzeko hitzartutako 40.178 liberen eta 15 sous-en zaintzailea.³⁹

Lezoarrek eta hondarribiarrek 1795eko frantses gehienekin zituzten arazoak Arbururen merkataritza senari esker konpondu zituzten, gutxi gorabehera. Izan ere, Irlandako ehuneko 15 biribilki –27 kana eta erdikoa bakoitza– bihurtu zituen hark hain balio eskaseko paper haiek; Frantzia erosi zituen, *assignat*-a indarrean baitzegoen han. Gainerako kalte-ordainak zeta bikoitzeko lau pare galtzerdi –16 pezetatan pare bakoitza– izan ziren. Arburuk modu onean saldu nahi zituen Donostian, baina hark uste baino lan handiagoa eman zioten.⁴⁰

Ez zen hori Lezoko barrutian zeuden iraultzaileek eragin zuten arazo ekonomiko bakarra. Unibertsitateak ez zuen aukera galdu konbentzionalek nolako tratu txarra eman zieten gogoratzeko. Hala, 1796. urtearen hasieran Hondarribiak iraultzaileen aurkako gerra laguntzeko herrialdeari ordaindu beharreko dirua eskatu zionean Lezori, unibertsitateak erantzun zuen ezin zuela ezer ordaindu. Hasteko bakarrik, “biztanle gutxiko” herria zela eta errenta propiorik ez zeukala argudiatu zuen, eta horrenbestez, ezin zuela Hondarribia bezalako hiri batek adina diru jarri, hark diru-sarrera asko zituelako. Era berean, eduki zezakeen apurra “Frantsesa nagusi izan zen urtean” suntsituta geratu zela gaineratu zuen. “Tropa etsaiaren” ondorioz, “kalte handiak” jasan zituztela agertu zuten, eta beren soberakina 40 pesokoa baino ez zela. Hori bakarrik geratu zen “menderatze eta harrapaketa urtearen” ondoren.⁴¹

Lezoko errejidoreek –Felix Martiarena, Ascensio Agirre eta Jose Ignacio Gamon– Diputazioa bidalitako alegatuari erantzun zion Hondarribiak. 1794. urtean egindako eskeran bezala, diru kopuru hori ez ordaintzea eskatu zuten Lezoko errejidoreek. Hondarribiak erantzun zuen horiek ez zirela ordaindu gabe geratzeko arrazoiak, okupatu-

³⁹ HUA A 1 139, orriak:14 itzulia-15 zuzena.

⁴⁰ HUA A 1 139, orriak: 34 itzulia eta 79 zuzena-79 itzulia. Arburuk 1796. urtearen hasieran adierazi zuenez, ez zuen lortu salgai haiek dendetan edo portuko gerra ontzietako buruen artean saltzea. Cadizera eta handik Veracruzera irteteko prest zegoen Parraga eta Barandiaranen fragatan uzteko baimena eskatzen zuen. Fragatako kontramaisuarekin hitz egin zuen, Pasaiakoa hura ere, eta hark esan zion negozioa egin zezaketela salgaiak portu horietara eramanda.

⁴¹ HUA A 1 139, orriak: 107 itzulia.

ta zeuden herri guztiek, eta ez Lezok bakarrik, diru-sarrera gutxiago zituztelako frantsesek eragindako suntsipenen ondoren, eta, beraz, hori eginez gero, guztiak geratu beharko lirakeelako ordaindu gabe.⁴²

Baina alderdiko buruaren eta beren Lezoko menpekoen artean izan zen liskarra kontuan izan gabe, Hondarribiak oso ondo zehaztuta zekien zenbaterainoko galerak izan zituzten lezoarrek. Banan-banan eta izen guztiekin. Frantziako errepublika zaleek “irentsi-tako” 2.438 errealetara iritsi arte. Hala, kasu batzuk bakarrik aipatzearren, Francisco Aginagak 81 erreale galdu zituen. Beste bizilagun batzuek, Josefa Antonia Adurizek –Jose Ignacio Lasaren alarguna– esaterako, askoz gehiago galdu zuten ustez Karlos IV.aren tiraniatik askatuko zituzten tropak izan ziren urtebetean; denbora horretan 509 erreale kendu zizkieten bere patrikatik. Bataren eta bestearen artean Fermin Sistiagaren kasua dago; 245 erreale galdu zituzten arrazoi berarengatik.⁴³

Badirudi lezoarrek ez zituztela handitu Frantziako errepublika zaleen menpean bizi izan ziren garaian izandako kalteak. Beste dokumentu batzuetan agertzen denez, Gipuzkoako Artxibategi Nagusiak daukan 1797. urteko zerrenda, esaterako –inbasioaren garaian herri eta herritar guztiei kendu zizkien kopuruak zehazten dira–, Lezoko herritarrek esandakoak baino galera handiagoak izan ziren.

Hala, 1797ko apirilaren 7an datatutako dokumentuan, zera esaten zieten Lezoko agintariek Diputazioari: Konbentzioko soldadu beldurgarrien ikaraz beren etxeak utzi zituztela herritar askok 1794. urteko abuztuaren 1ean, batez ere soldaduak ez zirenak, eta horren ondorioz, “kalte eta galera handiak” jasan zituztela. “Etxeko ondasunetan, altzarietan eta beste gai batzuetan” bakarrik Lezoko herritar guztien artean 65.588 erreale eta erdiko kalteak izan zituzten.⁴⁴

Lezoko agintariek Diputazioari aurkeztu zioten galera osoaren zati txiki bat baino ez zen izan hori. Partida hauetan bereizten ziren galerak: 24.508 erreale, ganaduari zegozkionak; eta 28.750 erreale, konbentzionalek lapurtutako ale kopuruari zegozkionak. Alkandora urdineko zarpail haiek eraman zutenaren arteko kopuru txikiena egurrarena zen: 720 erreale. Ardoari zegoen gastua ere ez zen handiegia izan, batez ere kontuan hartzen bada soldadu konbentzionalek tropa eragabe gisa jarduteko zuten ohitura. Atal horretan Lezoko agintariek 9.735 errealeko galerak zenbatu zituzten.⁴⁵

Herriko eraikinek izan zituzten kalteak ere gaineratu zizkieten. Zubitxo baserria, udal-etxea eta bikarioaren etxea sartu zituzten kaltetuen artean. Alkandora urdineko soldaduek kuartel gisa erabili zituzten, eta erabileraren ondorioz kalteak izan ziren. Lezoko agintariek esan zuten, 3.974 errealeko kalteak izan ziren.

⁴² HUA A 1 139, orriak: 107 zuzena-109 itzulia.

⁴³ HUA E 5 II 8, 1.

⁴⁴ AGG-GAO JD IM 3 / 4 / 77 (1)

⁴⁵ AGG-GAO JD IM 3 / 4 / 77 (1).

Horren guztiaren batuketak 133.362 errealeko galera ematen zuen, baina galera osoen kopurua 22.800 errealekoa izan zen, agintariek faltan botatzen zutelako Gurutze Santuaren basilikako zilarra. Zilar hori Donostiara eraman zuten, Juan Francisco Kardaverazen etxera, horrela salbatuko zutela pentsatzen zutelako, eta hiria erorita ere, inbaditzaileekin baldintzak negoziatu eta gero bakarrik eroriko baitzen. Gauzak aurreikusita zeuden bezala irten ziren, xehetasun txiki bat izan ezik: 1776. urtetik aurrera, Britainia Handiko erregearen eta Ipar Amerikako bere hiru kolonien arteko guda hasi zenean, ohikoa bihurtu zen gerrako arauak ez betetzea, eta, horren ondorioz, tropa konbentzionalek ez zuten ezer eskaintzen; defendatzaileak azkar erretiratzeko baziren beren burua salbatu ahal zuten, asko jota. Kasu batzuetan, minutu gutxi batzuetako epea ematen zuten, Hondarribiako kasuan ikusi dugun bezala. Hala, Gurutze Santuaren zilarra lapurtua izan zen ofizialki, horrela Lezoren eta bere bizilagunen galarak 200.000 errealetik gorako bihurtuz.⁴⁶

Baina kalte horiez gainera, gure buruari galdetu behar ote genioke ea Lezoko herritarrek zerbait ikasi zuten errepublika-zale frantsesen beste aurpegi horretatik, Frantzia mugiarazi zuten eta 1793ko udaberrian Karlos IV.a erregeak Frantziako Konbentzioari gerra deklaratzeko erabili zuen "gatazken iturburu" izan ziren "desordena, fedegabetasun eta anarkia" irizpidetik?.⁴⁷

Zalantza gabe, oso galdera egokia da. Lezoko herritarrak Antzinako Erregimenean kateatuta zeudela sinetsi genezake, frantziar asko kenduta, Europako beste edozein herritar bezala izan zitekeen bezala. Are eta gehiago bakea agindu arren lapurretak bakarrik ekarri zizkien soldadu haiekin irabazteko ezer gutxi zeukatela ikusita. Gipuzkoako Artxibategi Nagusiko beste dokumentu batek erakusten du Lezoko herritarrak amets goxo batean zeudela, legoa gutxi iparraldera iraultza gori-gori izan arren.

1793ko udaberrian datatuta zegoen, beraz, gerrako itsasgora Ventura Caro jeneralaren aurkakoa bihurtu baino urte bat lehenago. Ordura arte, Frantziako lurraldearen inbaditzaile arrakastatsua zen. Jose Ignacio Lasa, Lezoko herritar zinegotzietako bat –beraz, unibertsitateko karguetarako hautatzaile eta hautagarria–, kexati agertzen zen Gipuzkoako herrialdeko gobernuaren aurrean. Esan zuenez, garai hartako Lezoko bi agintarik sagardo kupel bat saltzea galarazi zioten, eta kobrezko hamar dukateko isuna ezarri zioten.⁴⁸

Horretan guztian gehiegikeriarik ez zela egon argudiatu zioten erregidoreek Diputazioari. Isasak sagardo pitxerra 12 koartotan ez saltzeko egin zuten. Haien ustean, salneurria "garestiegia" zen. Baimendu izan balute, %110eko irabaziaz izateko aukera

⁴⁶ AGG-GAO JD IM 3 / 4 / 77 (1).

⁴⁷ Hondarribiko artxibategiak adierazpen horren kopia bat dauka. Jakina, Lezora ere bidailiko zuten. Begiratu HUA E 5 II 8, 1, 1793ko martxoaren 23a da data.

⁴⁸ AGG-GAO JD IM 2 / 23 / 65, 1793ko martxoaren 23ko postatrukea.

izango zuen; beraz, Lezon saldu nahi bazuen, sagardo pitxerra 10 koartotan saldu beharko zuen. Berak nahi zuen salneurrian saltzea, erregidoreen hitzetan, “tirania eskandalagarria” onartzea zatekeen.⁴⁹

Baieztapen horren atzean dagoen doktrina, edo kasua eraman zuen Diputazioko abokatuarena, sans-culotteek buru gabe utzi berri zuten munduan ainguratua zegoela ematen zuen. Edozein gauza egiteko Eliza Katolikoaren moral paternalistaren galbahea gainditu beharrekoa zen munduan, zeina %110eko irabaziak lortu nahi zituzten Isasa jauna bezalakoak bedeinkatu gabe utzi ez arren, gutxien zeukatenei babesten ahalegintzen zena. 1766. urtean garia eta beste elikagai batzuk –sagardoa, esaterako– alde aurretik zehaztutako salneurri gabe saltzea baimentzen zuen legearen aurka altxatutako herri xehea babesten zuen eta Konbentzioaren legea ezartzen zuten eta Gipuzkoara armada bidali zuten sans-culotteak ere bai. Parrokiak itxi edo prozesio iraingarriak antolatuz Frantzia osoa kristautasunetik aldendu nahi izan zuten arte bai, behintzat. Lege hori bi aldeek jartzten zuten mahai gainean gai hori jorratzean.⁵⁰



Zuabo soldaduen buru karlista (1873-1876)

Iturria: Kutxa Fototeka

Hala ere... Lezoko errejidoreek “escandalosa tirania” esaten zioten horren atzean ez ote zen ezkutuko beste zerbait egongo?

Europako kultura politikoan 1789ko iraultzak eztanda egin baino lehenagotik erabiltzen ari ziren “tirania” terminoa. Hitzak, berez, antzinako Grezian zeukan jatorria. XV. Mendeko

⁴⁹ AGG-GAO JD IM 2 / 23 / 65, 1793ko maiatzaren 31ko postatrukea.

⁵⁰ 1766ko matxinadari buruz, testu honen 8. oharrean esandakora mugatzen naiz.

Gipuzkoan, Euskal Herriko beste lurralde batzuetan bezala, askotan erabilia izan zen jaun feudalen eta Oñatz eta Ganboa bezalako bando buruen aurka, Lezo edo Hondarribia bezalako herrietan beren legea su eta gar ezarri nahi zutelako.⁵¹

Baina gaiari sagardoa saldu beharreko "bidezko" salneurria ezartzea berritasuna da, ongizatea zaintzeko ardura zeukaten agintarien ahotan jarria bada –eta hala ziren Lezoko errejidoreak– eta 1793. urtean esandakoa bada. Garai hartako Frantzia iraultzailean esku artean erabiltzen zituzten ideien oso antzekoa da. Frantzian espetxera bidaltzen zituzten gehiegizko irabaziak –%110ekoak edo gehiagokoak– lortu nahi zituztenak, eta gero, gillotinarra, Errepublikaren mesederako.⁵²

Beste kasu batzuetan ere ikusten den kointzidentzia bitxia da. Esaterako, Gipuzkoako agintariak askatasun handiz administratzen hasi ziren bikoteen arteko banaketak. Frantziako iraultzak aurrera egin ahala, Luis XVI.aren –Hondarribian hainbeste ospatu zen Karlos IV.aren lehengusua (Lezok ez zuen onartu)– Frantzia bezalako tradizio monarkikodun eta katolikodun herri batean ordura arte ezezaguna eta oso oparoa zen Dibortzio Legea ezarri zuten 1789. urtean.⁵³

Beraz, kontuan har behar genituzke J. I. Isasaren aurkako keaxak edo errepublikazaleen Dibortzio Legea imitatzeko joera. Lezo bezalako herri okupatu baten konbentzional frantsesek utzitako ideia iraultzaileen arrastoa neurtzeko orduan ez, behintzat. Nahiz eta kontu handiarekin egin beharko dugun.

⁵¹ Erdi Aroko Euskal Herrian "tirano" hitzak zeukan erabilerari buruz jakiteko, begiratu ACHÓN, José Ángel: "República sin tiranos. Provincia libre. Sobre cómo llegó a concebirse al pariente mayor banderizo como enemigo de las libertades de las repúblicas guipuzcoanas", DÍAZ DE DURANAORTÍZ DE URBINA, José Ramón (arg.): *La lucha de bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Guipúzcoa de los Bandos a la Provincia (XIV.etik XVI.era)*, 341-364 or. Lezon gertatzen ari zen moduko beste aldaketa batzuei buruz, ikus HOBBSAWM: *Las revoluciones burguesas*, 106-107 or. Iraultzatik aurrera "aberria" eta "askatasuna" hitzek beste esangura bat zeukatela dio autoreak. Bereziki Turkiako kasuan. Zalantzarik gabe, eragina oraindik eta handiagoa izan behar zen frantsesen antzeko ohiturak eta hizkuntza zituzten lurraldeetan, Lezoko kasuan gertatzen den bezala.

⁵² Gai honetarako, Jules Micheleten lanera jo behar dugu berriro, eta, batez ere, Albert Souboulet sans-culottei buruz egindako askoz lan zehaztuagora. Begiratu MICHELET: *La Convención*, 263. or. SOBOUL: *Los sans-culottes*, 77-83 or.

⁵³ Mugan dauden agintariak dibortzioaren moduko kasuen imitazioari buruz jakiteko, ikus RILOVA JERICÓ, Carlos: "De mujeres que trotan a ídolos de perversidad. La evolución de la condición femenina en el transito de la Edad Moderna a la Contemporánea (1740-1853). El caso de la ciudad de Hondarribia", 157-163 or. 1796. urtean, konbentzionalen tropek Gipuzkoa utzi eta bi urtera, alkateak Josefa Ramona de Suarezren alde egingo du, bere senarrak tratu txarrak eragiten zizkion emakumearen alde. Bere senarrak itxialdi etxe batera bidaltzeko zigorría izan daiteke Alvarez Aragon irakaslearen lana. Lan horrek Josefa Ramona Suarezren kasuari ere egiten dio erreferentzia. Ikus ARAGÓN RUANO, Alvaro: "El patrimonio humano civil de Hondarribia en el Antiguo Régimen: una sociedad piadosamente violenta", in ZZEE.: *Historia de Hondarribia*, 355-402 or.

Joseba Goñik lehenengo eta bere bideari jarraituz Paloma Miranda Lagek gogoratu bezala, gai hori gutxiegi aztertu da, 1794. urtetik aurrera guztia zergatik aldatu zen uler-
tzeko oso garrantzitsua den arren. Frantziako soldaduen gehiegikeriek gipuzkoar askoren
bihotzetan ideia atzerakoioak –ultramonarkikoak eta ultrakatolikoak– elikatu zituztela uste
dute bi historialariek. Izan ere, Lezoko kasuan bezala, herritar horiek iseka eta lapurreta
jasan behar izan zuten beren agirietan Askatasuna eta Bakea ekartzera zetozela esaten
zuten haien eskutik.⁵⁴

Napoleonen kontrako gerrilla edo, are gehiago, lan honetan ere aztertuko dugun gipuz-
koar askok lehen guda karlistan izan zuten jarrera, ezin da ulertu 1794. urtean herria sun-
tsitu zuten iraultzaile haiekiko mendeku bezala ulertzen ez badugu.

Egia da Gipuzkoako elitearen zati txiki bat baino ez zegoela prest ideia iraultzaileekin
bat egiteko. Romero diputatuaren kasua ezaguna da: berak eta beste batzuek
Gipuzkoako herrialdea Espainiako Erresumatik banatzea eskatu zioten Konbentzioaren
gobernari, errepublika independente bat sortzeko. Errepublika hori baionetekin babestua
egongo litzateke, eta Holandan sortutako Batavaren edo gaur egungo Italian sortutako
Cisalpinaren antzekoa izango litzateke.⁵⁵

Hala ere, gai horren inguruan oraindik ere gauza asko ezagutzeke dagoen arren, 1789.
urteko iraultzak urte batez okupatuta izan zuen Gipuzkoako herrialdean itzal bat baino zer-
bait gehiago utzi zuela esan genezake.

Inbasioarekin kaltetuenak izan zirenek ere bazekiten ez zirela gauza bera ideia iraul-
tzaileak eta iraultzak bidali zituen enbaxadore baldarrak. Armada konbentzionala beneta-

⁵⁴ Ikus GOÑI GALARRAGA: "La Revolución francesa en el País Vasco", in ZZEE: *Historia del Pueblo Vasco*, 3. liburukia, 45. or. Autore honen lanetik interesgarria izan daiteke ikustea nolako irudia zuten konbentzionalak okupatu berri zuten lurraldearen gainean, eta nola horietako batzuk kexu agertzen ziren bakea eta tiraniaren amaiera ekarriko zietela agindu zioten herriari tropek kaltea eragin ziotelako. GOÑI GALARRAGA, Joseba: "Imagen política del País Vasco en algunos documentos de la Guerra de la Convención", in ZZEE: *Historia del País Vasco. Siglo XVIII*, 247-294 or. MIRANDADE LAGE: "Frantseseko argitalpenak Gipuzkoan Iraultzauren garaian-Las publicaciones francesas en Gipuzkoa en tiempo de la revolución", in ZZEE: *Gipuzkoa duela 200 urte-Hace 200 años en Gipuzkoa*, 45-46 or.

⁵⁵ José Fernando Echave Asu eta Romero izan zen prozesu honetako pertsonai garrantzitsuenetako bat. Frantziako armadak babestuko zuen Gipuzkoako errepublika independente baten defendatzaile eta iraultzaile sutsua izan zen. Jakina, Gipuzkoako alderi iraultzaile autonomoko kidea izan zen beti. 1820. urtetik aurrera, alderdi hori errotzen hasi zen Gipuzkoan eta Lezon, orain arte egin den, eta beharbada osatuena den berriki egin den bere biografian azaltzen den bezala. Ikus SERRANO ABAD, Susana: "ECHAVE ASU Y ROMERO, José Fernando", AGIRREZKUENAGAZIGORRAGA, Joseba-SERRANO ABAD, Susana-URQUIJO GOITIA, José Ramón-URQUIJO GOITIA, Mikel: *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*, 305-308 or. Kolaborazionista ugariei buruz, ikus GOÑI GALARRAGA: "Imagen política del País Vasco en algunos documentos de la Guerra de la Convención", in ZZEE: *Historia del País Vasco. Siglo XVIII*, 283-286 or. Baita DOMERGUE: "Propaganda y contrapropaganda en España durante la revolución francesa (1789-1795)", AYMES (arg.): *España y la revolución francesa*, 132-142 or. Kolaborazionista batek garai hartan okupatuta zegoen Tolosatik bidalitako testigantza gutun itxuran jasotzen du azken lan horrek. Andiazabal kolaborazionistak ihes egindako Francisco Lalama lehialari igorritako gutuna da. "Hiritar" termino iraultzailea erabiltzen du Lalamari zuzentzeko, eta hasiera subertsibo horren ostean, okupatzaileek intentzio txarrik ez daukatela konben-
titzeko ahalegina egiten du. Hori eztabaidagarria irudituko zitzaion Lalama "hiritarrari", inondik ere.

ko izurritea zen, baina gauza bera ote zen “Askatasuna, Berdintasuna eta Senidetasuna” ideia?

1797. urtean beren bizilagunek jasan zituzten kalteez kexu agertzen ziren Lezoko errejidoreei beraiei ere teoria iraultzaileek erakargarriak iruditzen zaizkiela ematen du. Izandako galerak erreal guztiak zenbatuta zehazten dituzten dokumentua Gipuzkoako Diputazioari aspaldian ahaztuta zegoen bidezko eskaera bat gogoratzeko baliatzen dute: Hondarribiko hiriak beraien gain ezartzen zuen, edo ezarri nahi zuen, menderatze feudaletik banatzea eta askatzea. 1789ko abuztuaren 4ko gauean egindako Pariseko Asanblada iraultzailean tankera horretako gehiegikeriak bertan behera utzi zituen Frantziako erresuma osoan. Begi-bistakoa da Lezoko errejidoreek “Askatasunaren alderdia” edo “Independentziaren alderdia” dei genezakeenetik hartu zutela ideia. Zehatzago esateko, beren unibertsitatearen independentziatik. 1789ko iraultzatik sortu zen Frantziako nazioaren balioaren parekoa zuen unibertsitateak beraientzat. Antzinako Erregimenetik zetorren eskaera zahar horrek iraultzaren adibideari esker bizia berriro hartzeak zenbaterainoko eragina izan zuen neurtzea oso zaila da. Jose Ignacio Isasa bezalako “agiotisten” aurkako liskarretan ere antzeko zerbait gertatzen zen. Iraultzaren sukarrari esker, bizi berria hartu zuten salneurri zuzena bezalako ideia zaharrek, eta Isasa horren biktima izan zitekeen. Hala ere, kasu horretan eta “de facto” ezarritako dibortzioen kasuetan, Antzinako Erregimenaren arropekin jantzita zetozen horietan guztia aldatuko duten ideia berriak sartzen eta errotzen hasten direla kontuan izan behar dugula deritzot.⁵⁶

Era berean, eta puntu honetara helduta, ezin dugu ahaztu Lezoko agintari horiek ez zutela ezkutatu Frantziako Direktorioarekiko nolabaiteko begikotasun bat. Izan ere, izandako galerak eta bere tropak Gipuzkoan egindako gehiegikeriak onartzeko adeitasuna izan zuen. Horrela bada, eta hartu beharreko neurri guztiak hartuta, badirudi Lezoko bizilagun garrantzitsu batzuek, Sarastik bezala, desabantailak baino gehiago abantailak ikusten zizkiotela Parisetik zetorren haize berriari.

Hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, 1789ko iraultzako ideia iraultzaileen galbahetik igarotako gizarte berri baten alde borrokatuko zuten –Frantziako banderaren aurka edo alde– elementuak izan ziren Lezon edo handik hurbil.

Hala, 1808. urtetik aurrera, Antzinako Erregimenaren aldekoen doktrina jaso zuten gerrillari atzerakoiak ibili ziren Lezo inguruetan liberalismoarekin zerikusia zeukan edozein gauzaren aurka borrokan. Frantsesa zein bertakoa. Baina beren iraultza liberala egin nahi zutenak ere izan ziren. Frantsesen laguntzarekin edo haien aurka.

1794. urtean Iraultzaren askatasunaren arbola Gipuzkoan errotuta zegoela esatea gehiegikeria izan daiteke, 1799. urtean beren udaletxearen aurrean zuhaitz bat jarri zuten

⁵⁶ AGG-GAO JD IM 3 / 4 / 77 (1).

Hondarribiko arrantzaleek ondo zekiten bezala. Hala ere, zantzu horiek eta hurrengo orrialdeetan azalduko diren jazoerak kontuan izanda, konbentzionalen inbasioaren ostean zeuden kontzientziak eta 1789. urtean zeudenak berberak zirela esatea ezinezkoa da. Beraz, konbentzionalak ekarritako iraultzak Gipuzkoan, eta beraz, Lezon, ondo errotu ziren haziak utzi zituztela esan dezakegu –edo esan behar dugu–. Hau da, ez zela itzal hutsa izan, batzuetan oso beltza izan arren. Baina horretaz guztiaz lan honetako hurrengo ataletan hitz egingo da. Hurrengo orrialdean, bereziki.

FRANTSESAREN ITZULERA. NAPOLEON BONAPARTEREN AURKAKO GERRA ETA LEHEN IRAULTZALIBERALAREN ERAGINA (1808-1814).

1795. eta 1808. urteen arteko garaia, Madrilgo maiatzaren 2 ezagunaren ondoren Espainiako lehen iraultza liberala hasi zenean, –Euskal Herri osoan eragin sakonak utzi zituen, eta, jakina, Lezon ere bai– aldaketa handiko sasoa izan zen, inondik ere. Tradizioaren barruan erreakzioak izan ziren, eta, hala ere, ezer ez zela berdina izango erakusten zuten zantzu argiak ageri ziren, guztia nahaspilatzen ari zen seinaleak zeuden. 1799. urtean, Frantziako iraultzaren hamargarren urteurrena betetzen zen unean, nahiko garrantzitsua izan bide zen zentzu horretan.

Urte horretako ekainaren 30ean Hondarribia hiriko San Pedroko Marinelen Kofradiak egindako batzarra gizarte-errebolta ahalegin nahasi batekin amaitu zen. Printzipioz, beste matxinada bat izan zitekeen. Tradizioaren eta ekonomia moralaren izenean, “langile-klase” izenda genezakeenarentzat justizia exijitzen zuen mugimendua izan zen. Zehatzago esateko, ez zuten Errege Armadarako deituak izan nahi, baina Kofradiaren Akta Liburuan esaten zenaren ondorioz, Kofradiako kide guztiak gudako ontzietan soldaduska egiteko izena emanda zeuden, erakundeko zuzendaritzako kideak eta txalupetako maisuak izan ezik. Alabaina, hiriko alkateek, batzarrak zuzentzeko kofradiako kideekin bilduta, ez zuten puntu hori kontuan hartu nahi izan ere. Baina liskar horiek bestelako itxura hartu zuten. Aurka zeudenak ez ziren mugatu erdi aro ilunean ezkatututako Foruak edo zaharkitutako pribilegioak erakustera; Askatasunaren Arbola iraingarria ezarri zuten hiriko udaletxearen aurrean, kale nagusian, baionetadun fusilen argudio bakarrarekin, agintari izutuek kofradiako kideak arrastoan sartzeko bidalitako soldaduei aurre egin zieten leku berean. 1789ko iraultzak proposatutakoa beraientzat onargarria eta desiragarria zela erakusten zuen horrek. Aldaketak nahi zituzten eta, agi denez, tankera horretakoak.⁵⁷

⁵⁷ Errebolta hori zehatz deskribatu eta aztertzen da Jose Manuel Emparanen lan batean. Begiratu EMPARAN, José Manuel: *El arrabal de la Magdalena*, 6-17 or. Interesgarria izan daiteke alderatzea marinelen kultura herrikoian askatasunaren arbola protesta sozialerako erabilpena eta maiatzeko zuhaitz eta makilen tradizioa. Bigarren horiek, hasiera batean behintzat, maila sozial edo politikoa izatera errebeindikatzailek ez zuten arren, baliteke bidea egin izana arbola berria esangura horretarekin hartzeko. Gai horren inguruan hausnartzeko aukera eskaintzen duen Ingalaterrako XVIII. mendeko kasu bat jasotzen du Thomposek. Ikus THOMPSON, Edward Palmer: *Costumbres en común*, 93. or.

Erlitio ikurrak iraultza ikurrekin ordezkatzeari buruzko gaietarako, begiratu VAN KLEY, Dale: *Los orígenes reli-*

Hain urruti ez dagoen Lezon ez zen hainbesterainokoa izan. Hala ere, urte batzuk beranduago, 1805ean, Madrilgo gobernuko erabaki batek unibertsitatea, Irunekin eta Hondarribiarekin batera –morroia jaun feudalari bezain lotuta zegoen azken honi Lezo–, Gipuzkoa probintziatik banatzea erabaki zuenean, errejidoreek, ziurrenik gehiengoaren iritziarekin bat eginez, ez zuten aukera galdu eta Askatasunaren eta, batez ere, Independentziaren alderdiaren alde agertuz, Hondarribiarekiko independentzia eskatu zuten. Haien ustez, hura Nafarroakoa izatera pasatzen bazen, Lezo harengandik banatuta geratuko zen automatikoki.⁵⁸

Ez zen horrenbesterako, momentuz. 1799. urtean Hondarribiako arrantzaleek Askatasunaren arbola subertsiboarekin egin zutena baino askoz gutxiago. Azken batean, Lezoko errejidoreak Antzinako Erregimenari zegozkion pribilejio zaharretan oinarritzen ziren, hainbat urte iraun zituen gatazkak eragindako dokumentuetan ikus daitekeenez. Hala ere, hitz horiek 1789ko uztailaren 14ko iraultzarekin lotu beharrekoak dira. Ez da ahaztu behar 1789ko iraultza bera ohitura zaharretan oinarritu zela –Luis XVI.ak batutako Estatu Nagusiak, esaterako– erregea gillotinarekin hilko zuen eta iraultza antolatuko zuen Asanblada Nazionalaren zutabeak ezartzeko. Dena dela, XVIII. mendearen amaierako eta XIX.aren hasierako Europako gizartea goitik behera aldatzen ari zen iraultza eta, jakina, Lezo eta bere biztanle guztiak horren barruan zeuden.

Ez ziren urte asko igaro beharko, 1805. eta 1808. urte artekoak bakarrik, lezoarren bizitza behin betiko aldatzeko. 1808ko maiatzaren 2tik aurrera, Espainia osoan Napoleon Bonaparteren –ia Europa guztia bere menpean daukan jenerala– aurkako gerra hasi zenetik, bertakoentzako alderdi iraultzaile bat sortu zen. Madril, Cadizen, Asturias osoan... iraultzaren hotsa gero eta ozenago entzuten da, eta ez Frantziatik etorritako armadak bere baionetetan ekarri duelako. Ahotsa argia da: inbaditzailea bota behar da, bere iraultza bera traizionatu duen Napoleon enperadoreak bahitutako erregea berreskuratu. Iraultza monarkikoengandik babestea nahi zuen Napoleonek, baina —“baina” horrek garrantzia handia dauka— bere burua errege bihurtzeko, nahiz eta ordura arte ezagututa-

gjosos de la revolución francesa. De Calvino a la Constitución Civil (1560-1791).

Herri kultura eta Frantziako iraultzara arte izan zuen eboluzioaz jakiteko, ikus jada klasikoa bihurtu den Peter Burkeren azterketa, BURKE, Peter: *La cultura popular en la Europa moderna.*

Askatasunaren arbolari buruz eta Karlos IV.aren monarkiako beste lurralde batzuetan egiten zuten beste erabilera beldurgarri buruz jakiteko, ikus ELORZA: “El temido árbol de la Libertad”, AYMES (arg.): *España y la revolución francesa*, 99-100 or. Sediziozko hainbat paskinetako irudietan agertzen zela dio katedradunak.

⁵⁸ Zentzu horretan, lehenengo banaketan agertzen da jarrerarik garratzena. Bertan agintzen denez, Lezo Hondarribiarena izanda, hiriri eta Iruni lagundu behar dio Nafarroak gobernatzeko bidean, 1805eko urrian. Ikus AGG-GAO JD IM 1 / 11 / 79, bereziki 1805eko urriaren 27ko datarekin Lezoko agintariekin probintziari bidalitako gutuna. Bertan esaten denez, Hondarribiko alkatearen aurrean protesta egin zuten, hura Lezora etorri zenean Nafarroako lurraldearen zati gisa markatzera.

Gai horren inguruan Lezoko Udala Artxibategian dagoen dokumentazioa ere begiratu. Lezoko Udala Artxibategia (LUA) E 2 III 1, 3 (64. karpeta).

Hiria Nafarroaren menpe izateko bideari buruz jakiteko, ikus GARMENDIAESTOMBA, Rosa Mari: “Apuntes históricos sobre la incorporación de Fuenterrabía a Navarra (1805)”, 109-138 or., eta OLAIZOLAIGUIÑIZ, Juan María: “Hondarribia y Navarra”, 95-102 or.

koen modukoa ez izan. Laster “liberal” izenarekin ezagutzen hasiko zen taldeak ezin zuen onartu hura monarka bakarra izatea. Despota ilustratua izanda ere ez. Garai hori, 1789ko uztailaren 14an gertatutakoaren ondoren, igaro da. Betiko.⁵⁹

Orain errege konstituzional batek izan behar du, nazioaren borondateak mugaturik, orain arte oso modu lausoan agertu den aberria gidatuko –ez gobernatuko– duena. Aberri berri hori 1808ko maiatzaren 2an hasiko da marrazten, Mostolesgo alkateak esaten duenean frantsesek –Portugalen aurkako gerra arraro eta susmagarri batean, inbaditzaile gisa eta ez aliatu gisa aurkeztuak– hain irmo defendatu beharreko entelekia hori arriskuan jarri dutela.

Jakina, aurreko egoera nostalgiarekin gogoratzen dutenak ez dira faltako. Horrekin irabazten irteten zirenak, batez ere. Aristokrata handiak, esaterako, baina baita herri xehea ere. Politikarako prestakuntza handiegirik gabeko pertsonak ziren, eta, hainbat arrazoi-rengatik, garai hartan sortuko zen alderdi erreakzionarioarekin bat egin zuten. 1789ko uztailaren 14an baino lehen zegoen egoerara itzultzea zen beren asmoa, eta ahal izanda, are okerrago batera.⁶⁰

Ekaitz politiko hori Lezotik ere igaroko da, noski. Egia esan, liburu honen azken orrialdera arte ikusiko dugun legez, 1808ko maiatzaren 2ko Madrilen jazo ziren gertaerak eta aldaketak bi alderdien arteko borroka luze baten hastapenak izan ziren. Batzuetan, hiru-

⁵⁹ Joaquin Costa bereziak zehaztasunez aztertu zuen Madrilgo maiatzaren 2an izandako gertaerak iraultza gisa hartzearen kontua. Bere estiloak apaindura gehiegi dauzka, beti bezala, baina interesgarria izan daiteke begirata. Halaber, aipatzen duan edizioak Alberto Gil Novalesen hitzaurre on bat dauka, eta hori oso erabilgarria izan daiteke. Ikus COSTA, Joaquín: *Historia crítica de la revolución española*.

⁶⁰ Herri xehe horrek –Europar ia bakarra, Napoleonek okupatutako Tirolen Andreas Hoffer tabernariak antolatutako partidak kenduta– izan zuen paperari buruz, ikus VILAR, Pierre: *Hidalgos, amotinados y guerrilleros. Pueblo y poderes en la historia de España*, 200 or. Europar izan ziren antzeko erreakzioei buruz jakiteko, WOOLF, Stuart: *La Europa napoleónica*, 307-310 or. Jean-René Aymes-ek egindako artikulua ere interesgarria izan daiteke. Irakasle frantses honek Bonaparteren kontrako gerretan izan ziren “jarrera antiepiokoak” deitzen zituenak aztertzen dira artikulu horretan, eta izan ziren izan Espainiako gizarteko hainbat sektoretan Vilarrek “jendilajea” deitzen zuen gerrillariez osatutako taldeak, AYMES, Jean-René: “Héroes y rufianes frente a Napoleón. Comportamientos antiépicos en la Guerra de la Independencia”, 43-50 or. Euskal Herriko egoera zehatzaz jakiteko, begiratu RILOVA JERICÓ, Carlos: “Patria defendida a sangre y fuego. Cómo los vascos descubrieron que eran españoles (1808-1823)”, 5-7 or. Napoleonen inbasioa baino lehen, inbasio garaian eta gero ere izan ziren euskal bidelapurrei buruz jakiteko, ikus AGIRREZKUENAGAZIGORRAGA, Joseba: “XIX. mendeko bandolerismoaz: Manuel Antonio Madariaga “Patakon” gaizkile onaren adierazpena”, 587-608 or.; ALBERDI SAGARDIA, Mikel: “Guiñi. Caudillo de salteadores. Euskal bandolerismoarenganako hurbilketa”, in ZZEE: *Azterketa historikoak-Estudios históricos V*, 41-71 or.; KASPER, Michael: “Gerrilla Gipuzkoan (1808-1835)-La guerrilla en Gipuzkoa (1808-1835)”, in ZZEE: *Azterketa historikoak-Estudios históricos II*, 25-41 or.. Maila lokalago batean, baina inbaditzailearen aurrean borroka egin zutenen izaera nolakoa zen jakiteko, ARGANDOÑA OCHANDORENA, Koldo: “Urretxu duela 200 urte: bidelapurren kontakizunak-Historias de bandoleros en el Urretxu de hace 200 años”, in ZZEE: *Gipuzkoa duela 200 urte-Hace 200 años en Gipuzkoa*, 69-97 or. Bizkaiko kasurako, ikus ENRIQUEZ, José Carlos eta beste batzuk: “Criminalidad y guerrillas vizcainas en la Guerra de Independencia (1808-1814)”, in ZZEE: *Actas del Coloquio Internacional El jacobinisme. Reacció i revolució a Catalunya i a Espanya, 1789-1837, 245-256 or. Armada zein gerrillariak defenditzen zituztela esaten zutenekin zer egiteko gai ziren jakiteko, ikus CANALES GILI, Esteban: “Ejército y población civil durante la Guerra de Independencia: unas relaciones conflictivas”.*

garren alderdi baten aurka ere lehiatu ziren: frantsestuenaren aurka, hain zuzen, Napoleon inbaditzailearekin bat eginez, beren iraultza liberal propioa egin nahi zutenena. Bi alderdion arteko borroka 1876. urtean amaitu zen, nolabait esatearren...

Ez ditzagun gertaerak aurreratu, baina. Ikus dezagun, lehenik, zer gertatu zen Lezon gaur egun bizi dugun mundua ekarriko zuen iraultza liberalaren bandoen ezaugarriak argi geratu zirenean eta haien artean hautatu behar izan zenean.

Egun asko behar izan ziren maiatzaren 2ko eztanda Gipuzkoara –eta, beraz, Lezora– heltzeko. Hala ere, Troiako zaldunaren lana egiteko lurraldea okupatzen ari ziren Frantziako tropek –1808ko maiatzaren 1era arte Borboiko Karlos IV.aren menpe zeuden Penintsulako lurretan izan ziren– “zerbait” gertatu izanaren seinaleak agerian utzi zituzten. Frantziako armaden –hasieran iraultzaileak ziren; gero, Napoleonekin, kontsularra eta, amaitzeko, inperialista– menpe eroritako Europako beste lurraldeetan gertatutakoaren oso antzekoa zen “zerbait” hori.

Lezo Nafarroako Erresumaren menpe zegoen oraindik, 1805. urtean Karlos IV.ak edo, hobeto esanda, Godoy bere balidoak erabaki bezala. Maiatzaren 2aren ondoren inbaditzaileek izendatutako erregeordeak emango zituen beren nagusi frantses berriek emandako aginduak.

Lezo dagoen lurraldean ezinegonen bat dagoela igartzen da horietan. Mahoiko dukeak –Frantsesek izendatutako erregeorde-txotxongiloak– bidalitako zirkularrean gogorarazten zien lurraldeko agintariei Nafarroako Erresuma utzi zuten nobleen eta “persona aberatsen” izenak eman behar zituztela. Lehenengo ohar hori 1808ko abenduaren 15ekoa da eta, beste ezer gehiago zehaztu ez arren, argi dago frantses enperadorearen agintea onartzeko prest ez zeuden iraultzaile eta abertzaleen bila ari zirela. Handik bi eguneko datarekin Lezoko erregidoreen esku heldu zenak are garbiago uzten zituen gauzak.⁶¹

Mahoiko dukeak gogorarazten zenez, Brisson dibisioko jeneral txit gorenak –menderatu zituen Napoleonen Inperioko kondeak eta Nafarroan zeuden Frantziako tropen komandante nagusiak, nagusia nor zen argi uzteko– agindu berri zehatzak eman zizkien bere destakamendu guztiei: armak zituzten guztiak atxilotzea. Are gehiago, “si opusiesen alguna resistencia”, Frantziako tropek tiro egin beharko lukete. Norbaitek armak ez eramateko agindua ezagutzen ez zuenaren argudioa baliogabetzea nahi zuten aginduarekin, eta horrela “asegurar la tranquilidad del pais contra los malhechores que pudieran turbarla”.⁶²

Laster ikusiko dugun bezala, gai horrekin zerikusia duten dokumentu gutxi dago artxibategietan, baina dauden apurrek ondo marrazten dute zer gertatu zitzaien Lezori eta ber-

⁶¹ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1808ko abenduaren 17ko zirkularra.

⁶² LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1808ko abenduaren 18ko zirkularra.

tako biztanleei 1808ko maiatzaren 2ko ezteandaren ostean modu ez-formalean adierazi zen guda hark iraun zuen sei urteetan.

Nafarroako erregeordearen eta Jose Bonaparte I.a inbaditzailea onartu zuten unibertsi-tateko agintarien arteko gutunek zerbait gehiago esaten digute inbaditzaileen administra-zioak “brigantes” –frantsesezko “brigand” hitzaren espainolizazioa, “bidelapur” gisa itzul genezakeena– esaten zienaren inguruan. “Brigante” horiek Nafarroako Erresuma zaha-rreko bideak –garai hartan Lezoraino iristen ziren– zeharkatzen zituzten, inperioaren tro-pei aurre eginez.

1809ko urriaren 21ean datatutako gutunak garai hartan zegoen gerrilla-gerra egoera deskribatzen du inbaditzailearen eta agintari laguntzaileen ikuspegitik. Mahoiko dukeak tonu arranditsuan kontatzen duenez, “una porción de tropa” beren buruari “soldadu” izena ematen zioten –dukearen arabera, “unos verdaderos malhechores que no cesan de molestar a los Pueblos, y de comprometerlos, arrebatandoles sus Caballos y frutos”– kua-drilen atzetik atera zen. Dirudienez, jazarpen tropek arrakasta handi samarra izan zuten. Hain zuzen, haietako batzuek Carrasco izeneko buruzagia harrapatu zuten bere agindu-pean zeuden beste hamazortzi gerrillarirekin batera. Txosten beraren arabera, ordurako aski ezaguna zen Mina ihesi –“desparramado”, jatorrizko testuan – joan zen.⁶³

Hala ere, egoera ez zen erregeordeak sinetsi nahi zuen bezain ona. Hori ondoriozta dai-teke ustezko arrakasta –Mina, adibidez, ihesi edo kokapen hobeak hartzen egon ziteke-en– horien berri eman ondoren, Mahoiko dukeak Lezokoak bezalako agintariei egindako eskaeratik: tropa inbaditzaileei “briganteak” harrapatzen laguntzera animatu zituen, gero hurbilen zegoen Frantziako laguntza-guardian entregatzeko.⁶⁴

Gainera, harrapatutako gerrillari bakoitzeko ordainsaria eskaintzen zen. Giza haragizko pieza bakoitzaren balioa ontza bat urre zen. Nahiko merkea, inondik ere. Dena dela, hori ez zen ezer garbiketa operazio horietan parte hartzen zutenek zuten sariekin alderatuta. Ez zen harritzekoa, hutsalenen artean irtendako heroien merituetan oinarritutako Inperioa baitzen. Hala, Napoleon bera eta bere mariskaletako asko, besteak beste, garai hartan Europako zati handi baten nagusiak, modu horretan nabarmendu ziren. Horrexegatik, Mahoiko dukeak esan zien Lezori eta gainerako Nafarroako herriei Inperioko soldaduei

⁶³ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1809ko urriaren 21eko zirkularra. Espoz y Mina ezagunagoaren iloba Minari buruz, ikus GUZMÁN, Martín Luis: *Mina el mozo. Héroe de Navarra* eta ORTUÑO MARTÍNEZ, Manuel: *Xavier Mina. Guerrillero, liberal, insurgente. Ensayo bio-bibliográfico*. Bi lan horiek ikasle horren bizitza deskribatzen dute. Maiatzaren 2an frantsesek egin zutenaz jakitun, partida bat antolatu zuen haien aurre egiteko. Heroi erro-mantiko on baten gisara, gazterik hil zen, beste errebolta bat prestatzen ari zela. Orduko hartan Espainiako monarkia absolutuak Nueva Españako Erregeordetzaren –gutxi gorabehera, gaur egungo Mexiko– gainean zeukan boterearen kontrakoa zen. Autore honen eta lortzeko erraza den –sarean eskegita dago– beste lan bat begiratzea ere interesgarria izan daiteke: “Recuperación de Xavier Mina”, 93-102 or.

⁶⁴ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1809ko urriaren 21eko zirkularra.

laguntzen zietenek ontza urre batez gainera, gomendio antzeko bat jasoko zutela Jose I.a erregearen aurrean, sarekadan izandako jarreragatik.⁶⁵

Aholku horiek emaitza onak eman zituztela onartu behar dugu. Frantziako bigarren okupazio horretatik ditugun albisteez diote bazeudela Lezon agintari frantsesak Thuyvenot, Brisson eta hauen artekariei –Mahoiko dukearen gisakoa, Napoleon Bonaparteren kausa hain ondo saltzen zuena– laguntzeko prest, ikusi berri dugun bezala.

Lezoko udal aktetan ondo erreparatuz gero, ondorio nahiko bitxiaz ohartuko gara: Napoleonen inbasioa baino lehen agintean zeudenen abizenak –Agirre, Martiarena...– hor zeuden oraindik, baina beste izen batzuekin, maiatzaren 2aren eta Bonaparteren estatu kolpearen albisteen ondoren. Zerrenda begiratzen jarraituz gero, ikusiko dugu eranskin gutxi batzuk kenduta –Manuel Maria Ulaziaren kasua, esaterako–, 1806. urtean zeuden pertsona berberak jarraitzen zutela udal erabakiak hartzen, hitza eta botoa zuten herritar gisa.⁶⁶

Horrenbestez, badirudi inbasioa baino lehen boterearekin harremanetan zeuden familia horiek –itxura batean, Bonaparteren agintariak lagunduta iritsi ziren herriko agintera, Manuel Maria Ulaziaren kasuan bezala– ez zutela arazorik Bonapartearrek Madrilen jarri zuten errege berriari fideltasun osoa zin egiteko. Oraindik ere, Madrilen erabakitzen zen Lezoren etorkizuna. 1808ko maiatzeko gertaeretatik urtebetera egin zen juramentua –unibertsitateko aktetan jasota– ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Zin egitea atzeratzea izan zen Lezoko agintari horiek egin zuten erresistentziarik handiena. Mahoiko dukeari egindako txantxa garratza ere gaineratu beharra dago, zin egitea lehenago ez bazitzaion iritsi posta zerbitzukoek juramentuaren akta galdu zutelako izango zela argudiatu zutelako. Baina posta zerbitzua Bonaparteren zaleen edo beren laguntzaileen esku zegoen.⁶⁷

Gauza txikia erresistentzia ekintza gisa, herriko agintariak inbaditzaileekiko zuten atxikimendua argi eta garbi azaltzen baita agiritan. 1808ko abenduaren 18an Juan Fernando de Agirrek, Lezoko Udalaren izenean, Mahoiko dukeari eskainitako laguntza inolako lotsarik gabe agertu zuen. Mahoiko dukeak mezulari lana egiteko eskatu zien berari eta beste agintari batzuei –Domingo Maria Errazuri, esaterako–, pertsona jakin bati paper-orri bat emateko eskatuz. Eskatera horri emandako erantzuna –1809ko urtarrilaren 6an egin zen– ezin obedienteagoa izan zen: mandatua bete zutela erantzun zuten. Eta inolako atzerapenik gabe, gainera.⁶⁸

Lezoko agintarien eta Napoleonen inbaditzaileen arteko harreman onak beste askotan ere errepikatu ziren.

⁶⁵ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1809ko urriaren 21eko zirkularra.

⁶⁶ LUA A 1 1, 3 (1.go karpeta), 1806ko otsailaren 6ko eta 1809ko urtarrilaren 20ko aktak.

⁶⁷ LUA A 1 1, 3 (1.go karpeta), 1809ko maiatzaren 13ko aktak.

⁶⁸ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1808ko abenduaren 18ko eta 1809ko urtarrilaren 6ko gutunak.

1811. urtean, Gipuzkoako herrialdeko kontseilariak –praktikan, okupatzaileek bertan behera utzi zuten Diputazioaren ordezkariak ezarritakoak– esan zien Thouvenot jeneralak, inguru horretan zeuden tropen komandante buruak, berriz eskatu zuela beren herriak utzita gerrillariekin bat egitera joandakoei buruzko albisteak behar zituela. 1808an eskaera bera egin zuten, jada.⁶⁹

Berriz ere, Lezoko agintariak prest agertu ziren mandatu hori behar bezala betetzeko. Hala, inbasioari aurre egiten ari ziren gerrillari taldeak desegiteko egindako informazio-eskaeraren atzeko aldean idatzi zituzten matxinoen taldeetan izan zitezkeen bizilagunen izenak. Bi izen bakarrik jarri zituzten: Juan Jose Alzelai eta Jose Nicolas Iriarte. Biak ezkongabeak eta arrantzaleak ziren. 18 urte pasatxo zituzten... Horren aurretik ez zen inon agertzen Napoleonen kontrako erresistentziako ezkutuko negoziotetan izan ziren; inbaditzaileek Jose I. Bonaparterekiko matxinoen taldeak uzteagatik indulturen bat jaso zutenik ere ez. Hala ere, bi arrantza lezoarrak oso abertzale finak ez zirela ematen du: beren etxeak utzi eta egun gutxitara, unibertsitatera itzuli ziren biak eta Pasaian zegoen Frantziako armadaren ordezkariaren aurrean azaldu.⁷⁰

Oro har lezoarrak gertaeren zain bezala gelditu ziren, bai ustezko abertzaleekin bat egitea pentsatzen zutenak bai, arrazoiak edozein zela ere, inbaditzaileei laguntzea erabaki zutenak. Hala, Napoleonen okupatzaileak botatzeko borrokatzen zen bitartean eta XIX. mendean zehar politikako espektroa banatuko zuen taldeak sortzen ari ziren bitartean –iraultza liberal propioa egin nahi zutenena, 1812ko Cadizeko Konstituzioan jasoa, eta horri aurre egiteko sortutakoa–, kolaborazionistek eta Frantsesaren aurka borrokatzeko zerrendetan egoteko hautagaiek ezer gutxi egin zuten.

1811ko uztailan Lezok jaso zuen bisitak ondo marrazten du zer gertatu zen bertan 1812. eta 1876. urteen artean hainbat gertaeratan islatu zen iraultza sortzen ari zen bitartean.

Lezoko kolaborazionistek beren nagusi frantsesei bidalitako gutunetik dugu gertaeren berri. Bertan esatenenez, uztailaren 7ko gauean armadun jendea heldu zen herrira. “Cavalleria é Ynfanteria”-koak ziren. Gaueko hamarren eta hamaiken artean izan zen. Armak zituzten hainbat gizon ziren “vriganteak” esaten zitzaizkien horietakoak. Lezoko agintariak dio ahal izan zuen bezain azkar eman ziola Pasaiaiko komandanteari partida horren berri. Beste erregidore bat eta garai hartan administrazio kolaborazionistaren soldatarekin zegoen beste agintari bat bertara joan ziren eta gizon haiei aurre egiteko tropekin itzuli. Hala ere, denbora tarte horretan Lezon une hartan zeuden zaldi guztiak eskatu zituzten armadun gizonak. Kolaborazionistak aurre egiten saiatu ziren, baina gutuna idazten zuen erregidorea behartu zuten gerrillariekin –“con la fuerza”– baliozko zerbaitekin izan zezaketen

⁶⁹ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1811ko maiatzaren 30eko zirkularra.

⁷⁰ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1811ko maiatzaren 30eko zirkularra.



Santa Cruz apaiza eta bere mutilak (1873-1876)

Iturria: Kutxa Fototeka

etxeak banan-banan ikuskatzen laguntzera. Zaldiak edo beste edozer. Ez zuten aurkitu, ordea. Mandorik edo astorik ere ez.⁷¹

Hala ere, horrek ez zuen esan nahi eskaera gehiago egin ez zutenik. Zaldirik edo bes-telako abere zamariarik ez zegoenez, haragi, ogi eta ardoa eta tropa hura janzteko sei alkandora eramango zituztela esan zuten gerrillariak. Erregidoreak, bere lagun frantsesak atzeratzen ari zirela ikusita –benetako atzerapena, eta susmagarria ere bai, bi herrien arteko distantzia zein den kontuan hartuta–, zegoen gauza bakarra tabernako ardoa zela erantzun zien. Itxura batean, oraingoan sinetsi egin zuten, eta horrekin bakarrik konformatu ziren, eta haragiaren eta alkandoren falta izan arren gustura geratu ziren matxinoak, azken orduan izan bazen ere, ogia agertu zelako. Horrez gain, herritik hartu zutena eraman ahal izateko abere bat eskatzeko astia ere izan zuten. Abererik ez bazegoen, “herritar” bat ere nahikoa zutela esan zuten.⁷²

Erregidoreak esan zien ez ziela abererik edo bere ardurapean zegoen “herritarrik” emango. Kolaborazionistaren irmotasunak gerrillariak sumindu zituen, eta handik alde

⁷¹ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1811ko uztailaren 9ko gutuna. Gerrilla-gerrei buruz, ikus ARTOLA, Miguel: *La España de Fernando VII*, 89-307 or. Ustez “abertzaleak” ziren ekintza horien atzean ezkutatu ahal ziren lapurreteiei buruz, lan honen 60. oharrean azaltzen diren lanak begiratu. Bereziki Jean-René Aymes-ena eta nik neuk sinatzen dudana.

⁷² LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1811ko uztailaren 9ko gutuna.

egitea erabaki zuten, baina aurretik tiro egitearekin mehatxatu zuten. Erregidorearen aburuz, ez zuten Frantziako tropekin borroka egiteko gogo handirik, eta heltzeaz zirela ohartuta, nahi baino azkarrago alde egin behar izan zuten. Hori gertatu baino lehen, gerrillarien alde egiteko prest zeuden Lezoko bi pertsona bakarrak azaldu ziren.⁷³

Ez ziren filmetan, eleberrietan edo telesailetan ikustera ohitu garen heroiak. San Fermin gau hartan Santos Ansorena eta Placido Urrestarazu arrantzaleek erakutsi zuten adorea ez zuen zerikusi handirik 1812ko konstituzioaren aldeko jarrera ideologikoarekin edo Fernando VII.a errege desiratuaren itzulerarekin; baliteke zerikusi handiagoa izatea gerrillarietabarnatik eramane zuten ardoarekin. Erregidore kolaborazionistak esan zuenez, izan zuten jarrerak harreman zuzena zuen mozkor-mozkor –“enteramente embriagados”– egotearekin. Hala zeudela jakinarazi zuten konfiantza osoko bizilagunek. Horrek eman omen zien adorea gerrillariei eta erregidoreari aurre egiteko, eta egoera ezohikoaren ezaugarriek zer esan nahi zuten galdetzeko. Placido Urrestarazu hain zegoen edariaren ondorioz oilartuta, non erregidore kolaborazionistari zaplazteko bat ematera ere ausartu baitzen. Ekintza horrek halako begikotasun bat eragin zuen Placidoren eta gerrillarien artean eta horren ondorioz, lezoarra armadunekin joan zen, ez dakigu nahita edo behartuta.⁷⁴

Hala ere, abertzale lezoar berriaren abenturek bere aurrekoenak baino gutxiago iraun zuten oraindik. Bi ordu bakarrik. Beharbada zeukan mozkorraldia bereganatzen behar zuen denbora. Denbora hori igarota, Placido itzuli egin zen, eta egindakoaz damutzen zela adierazi zion erregidoreari. Baina hori ez zen nahikoa erregidore kolaborazionistaren mendeku-gosea asetzeko, eta sasi-gerrillaria beraren menpe geratzen zela ikusita, Pasaiaiko komandante frantsesaren esku utzi zuen, hark nahi zuena egin zezan.⁷⁵

Ez zen zigor arina. Lezoko erregidoreak idatzitako gutunean esaten den bezala, Pasaiaiko komandantea gizon ankerra zen. Placidorekin batera herritik alde egin zuten briganteak harrapatzeko ahalegin antzua egin eta gero, Santos Ansorena eramatea erabaki zuen. Horrekin nahikoa ez, eta Joaquin Urrestarazu, Placidoren anaia, preso hartzea erabaki zuen, hura bere onera ekartzeko pertsona egokia izan zitekeela argudiatu baitzuen erregidoreak.⁷⁶

Gertaera horrek agerian uzten du zer egin zuten lezoarrek frantsesen bigarren inbasioak –Antzinako Erregimenetik, 1793tik, indarrean zegoen guztiarekin astiro baino ziur amaituko zuen prozesu iraultzaileei atea zabaldu zienak– iraun zuen bitartean.

Lezoarren jarrera nahiko ulergarria izan daiteke: pasiboak izateari utzi gabe, abiatua zen iraultza prozesuaren barruan zeudenekin nolabaiteko harremanak zituzten.

⁷³ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1811ko uztailaren 9ko gutuna.

⁷⁴ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1811ko uztailaren 9ko gutuna.

⁷⁵ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1811ko uztailaren 9ko gutuna.

⁷⁶ LUA E 5 IV 1, 1 (79. karpeta), 1811ko uztailaren 9ko gutuna.

Arrazoi ia intenporalak daude hori azaltzeko. Heroiak ez dira hain ugariak eta Napoleonen inbasioaren moduko garai arriskutsuetan gizartearen zati handi batek beste aldera begiratzeko joera hartzen du. Ikusi dugu nolako amorruekin jokatzeko zuten Pasaiaiko komandante frantsesak; bada, bere baioneten menpean zeuden inguruak ondo lotuta izan behar zituen jarrera horrekin.

Armarik izaten ez bada edo hurbilekoek errepresaliak jasan ditzaketela uste bada, zaila da edozein konpromiso hartzea. Arrazoi horrengatik edo beste edozein arrazoiengatik –Aginteren gerizpera hurbiltzea edo arrazoi idealistagoak, esaterako–kolaboratu zuten lezoarrei ez zaie ezer leporatu behar, ez litzateke egin behar behintzat. Esaterako, Jose I.a Bonaparteren gobernuaren herriarentzat, herrialdearentzat, eta beraz, Lezoarentzat baliagarria izan zitekeela uste zuten batzuek, inposatutako erregea zela jakin arren. Horrelako hainbat kasu izan ziren. Eta unibertsitateetik ez oso urruti, bi arrazoi horien nahasketa ere bai.⁷⁷

Bestalde, objektiboki aztertuta, erresistentziaren izenean ari zirenetako askok bidelapurren moduan jokatzeko zuten, ideologia politikoaren zantzurik erakutsi gabe. Lezok 1811ren uztailaren 7an jasan zuen *razzia* izan daiteke horren adibidea, eta, bilatzen hasiz gero, are adibide hobeak aurki daitezke. Horrek atzera egitea eragiten zuten benetan liberalen alde zeuden lezoarrei –uste hori izateko ez zuten behar Santos Ansorenak eta Placido Urrestarazuk dastatutako saldaren edo beste edozeren laguntza–. Liberalen alde zeudenak ez ziren gutxi, lan honen hurrengo ataletan ikusiko dugun moduan.⁷⁸

Horrenbestez, antzeko arrazoiengatik Lezoko herritarrek ahal izan zuten moduan jasan behar izan zuten Napoleonen inbasioa. Egoera horretan heroiak eta leialtasunak eta beste hitz handiek eragin txikia zuten errealitatean. Norberak bere burua ahal zuten moduan zaintzea zen orduko errealitatea.

Dokumentuek diotenez, unibertsitatea sistematikoki arpilatu zuten berau askatzera zihoazela joandakoek: bateko gerrillariak eta besteko bonapartistek.

Ez dago zalantzarik Napoleonen agintariak unibertsitatea esplotatu zutela, beretzat erabat jabetu zirenetik. 1811. urtean Lezoko herritarrek gerrillarien eskutik izan zuten lapurreta eta frantsesen enperadoreen lagun gaiztoek modu legalean Nafarroako Erresuman egin zituztenak alderatzea interesgarria da; eta, garai hartan, Lezo Nafarroako Erresumaren zatia zen.

⁷⁷ Napoleon Bonapartek Madrilen ezarritako erregea ona zela modu zintzoan edo ez sinesten zuten frantziartuei buruz, gaiaren gainean dauden bi lan klasikoak aipatuko ditut: Artolarena eta Juretschke-rena. Begiratu ARTOLA, Miguel: *Los afrancesados* eta JURETSCHKE, Hans: *Los afrancesados en la Guerra de Independencia*. Fenomeno honek Euskal Herrian izan zuen eraginari buruz jakiteko, nahiz eta arlo hori sakonduko zuten azterketa baten premia izan, ikus RILOVA JERICÓ: "Patria defendida a sangre y fuego", 7-8 or. Lan hori fenomeno horrek Jaen herrialdean izan zuen eragina azaltzen duen Emilio Luis Lararen lanarekin alderatzea interesgarria izan daiteke. Ikus LARALÓPEZ, Emilio Luis: "La represión de los afrancesados: condenas sociales, jurídicas y políticas. El caso de Jaén (1812-1820)".

⁷⁸ Gai honi buruz jakiteko, lan honen 60. oharrean azaltzen den bibliografia azter daiteke.

1809ko azaroaren 5ean unibertsitateko agintariek egindako hausnarketa argigarria da: ezinezkoa zaie Napoleonen zenturioiek eskatzen dietena ordaintzea. Alegia, 11.250 erre-al. Juan Antonio Elizaldek eta arestian aipatutako Manuel Maria Ulaziak hori azpimarratu beharko zuten erregeordearen aurrean. Izan ere, bi pertsona horiek Iruñeara erregeordea ikustera joango zirela adostu zuten batzar horretan. Lezoarrek “a viva voz o como mejor les parezca” azaldu behar zitoten diru kopuru hori ordaintzea guztiz ezinezkoa zutela. Halaber, biztanleriaren egoera triste eta tamalgarria zein zen azaltzeko baliatu behar zuten elkarrizketa.⁷⁹

Eskaera horrek ez zuen egoera hobetu. Azaroaren 26an, erregeordeari bisita egin zioten bi mezulariek egin zuten lanaren emaitza azaldu zuten Lezoko areto nagusian, eta azaldu zutena txarra baino txarragoa zen: erregeordeak ez zituen lezoarren eskaerak entzun, eta gainera, diru kopurua handitu zuen. Nafarroa osoari zegokion 4 milioi errealeko jesapenaren –jakina, behartutakoa– beren zatia ordaintzeko eskatzen zuten erregeordeak, hau da, 15.000 errealak, eta horri 300 arto anega gaineratu zizkion. Beraz, mezulariek beraiek onartu zuten, alferrikako ahalegina izan zen, eta ordaintzea besterik ez zegoen. Ordaindu ahal izateko, unibertsitatearen ondareak enkante publikoan jarri behar izan zituzten –zehatzago esateko, Luzuriaga baserria–, ahalik eta diru gehien batu eta eskatutakoa ordaintzeko.⁸⁰

Napoleonen inbasioa jasaten ari ziren lezoarrek behin baino gehiagotan bizi beharko zuten halako estutasunik. Izan ere, frantsesen bigarren inbasioaren eta 1808. eta 1813. urteen artean sortutako gerraren ondorioz Lezoko unibertsitateak pairatzen zuen egoera negargarria zen.

Napoleonen uztarritik askatu osteko lehenengo Udal aktek nahiko egoera txarra marrazten dute. Hala, 1813ko apirilaren 25ean, Donostian oraindik tropa frantsesek hiria inguratzen zutenean –okupazioaren eraginez Gipuzkoan suntsiketa handiena jasan zuen Donostiak, batez ere ustez laguntzera joan zen Wellingtongo dukearen zentzugabeko ekintzarengatik–, Lezoko kabildoa batu zen Udaleko idazkariaren ahotik “en voz” entzuteko zeintzuk ziren presazko bilera hura antolatzeko arrazoiak.⁸¹

Ahots “clara é inteligible” horrek esateko zeukana esan zuen: frantsesak igaro ostean, unibertsitatea “txirotasun egoera negargarrian” zegoela. Komunitateak ez zeukan dirurik. Hori guztia larriagotu egiten zen ezarri berria zen gobernu nazionalak, frantsesak bota zituzten berberak, eskatutako ordainarazpenekin. Horiek, inbaditzaileengatik gutxi alden-duta, artoa eta garia eskatzen zuten Bidasoako mugatik haratago –bere inperioaren biho-

⁷⁹ LUA A 1 1, 3 (1.go karpeta), orriak: 144 zuzena-145 zuzena.

⁸⁰ LUA A 1 1, 3 (1.go karpeta), orriak: 150 zuzena-151 zuzena. “Lander Zurutzak emandako informazioaren arabera, baliteke Luzuriaga baserria (edo Herrikoetxea) bi aldiz saldu izatea. Lehenengoa, garai honetan; bigarrena, Wellingtonen tropak ordaintzeko helburuarekin (1813). Ikus ZURUTUZA, Lander: “Lezoko toponimia (III)”, 81. or.

⁸¹ LUA C 5 III 1, 3 (45. karpeta), 1813ko apirilaren 25eko akta.

tzean– Napoleon gainditu behar zuen armadarentzat. Eskaera hori ezin zuten bete, bi lekarien aurreko uzta agortuta baitzegoen jada.⁸²

Orain ere, ez zen denbora asko igaro errepresaliak heltzeko, frantsesen inbasioaren garaian bezala. Inoiz amaitzeko itxurarik ez zeukan gerra hark eragindako sarraskiek aztoratutako lezoar haiek egindako batzarraren aktek jasotzen zutenez, horri bakarrik egotzi ahal zitzaion Cayetano Xabier Iriarteren, Antonio Agirrebarrenaren –Lezoko parrokiako presbiteroa– eta Lezoko “primer municipal” zen Francisco Martiarenarena atxilotekak. Hilaren 23ko arratsaldean gertatu zen guztia. “Primer municipal” hura nola eraman zuten adibide hona da inbasioaren eta Napoleon Bonaparteren kontrako gerraren ostean unibertsitea nola geratu zen irudikatzen: Irunera eraman zuten indar militarrek.⁸³

Agindu berriak iritsi bitartean, hirurak izan zituzten atxilotuta inguru hartako komandante berriaren esku. Egoera hark, herritar taldeak egindako batzarrak onartu zuen moduan, ez zuen esan nahi ustez beraiek askatzera joandako armadak eskatutako zergak ordaindu behar ez zituztenik. Udalbatzar hartan esan zuten moduan, porrot egin zutela onartzea baino ez zitzaion geratzen Lezori; ezin zuten artorik ez garirik eman. Are gutxiago troparentzat ardoa edo hainbesteko kaltea jasan ez zuten beste komunitate batzuek emandako gaiak garraiatzeko abererik. Ingelesek, portugaldarrek eta espainiarrek Frantzia inbaditzeko prestatzen ari zen armadari laguntzeko ziren horiek guztiak.⁸⁴

Komunitateak, akta publiko horretan “oso estututa” dagoela esan eta ondorioztatu arren, azken ahalegin bat egingo du zeukan arazoa konpontzeko. Beste behin, Napoleonen inbasioaren garaian egin zuen bezala, udal ondasunak saldu beharko ditu. Olazuriaga baserriaren txanda izan zen oraingoan. Saldu egin zuten, inbasioaren garaian Luzuriaga baserria saldu zuten bezala, Bonaparteren abenturarekin amaitu zuen armadak eskatzen ziona ordaintzeko.⁸⁵

1808. urtetik aurrera gertatu zena kontuan izanda ez da harrizkoa Lezoko komunitateak neurri horiek hartu behar izatea. Gerrillariak eta Napoleonen tropak zeukatena kendu zieten beldurtzeko taktika begi-bistakoak edo ez hain begi-bistakoak erabilia. Baina horiek bakarrik ez. Gipuzkoako Diputazioak berak –herrialde guztiaren, eta, beraz, Lezoren, legezko ordezkaria– ere gogor jokatu zuen azken gobernu legalak ezarritako irizpideak betearazteko. Azken gobernu legal hori Leongo Uhartearen, Cadizen, setiatuta gertatu zen 1808ko inbasioaren ostean. Frantzian bahituta zeuden Karlos IV.a eta Fernando printzea ordezkatzeko ahaleginak ziren, bietako bat itzultzeko moduan izan arte –koroaren jabea nor zen erabakitzen bazuten behintzat–, eta horrela bonapartistekin galdutako legimitate berreskuratu.

⁸² LUA C 5 III 1, 3 (45. karpeta), 1813ko apirilaren 25eko akta.

⁸³ LUA C 5 III 1, 3 (45. karpeta), 1813ko apirilaren 25eko akta.

⁸⁴ LUA C 5 III 1, 3 (45. karpeta), 1813ko apirilaren 25eko akta. Askatzaileek ezarritako gainzerga berezi horiei buruz, ikus FONTANA, Josep: “La financiación de la Guerra de Independencia”.

⁸⁵ LUA C 5 III 1, 3 (45. karpeta), 1813ko apirilaren 25eko akta.

Hau da, Napoleonen kontrako agintarien edo armadaren agindua betetzen motelegia zena –1813. urteko apiril amaierako batzarreko aktetan agertzen ziren Lezoko hiru herritar esanguratsuak, kasu– fusilatzeke, erretzeko, edo, gutxienez, atxilotzeko erabakia hartu zuen Diputazioak.⁸⁶

Hala ere, horrek guztiak –Goyaren margolanetarako eredu bikaina izan zitekeen– ez zuen saihestu gerrak iraun zuen urteetan Cadizen amaitu gabe geratu zen iraultza liberala Lezoko lurraldean ezartzea.

Balorazio ezkor horretatik egin zenetik urtebetera datatutako gutun batek horixe dio behintzat. Tolosatik zetorren, ohiko foru aldundiaren lekua hartu zuen gobernu politikoa zegoen lekutik. Karlos IV.aren monarkia Bonaparteren zaleen presentziatik askatu zuten Cadizeko parlamentariak hala nahi zutelako egin zen aldaketa hori, Bonaparteren zaleek frantsesen erara zentralizatutako estatu eredu indarrean jartzen ari zirelako.

Zirkular horretan Villafuertesgo kondeak –erakutsi dugun moduan, iraultza liberalak Gipuzkoan izan zuen oinarri sendoenetako bat– ohartarazten zien zein zen beren egitekoa abertzale on gisa eta 1808. urteko maiatzean Bonaparte inbaditzailea bota ondoren sortutako aberriaren martiriak gogoratu beharra zegoela. Alderdi iraultzaileak Gipuzkoa barruan bere lekua hartu zuela erakusten zuen lehenengo urrats horrek.⁸⁷

Lezoarrek hobeto edo okerrago onartutako iraultza horrek ez zuen gehiegi iraungo. Lezon eta monarkiaren gainerako lurraldeetan Borboiko Fernando VII.a Erregea jasan behar izan zuten. Erregea ez zen gai emandako hitza betetzeko, eta bere asmo bakarra botere absolutua lortzea zen, hainbeste miresten zuen Errusiako zarraren antzera, noren eta zeren gain eragiten zuen arduratu gabe. Mota guztietako hilotzak barne.

Hala, errege berriak, bera errege konstituzional bihurtzea nahi zuten liberalek –ez dugu ahaztu behar egin zuten lehenengo gauza foru batzarrak baionetak erabiliz desegitea izan zela, haiek esaten zutelako Cadizeko Gorteak bezain legitimoak zirela– beraiek baino are metodo gogorragoak erabilia, liberalen aldeko edozein jarrera deuseztatu zuen. Hainbat urtetan Valençai jauregiko espetxean giltzapetuta izan ostean, eta behin Bidasoako muga gaindituta zuela izan zuen jarrera hori.⁸⁸

Albisteak laster iritsi ziren Lezora. Berriz ezarritako Gipuzkoako Foru Aldundiak Joaquin Maria Lersundi diputatuaren bidez jasotzen zuen informazioa. 1814ko abuztuaren 23an Gorteek 1808ko maiatzaren 2tik zetorren iraultza ospatzeko agindua eman zuten. Urte horretan bertan, Gipuzkoako kapitain nagusi Jose San Juan jaun txit gorenak Errege

⁸⁶ Horretaz jakiteko, ikus RILOVA JERICÓ: "Patria defendida a sangre y fuego", 8-9. or.

⁸⁷ LUA C 5 III 1, 3 (45. karpeta), 1814ko apirilaren 27ko gutuna. Kondeari buruz eta Gipuzkoako alderdi liberalean izan zuen paperari buruz, ikus Arturo Cajalek egindako lan zehatza. CAJAL VALERO, Arturo: "Paz y Fueros". *El conde de Villafuertes. Guipúzcoa entre la "Constitución de Cádiz" y el Convenio de Vergara.*

⁸⁸ Oso gutxi ezagutzen den gertaera horri dagokionez, ikus RILOVA JERICÓ: "Patria defendida a sangre y fuego", 10. orrialdea.



Karlos VII.a Espainiako erregea (1873-1876)

Iturria: Kutxa Fototeka

Agindua bidali zion, eta bertan agintzen zen edozein iraultzaile –Villafuertesengatik eta haren antzera Cadizeko Gorteen aldeko jarrera agertu zutenengatik esaten zuen hori– armak eskuetan zituela Fernando VII.a despotak “sistema anárquico felizmente abolido” esaten zuenaren alde agertzen bazen, Batzordearen –militarra, jakina– esku utzi beharra zegoela. Hark behar bezala epaituko zuen, eta zegokion epaia betearaziko. Horixe zen Lezoko agintariek egunean bete behar zuten ia agindu bakarra. Azken batean, iraultza liberalak ez zituen lezoarrak Napoleonen inbaditzaileek baino askoz hobeto tratatu; beraz, haren zantzu guztiak ezabatu beharra zegoen.⁸⁹

Zerrenda zehatza zen, ez profil lausoko konspiratzaile batzuen zerrenda. Gibraltarko zelaitik zetozen espainiarrekin kontu handiarekin ibili beharko zela esaten zen ere dokumentuan. Espainiar haiek armak eta sedizioaren aldeko paperak ekarriko zituzten seguruenik, eta beren helburu bakarra sistema anarkiko hura, konstituziona-

la ere deitua, berriz ezartzea zen. Haietako batekin topo eginez gero, Lezoko agintariek Tolosan epaitzen zuen Batzordearen esku utzi behar zuten Manuel Maria Aranguren brigadierraren aginduetara zegoen jendaila iraultza zale hura.⁹⁰

⁸⁹ LUA C 5 III 1, 3 (45. karpeta), 1814ko abuztuaren 31ko gutuna. Lehenengo erreakzio absolutista horri buruzko ikuspegi orokorra izateko, ikus ARTOLA: *La España de Fernando VII*, 511-541. or. Brigadierrari buruz, ikus AGIRREZKUENAGAZIGORRAGA, Joseba: “ARANGUREN GAYTAN DE AYALA, Manuel María. Conde de Monterrón”, AGIRREZKUENAGAZIGORRAGA-SERRANO ABAD-URQUIJO GOITIA-URQUIJO GOITIA: *Diccionario biográfico de parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*, 162-163. or. Dirudienez, lehenengo erreakzio horretan berak desegin nahi izan zituen liberalen lerroa igaro zen handik urte gutxira. Dena den, beti ere moderatuen korrontekoa izan zen.

⁹⁰ LUA C 5 III 1, 3 (45. karpeta), 1814ko abuztuaren 31ko gutuna.

Lan honen lehen kapituluko bigarren zatian ikusiko dugun bezala, iraultza liberal hel-
duago eta sendoago batean amaituko ziren urteak hasten ari ziren. 1808ko eta 1814ko
iraultzak baino anarkikoagoa eta konstituzionalagoa zen, hori posible bazen, eta orduko
horretan, Lezok eta bere biztanleek askoz parte hartze handiagoa izan zuten. Modu horre-
tan, 1794. urtean frantsesen inbasioaren garaian aldatutako Askatasunaren arbolaren
itzala zein luzea zen erakutsi zuten orduan.

II. ATALA

KAUSA LIBERALAREN GAINBEHERA ETA GORALDIA

KARBONAROEN ZORIGAITZEKO PATUA. HIRURTEKO LIBERALA LEZON (1820-1823)

Harrigarria badirudi ere, izan ziren karbonaroak Euskal Herrian. Antza denez, Inkisizioak uste izan zuen, bederen, bere azken egunetan, Europan errege absolutuen aurkako iraultza sustatzen zuten ezkutuko gizarte horretako kide bat aurkitu zuela. Nola ez, garai hartan Gipuzkoan bizi ziren italiar urrietako batek bildu zituen susmoak.

Izan ere, izen hori italiarrik (*carbonari*) zetorren –*carbonario* gaztelaniaz–, eta liberal iraultzaile horiek beren logiak eta kideak hainbat etxeren azpiko ikaztegietan biltzeko zuten ohiturari egiten zion erreferentzia, han prestatzen baitzituzten Antzinako Erregimena eta orduko errege-erreginak, Eliza despotaren babesa zutenak, sunsitzeko egitasmoak. Joseph Antonio Gravina izozkigilea zen, Donostiako Casa del Cafe-ren jabea, eta aurreko ataletako batean ikusi dugun bezala, 1789. urtean Frantziako Iraultza miresten zuten asaldatzaileak biltzen zituen.

Hura eta haren emazte Susana Saciano, hasieran ostalari lanak –kafea, izozkiak eta jendeak eskatzen ziena zerbitzatu– bakarrik egiten zituztenak, galdekatu zituen Inkisizioak, karbonaro logia bateko kide ziren eta lehenago edo geroago Espainiako monarkia absolutuarekin amaitzeko azpilanak hasi zituzten jakiteko.

Paloma Miranda de Lagek, espediente hori aurkitu zuenak, adierazi zigunez, gauza gutxi atera zien Ofizio Santuak bi italiarrei. Izan ere, ezin izan zuten jakin karbonaroak ziren edo ez.⁹¹

Hala eta guztiz ere, ez zen hura azken aldia izango sekta politiko iraultzaile haiek Euskal Herrian bazirela entzuten zena. Eta Lezo ere ez zen izango, horien berri edukita, talde haietako kideak eta beste hainbat liberal babestuko zituen azken herria. Horiek horrela, egun argiz eta ikaztegietan gordeta egon gabe, ahalegin handiak egin zituzten haiek Europaren zati txiki horretako monarkia absolutuarekin amaitzeko. Kasu horretan, Karlos IV.aren seme Fernando VII.aren –traidore deitzen zutena– monarkiarekin, bere zikoizke-ria guztia erakutsi baitzuen hark erbestetik itzuli zenean, ikusi dugun bezala.

Dagoen dokumentaziotik atera daitekeenez, litekeena da guztia 1817 inguruan hasi izana, Fernando VII.ak bere burua errege absolutu egin eta hiru urtera. Orduan hasi zen fruituak ematen ideia iraultzaileak hedatzeko 1794 eta 1813 artean –bi iraultza eta bi inbasio izan ziren tarte horretan– egindako lana, eta askatasun arbola lezoarren artean ongi sus-

⁹¹ MIRANDADE LAGE: "Frantsesezko argitalpenak Gipuzkoan iraultzaren garaian-Las publicaciones francesas en Gipuzkoa en tiempo de la revolución", in ZZEE: Gipuzkoa duela 200 urte-Hace 200 años en Gipuzkoa, 37. or. Karbonaroena bezalako ezkutuko elkarteei dagokienez, ikus ARTOLA: La España de Fernando VII, 629-632 eta 674-676 or. Badira kutsu erreakzionarioa duten beste hainbat ere. Adibidez, aingeru hiltzailearen kasua. Azken horri buruz, ikus ARTOLA: Antigo Régimen y revolución liberal, 256. or.

traituta zegoela erakutsi zuen. Hura izango zuen oinarri 1876 arte luzatuko zen iraultza politiko ekonomiko eta sozialak, gutxi gorabehera gaur egungo gizartea ekarriko zuenak. Horiek horrela, Lezo ere gizarte haren zati bihurtu zen pixkanaka, 1817az geroztik piztu ziren prozesu haien bitartez.

Orduan entzun ziren, Fernando VII.aren erregimen zapaltzailearen pean oraindik, Lezoren eta haren inguruko espazio politiko guztiaren –probintzia, monarkia eta abar– egoeraren aurkako lehen protestak; izan ere, botere absolutua zuen berriz ere erregeak, Bonapartearren aurkako gerran mira egin bazioten ere.

Nahigabea zen nagusi. “¡Vivan las cadenas!” oihukatua zuten herritar xeheak ere nahi-gabetuta zeuden. Hainbeste makurtu ziren, non Fernando VII.aren aitona ere –Karlos III.a– lotsatu egingo baitzen iraultza aurreko errege izateko prezio hori ordaindu beharraz. Esate baterako, herri bakoitzeko gazte indartsu eta politikoki salduenak erregearen gurdiko zaldiak askatu, eta beraiek bultzatu behar izaten zuten hura, errege berriz ere absolutua herritik igarotzen zenean.⁹²

Lezoren kasuan, gutxienez, erraz aurkituko ditugu halako adibideak, bilatuz gero. Erraz aurki daitezke 1820ko iraultza liberalak, ordura arte ezkutuan egondako haren aldekoek piztu zutenetik, bertan –baita Fernando VII.a errege absolutuaren menpe zeuden lurralde zabaletan ere– aldekoak izateko izandako arrazoiak azaltzen dituzten agiriak.

Izan ere, nekez aurkituko zen monarkia absolutua mantentzeko ilusiorik herritarren artean. Jose Ramon Oiarbidek, adibidez, gutun lazgarria bidali zien Lezoko agintariei 1817ko ekainaren 8an. Nicolas Ramon Alzateren eskutik idatzitako gutun hartan zioenez, ezin zuen Lezoko Unibertsitateari alokatutako Eskolazarra baserriaren errenta ordaindu.⁹³

Zergatik? Oso arrazoi ona zuen horretarako, antza denez: hasteko, handiegia zen errenta, Fernando VII.aren mendeko bazterretako pobrezia orokorra (“exaustez general”) ikusita. Industria eta merkataritza (“tragino”) guztia etenda zegoen. Gainera, kontsumo gaien prezioa ikaragarria zen eta diru gutxi zegoen; horren ondorioz, miseria gorria zen nagusi, maizterrak Nicolas Ramon Alzateren bidez zioenez. Lezoren kasuan, larriagoa zen egoera, hango arrantzaleen harrapaketak txikiak izan baitziren garai ilun haietan.⁹⁴

Mota guztietako iritziak egon daitezke, noski, eta, agian, agiri honen ikuspegia gehie-gizkoa izan daitekeela pentsa genezake edo pentsatu beharko genuke, hau historia libu-

⁹² Hainbat liberal ere makurtu ziren hori egitera, baina iraultzako buru nagusietakoren bat omentzeko, noski. Kasu honetan, Riego komandantea eta Quiroga. Ikus, kasu baterako zein besterako, hurrenez hurren, ARTOLA: *La España de Fernando VII*, 847. or. eta BUTRON PRIDA, Gonzalo: “La fiesta revolucionaria en el Cádiz constitucional”, en DONEZAR, Javier María-PÉREZ LEDESMA, Manuel (arg.): *Antiguo Régimen y revolución liberal. Homenaje a Miguel Artola*, III. alea, 440-441 or.

⁹³ LUA C 5 III 1, 3 (Karpeta 45), 1817ko ekainaren 8ko gutuna.

⁹⁴ LUA C 5 III 1, 3 (Karpeta 45), 1817ko ekainaren 8ko gutuna.

rua baita. Kontuan eduki behar da Nicolas Ramon Alzate, maizter gutxi gorabehera analfabetoaren gutuna idatzi zuena, Lezoko iraultzaile nagusietakoa izango dela gerora. Erreakzionarioen helburuetako bati zango da, lehen iraultza horrek, 1820tik 1823ra luzatuko denak, porrot egiten duenean, hemen aurreratuko ez ditugun hainbat arrazoi-rengatik.⁹⁵

Litekeena da, haren ideia ultraliberalek bultzatuta –horren antzeko zerbait nabari da gutun hori idazteko erabilitako estiloan–, egoera zena baina okerragoa zela sinetsarazi nahi izatea Fernando VII.ari leial zitzaizkion agintariei. Zalantzarik gabe, Jose Ramon Oiartide ere ados egon zitekeen asmo harekin, giro politiko nahasi hartan onuraren bat lortzekotan; adibidez, ordaindu beharreko errenta murriztea.

Hala eta guztiz ere, eta ardura guztia hartuta ere –ezinbestekoa da hori Historia idazteko orduan–, bilatzen jarraituz gero, laster aurkituko dugu bestelako agiririk, eta, Alzaterenak bezalako gehiegikeriarik gabe edota horiek eta guzti, horietatik ondoriozta dezakegunez –, errege absolutua kargutik kentzeko aukera eduki arte itxaron behar zutelako jasaten zuten Lezoko herritar askok errege absolutuaren erregimena.

Horixe izan liteke, antza denez, Lezoko Ardalakunza baserriko Ignazio Etxebesteren kasua, ez baitzuen hark inolako konpromiso politikorik.

Arreba Bernarda Etxebesterekin bizi zen, eta hark eman zien agintariei anaiaren bizilekuaren berri; anaiak bazuen ezaugarri fisiko berezi bat: haren ezker eskuineko hatz luzearen punta gainerako lau hatzetakoak baina askoz ere lodiagoa zen.⁹⁶

Absolutismoaren menpe zegoen Lezo hartako agintariek hura non zegoen jakin nahi zuten, horixe galdetu baitzien probintziako kapitainak; izan ere, Ignazio Beristigi izeneko batekin nahasi zuen hark, baina Lezoko errejidoreek jakinarazi ziotenez, han ez zen halakorik. Ez, behintzat, 1818. urteko biztanleen artean.⁹⁷

Haren arrebak zekienak erakusten duenez –Nicolas Ramon Alzate bezalako inolako bitartekariren beharrik gabe–, egoera nahiko zaila zen monarkia absolutistaren menpeko herritarrentzat eta, esan bezala, urte gutxitan iraultzak hartuko duen indarra eta izango duen arrakasta ulertzen laguntzen du horrek.

Bernarda Etxebestek gauza bakarra zekien: anaiak bizibidea bakarrik bilatzen zuela, eta ez zuela zorte handiegirik izan Bonapartetarren aurkako gerraren garaitik. Garai hartan hirurogeita sei buruko artaldea zuen. Horietako batzuk Ignaziorenak ziren, eta beste-

⁹⁵ Monarkiaren garai hartako egoera objektiboari dagokionez, ikus ARTOLA: *La España de Fernando VII*, 542-669 or., zehatz-mehatz aztertzen baita hori hor.

⁹⁶ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1818ko maiatzaren 4ko orria.

⁹⁷ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1818ko maiatzaren 4ko orria.

ak, berriz, beste hainbat jaberrenak. Guztiak Etxalarko larreetara eramaten zituen bazkatzera, eta, Bernardak gogoratzen duenez, handik hartu zituen Castaños jeneralaren iloba buru zuen armada askatzaileak 1814an, inbaditzaileek fronte guztietan atzera egin eta Bidasoaren iparraldera erretiratu zirenean, inolako kalte-ordainik pagatu gabe. Egoera hura gobernu absolutistaren hasieratik zetorren.⁹⁸

Anaia berriz saiatu zen aberasten, beste ardi multzo bat errentan hartu eta haren ordain, irabazien erdia bakarrik hartuz. Horretan ere ez zuen izan Fernando VII.aren agintaldi zoragarriaren menpe bizituta espero zitekeen arrakasta. Arrebak zioenez, behintzat, Ignazio lan bila irten zelako ez zegoen etxean haren bila zebiltzanei harrera egiteko.⁹⁹

Istorio honek, orduko gizarte maila apalen ahotik berresten du Fernando VII.aren erregimenak garai hartan zituen arazoak.

Garai ilunak ziren, zinez. Eta ez zen beharrezkoa Nikolas Ramon Alzate bezalako liberal amorratu baten maltzurkeriak maizter ez oso argi batek eskainitako aukera aprobezta zezan. Ignazio Etxebesteren istorioa oso esanguratsua zen, baina baita erantzun absolutistaren ustezko onuradunetako batek handik gutxira kontatutakoa ere. Erregimen absolutistako funtzionario hark ere gabezia betetako gizarte baten egoera irudikatu zuen, Fernando VII.ak, despota izateko gaitasuna bakarrik zuenak, ezin konpon zezakeena.

Garai hartan Lezoren jurisdikziopean zegoen Gaintxurizketa gainean izan zen bidelapurren erasoetako bat. Arropa nabarrekin jantzitako gizon bakar bat izan zen erasotzailea –jantzi horiek oso arruntak ziren baserritarren artean XVII. mendearen hasieratik XIX. mendearen erdira arte–. Zapi batek estaltzen zion aurpegia, eta lapurtu egin zion lekukolari, Simon Iriarte jaunari –Karlos III.aren ordena zuen hark, eta Irungo Postako zuzendari eta administrari ere bazen; beraz, absolutista–. Hainbat dobloi eta oihalezko poltsiko batean zeraman Italiako txanpon bat kendu zizkion. Karabina “muy luciente” batekin eta pistola batekin mehatxatu zuen. Gaztelania mordoiloz aritzen zen. Hitzik gabe geratu zenean, tiroka hasi zen. Bi egin zituen zehatz-mehatz, baina airera, gizona beldurrarazteko. Hainbat baserritar ohartaraztea besterik ez zuen lortu: Martin Olaizola eta une hartan Zapatazarren lanean ari ziren beste bi gazte, hain zuzen.¹⁰⁰

Horrelako lekukotzekin, sistema absolutistako goi funtzionarioei ere mesede egiten ez dietenekin, ez da harritzekoa Lezon eta beste hainbat tokitan erantzunik ez izatea 1820ko urtarilean Armada, 1789ko iraultzaren ondorioz piztutzako altxamendu koloniala menderatzera abiatutakoa, Andaluziako portuan errege absolutuaren aurka altxatu zenean.

⁹⁸ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1818ko maiatzaren 4ko orria.

⁹⁹ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1818ko maiatzaren 4ko orria.

¹⁰⁰ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1817ko abuztuaren 4ko eta 7ko orriak. Napoleonen inbasioaren aurreko eta ondorengo bidelapurren fenomenoari dagokionez, lan honetako 60. oharrean adierazitako bibliografiara jo dut.

Garbi dago Espainiako Monarkiak arrakasta handiak erdietsi zituela borroka hartan. Eta sei urtean Frantziako Armada inperialaren aurka borrokatu ondoren nekeak jota egon arren erdietsi zuen arrakasta, baita aurrean britainiar aliatu izandakoak edukita ere. Itxura denez, orduan, 1820an, nahiago izan zuten Espainiako erregeak Ingalaterrako kolonia matxinoei emandako laguntza aintzat hartu, Monarkia hark berak Britainia Handiko erregeari Napoleonen aurkako gerran arazo larri batetik ateratzen lagundu ziola gogoratu baino. Izan ere, tropak, baliabideak eta base bat eskaini zizkion, bestela edukiko ez lituzkeenak. Amerikako garaipenak eta horien arazoak ongi ezagutzen zituzten Lezoko herritarrek, irakurri berri ditugun agiriak irudikatutako koadro orokorarekin kontrastean zeudenak. Horiek horrela, 1816. urtean, errejidoreek jakin zuten erregearen tropek Cartagena de Indias hartu zutela menpean, Hego Amerikarako atzetat zeukatena. Garaipen haren-gatik Jainkoari eskerrak emateko, elizan Te Deum-ak kantatzeko eskatzen zien errege despotak.¹⁰¹

Hala eta guztiz ere, garaipen haiek ez ziren nahikoak izan haien atzean zegoena ezkutatzeke. Amerikako gerran jarraitzeke bidalitako tropen komandante Rafael del Riego asturiarrak –hari zor zaio himno errepublikanoaren izena– Atlantikora eramango zuen ontzietan sartu aurretik jakin zuena bezain jasanezina zena.

Fernando VII.aren absolutismoaren aurkako altxamendua soldaduen aurrean justifikatzeko, ontzi erdi usteldu eta desinfektatu gabekoez, eta janari galduez mintzo da militar liberala bere idatzian. Iraultza nola hasi zen eta zergatik lortu zituen hainbeste jarraitzaile egun gutxian erakusten du horrek.¹⁰²

Cadizko San Fernando hirian Rafael del Riegok aipatzen duen “chispa eléctrica”, aber-tzaletasunaren indarrarekin Penintsula osoa zeharkatu zuenak, Lezon ere izan zuen isla.¹⁰³

Esku artean ditugun agirien arabera, isilpean gertatu zen hori. Martxoaren 31rako bazekiten erregeak 1812ko Konstituzioa zin egin zuela, eta handik aurrera Monarkia Konstituzioaren bidetik joango zela eta bide hori markatzen lehena bera izango zela esan zuela.¹⁰⁴

¹⁰¹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1816ko apirilaren 1eko gutuna. Amerikako kolonien birkonkistari dagokio-nez, ikus HERNANDEZ SANCHEZ-BARBA, Mario: “La independencia de la América española (1810-1825)”, in ZZEE: *La España de Fernando VII*, II. alea, 151-248 or.

¹⁰² Kantsultatu DELRIEGO, Rafael: *La revolución de 1820, día a día. Cartas, escritos y discursos*, 36. or. Alberto Gil Novalés irakasleak egindako bilketa, Espainiako politikan funtsezkoa den une hau ulertzeko ezinbestekoa dena. Errusiako ontzien inguruko negozio kaskarrari dagokionez, ikus ARTOLA: *La España de Fernando VII*, 634-635 or. Erregearen politika absolutistaren ondorio zuzena zen; horrexegatik zuen beste gobernu bat –ganbera– ezkutuan, benetako gobernutik aparte eta, askotan, kasu honetan bezala, gobernuak ganberako kideen aurrean hobeto edo okerrago defendatzen zituen interesen aurka aritzen zena.

Ikus, halaber, VARO MONTILLA, Francisco: “El mariscal de campo Sarsfield y la represión del pronunciamiento del Palmar”. Lan honetan, Riegoren garaipenaren aurretik zegoen giroa islatzen da, 1819ko ahalegin ustelaren bitartez.

¹⁰³ DELRIEGO: *La revolución de 1820, día a día*, 82. or.



Lezo XIX. mendean
Iturria: Kutxa Ondarea

Urte hartako maiatzaren 4an, hura egia zela erakusten zuten udal agiriekin, Fernando VII.aren ahotik irten zen arren; alegia, ez zela zurrumurru hutsa. Aldaketak benetakoak ziren. Lezon, udalbatza berria hautatu zuten. Egia da hitza eta botoa zuten bizilagunak Espiritu Santuaren mezara –Antzinako Erregimenean hain ohikoa– joan zirela aurretik. Garai hartan ohikoa zen elizkizun hura, arazo larrietarako laguntza eskatzeko; gerra kontseilurako, adibidez. Ezin dugu ahaztu, ezta ere, apaizak izaten zirela hautaketa haietan; arrazoiren bategatik, 1812ko liberalismoak ez zion horri uko egin nahi, nahiz eta 1789an Frantzian hasitako iraultza sakona ekarri.¹⁰⁵

¹⁰⁴ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1820ko martxoaren 31ko agiria.

¹⁰⁵ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1820ko maiatzaren 4ko agiria.

Hala eta guztiz ere, hautaketa hura Gorteek 1812an onartutako Erresumako Konstituzioaren 3. tituluko 3. kapituluaren arabera egin behar zuten. Guztiz berria zen hura, eta ordura arte Lezon apenas ikusi gabeko agertoki politikoa erakusten du. 1820ko iraultzak ekarritako aldaketen isla dira, halaber, hautesleak ugalduta izana eta, batez ere, udalbatza izen berriak ikustea. Horixe da, hain zuzen, Joan Ignazio Aiestaran errejidorearen kasua, nahiz eta ordura arte, haren familia goi mailako politika hartatik kanpo egon.¹⁰⁶

Baina izenek ez ezik, hizkuntza politikoak erakutsiko du iraultza liberala nagusitu dela Lezon. Agiriek erakusten dutenez, erabateko aldaketa izan zen gobernatzeko moduan, 1794tik ikusten ez zena, Frantziako Iraultzako soldaduek beren egutegi eta aldarrikapenekin Unibertsitatea hartu zutenetik.

Hauteskunderen aurreko 1820ko apirilaren 30eko bileran ikusiko dugu aldaketa. “Herritarrez” mintzo dira. Hau da, iraultzaileek 1789tik aurrera erabilitako lexiko darabilte. “Herritar” gisa erabakiko zuten udalbatza berria 1812ko Konstituzioaren arabera hautatu-zutela aurki.¹⁰⁷

Denboran aurrera egina hala, ohikoa bihurtuko da jokaera hori; printzipio iraultzaileak diren hitz horiek arruntak bilakatuko dira Lezoko udaletxean. Horiek horrela, 1822ko otsailaren 3ko batzarreko agiriak dio herritarren bileraren helburua dela “tratar y resolver los asuntos tocantes al servicio de la Nacion y bien de esta Republica”.

Nazioa, Frantziako iraultzatik ekarritako termino politikoa hori ere; bai, behintzat, Lezoko agiriaren testuinguruan.¹⁰⁸

Handik aurrera guztia aldatuko da, ez hizkera bakarrik. Hasteko, Hondarribiaren menpetik askatuko da Lezo. Agiriek erakusten dutenez, ez dago jada herri horren menpe. Ezta ordena zibil berria babestu behar duen indar militarren antolamendua bezalako gai garrantzitsuetan ere.

Arlo ekonomikoan ere aldaketak erabatekoak izango dira. Horiek horrela, Garai hartako Lezoko industria nagusia, arrantza, merkatu librea zabalduko da. Harrapaketak ongi egoztez eta osasunarentzat arriskutsu ez izatez bakarrik arduratu beharko dute handik

¹⁰⁶ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1820ko maiatzaren 4ko agiria. Erraz egiazta daiteke hori, udal agiriak begiratu gero; izan ere, 1607. urtetik Lezon izandako errejidoreen eta bestelako enbriak biltzen dituzte horiek, eta abizen hori ez da ageri udaletxeko lehen bilera iraultzaile hartaraino. Ikus LUA A 1 1, 1 (Karpeta 1) eta LUA A 1 1, 2 (Karpeta 1).

Iraultza liberalak Gipuzkoan izan zuen garaipenari buruzko xehetasunak jakiteko, ikus LLANOS ARAMBURU, Felix: *El Trienio Liberal en Guipúzcoa (1820-1823): antecedentes de las guerras Carlistas en el País Vasco*.

¹⁰⁷ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1820ko apirilaren 30eko agiria.

¹⁰⁸ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1820ko apirilaren 30eko agiria.

aurrera Lezoko arrantzaleek. 1820ko uztailaren 12an jakinarazi zituzten aldaketa horiek guztiak, gremioen arteko antzinako mugekin hausten zutenak.¹⁰⁹

Iraultza hark aldekoak aurkitu zituen, noski, Lezon. 1820ko neguan hasitako iraultza hura babesteko modua –armak erabiliz– eztabaidatzeko egindako bileretako agirietan, askatasun berri haiek mantentzeko odola emateko prest zeuden lezoar ugariren izenak agertzen dira. Benetan beharrezkoa zen hura, iraultza hasieratik jarri baitzuten zalantzan errege absolutuaren aldekoak.

Lezon ere borroka honetan sartuta ibili zen eta iraultza liberalaren aldeko jarraitzaile ugari eman zituen.

Borroka isil hari buruzko lehen berriak –azkenean Fernando VII.ak, tirania inolako mugarik gabe berreskuratzeko gogoz zegoenak, izango du berriz ere botere osoa–, 1821eko apirilkoak dira. Beraz, erregimen konstituzionala onartu eta urtebete geroago-koak.

Buruzagi politikoak –errejidoreen irudia ordezkatzen zuen; hura zen erregeak Gipuzkoan zuen ordezkarria– erabaki zuen Oiartzungo errejidoreek igorritako gutuna udal-letxe guztietara bidaltzea. Tropa liberalek Fernando VII.a errege absolutu egitearen alde zeuden taldeak zapaltzeko egindako ahaleginak txalotzen zituzten haiek gutun horretan.

Aguraindik (Araba) heldutako matxino taldeak ziren horiek –halaxe deituko diete garai hartan, 1939ko II. Errepublikan galdu arte–, eta Oñatitik igaro ziren Bizkaira, Otxandiora hain zuzen.¹¹⁰

Borroka latza izan zen haiekin, gutuna idatzi zuenak xehetasun askorekin kontatzen duena; azkenean talde absolutistak galdu zuen, eta kide haietako asko harrapatu zituzten.¹¹¹

Tamalez –askatasunaren aldekoentzat, batik bat–, agintari iraultzaileen aurkako borroka luzearen atariko baina ez zen hura. Handik gutxira, buruzagi politikoak, Vilafuertes kondeak –iraultzaren alde ez bazegoen ere, 1812ko Konstituzioaren eta horrek ordezkatzen zuen liberalismoaren alde zegoen– beste gutun batzuk bidaliko ditu; haietan, baina, talde absolutistek frontea Gipuzkoarantz mugiarazi dutela ikusten da. Halaxe gertatuko da urtebete geroago, 1822ko maiatzaren amaieran.

¹⁰⁹ LUA E 6 1, 4 (Karpeta 82), 1820ko uztailaren 12ko agiria. Interesgarria da egoera hau beste itsas herrieta-koekin alderatzea. Zarauzkoarekin, adibidez. Ikus ARAGON RUANO-ALBERDI LONBIDE, Xavier: *Entre Allepunta y Mollarri. Historia de un pueblo marítimo*, 28-29 or.

¹¹⁰ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1821eko apirilaren 26ko gutuna. Monarkia konstituzionala ezarri duen 1820ko iraultzaren aurka altxatzen hasten diren taldeei dagokienez, ikus ARTOLA: *La España de Fernando VII*, 693-694 or.

¹¹¹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1821eko apirilaren 26ko gutuna.

Gutun horretan, zorionak ematen zizkien; izan ere, Lezoko boluntarioak Aiako mendietara igaro zirela talde absolutisten aurka borrokatzera esan zion Oiartzungo alkateak.¹¹²

Bi hilabete geroago, Oiartzunera igarotzeko eskatuko die buruzagi politikoak 1812ko iraultzan sinesten duten horiei guztiei; talde absolutisten kokalekuak izan zitezkeenak auri zitzaten eta horien eraso baten aurrean laguntza eskaini zezaten.¹¹³

Aukera hura ez zen oso zaila. Ordura arte, Euskal Herriko mendietan zebiltzan erreakzionario gutxi batzuen mehatxua bakarrik izan zena gero eta arrisku handiagoa bihurtuko da pixkanaka. Eta ez Oiartzunentzat bakarrik; Lezo ere kateak eramatea eta besteen lepoan jartzea atsegin duten matxino talde horien arriskupean egongo da handik gutxira.

1822ko uztailaren 30eko Lezoko udalbatzaren batzarrean argi eta garbi azaldu zitzairen, euskaraz eta gaztelaniaz, bilera hartara inguratu ziren guztiei. Berriz ere, militar eta paramilitar –izen hori eman diezaiokegu, lasai asko, 1820ko iraultzaren arrakastaren ondoren agintari berriek antolatutako Milizia Nazionalari– guztiak mobiliza zitezten nahi zuen buruzagi politikoak, matxino oro akabatzen lagun zezaten. Horixe zen hark eta Foru Diputazioa ordezkatu zuen Diputazio Probintzialak hartu zuten erabakia.¹¹⁴

Une hartan ari zen sustraitzen eta fruituak ematen, halaber, 1794an Lezon inbasore gisa sartu ziren Konbentzioko soldaduek beren erara aldatu zuten Askatasunaren arbola.

Lezoko alkateak oso argi zuen bere betebeharra; erregimen liberala kentzeko ahaleginetan urteak zeramatzatenak akabatzeko, buruzagi politikoari eta Diputazioari ahalik eta gehien laguntzea eskatzen zaio. Horrenbestez, errege absolutuaren aldekoen aurka borrokatzeko, bakoitzak zituen armen inbentarioa egiteko eskatuko die udaletxera hurbildutakoei.¹¹⁵

Han zeuden gainerakoek ere oso garbi zuten hura. Erantzuna benetan beroa izan zen. Askok ziren, bai, iraultza liberalerako armak prest zituzten lezoarrak, 1820tik Gipuzkoako Milizia Nazionalarekin bat egin zuten lezoar urriekin batera.

Lezoarrei laguntza espiritualak emateaz arduratzen zen apaizetako bat izan zen bere arma kopuru txikiaren berri ematen lehena: Jose Ignazio Etxegarai, parrokiako bikarioa. Bi eskopeta zituen hark. Haren ondoren Jose Rafael Pikandia presbiteroaren txanda izan zen. Aurrekoak ez bezala, eskopeta bakarra zuen hark erlijioaren fanatikoen aliantza haren aurka egiteko; ikusten denez, hark eta Lezoko beste apaizaren uestez ez zen hura beraiek defendatu behar zutena, nahiz eta beraiek ere erlijiosoak izan.¹¹⁶

¹¹² LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1822ko maiatzaren 29ko gutuna.

¹¹³ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1822ko maiatzaren 29ko gutuna.

¹¹⁴ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1822ko abuztuaren 8ko agiria.

¹¹⁵ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1822ko abuztuaren 8ko agiria.

¹¹⁶ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1822ko abuztuaren 8ko agiria.

Jarraian, beste hainbat auzok eman zuten buruzagi politikoaren eta Diputazioaren agintean eta Askatasunaren banderapean borrokatzeko zituzten armen berri. Francisco Olarrak fusil bat zuen; Calixto Lizarazuk eskopeta bat; Nicolas Ramon Alzatek esan zuen –ikusit dugun bezala, 1817an Fernando VII.a aginte absolutuaren menpeko egoeraren inguruko kezak aurkezten lagundu zuen– Milizia Nazionaleko boluntario zela eta bi fusil zituela. Bata, milizia horretan 1812ko Konstituzioa babesteko erabiltzen zuena –Askatasunaren eta Heriotzaren artean hautatuz, haietako batzuek uniformean josten zituzten zintek zioten bezala–. Bestea, berriz, bestelako erabileretarako zuena; eskopeta bat ere ba omen zuen.¹¹⁷

Haren ondoren Lezoko beste apaizetako baten txanda zen, Jose Ignacio Arrieta presbiteroarena; eskopeta bat eta pistola bat zituen. Martin Jose Arañaburu zen hurrengoa; karabina bat omen zuen hark. Santiago Burutaran fusil baten jabe zen; Juan Ignacio Aiestaranek ere fusil bat zuen iraultzaren zerbitzura jartzeko. Manuel Sagarzazuk ere fusila zuen eta Jose Ignacio Lekuonak ere bai, liberalismoaren zerbitzura jartzeko.¹¹⁸

Pedro Jose Mendiak bezala; Jose Zapiainek eta Tomas Sorondok kanoia ebakita zuten. Hala eta guztiz ere, Joseph Ramon Zapiainek ebaki gabe zuen fusila, beste bi lezoarrek ez bezala. Eta Jose Luis Agirrek, Antonio Trekuk, Lorenzo Iraolak eta Martin Antonio Arregik bezala, “zahartuta” zuela zioen.¹¹⁹

Alkate konstituzionala, ordea, ez zegoen pozik. Iraultzaren alde borrokatzeko prest zeuden horrenbeste auzo eduki arren, armak hartzeko adinean zeuden Lezoko herritar guztiek armarik ez zutela ikusten zuen. Gainera, munizioa ere eskasa zen. Azkenean, arazoa konpontzeko bi gauza horiek Diputazioari eskatzea erabaki zuen.¹²⁰

Bilera hartan ikusiko da, argi eta garbi, Lezok eta lezoarrak iraultza liberalen garaian sartu zirela –iraultza defendatzeko beren armen berri eman dutenak bezala, ideal horren alde daudela ikusten da–, eta gizartean zatiketa ikusten hasten direla; arrunta zen hori 1789ko uztailaren 14ko iraultzaren ondorioak zituzten herrietan.

Beste hitz batzuekin esanda: Askatasunaren eta Konstituzioaren alde zeudenak ez ezik, arrazoi bategatik edo besteagatik absolutismo defendatzen zuten herritarrek zeuden Lezon. Hau da, 1789ko uztailaren 13ra itzuli nahi zutenak.

¹¹⁷ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1822ko abuztuaren 8ko agiria. Bere horretan utzi dut agirian agertzen den “Arañaburu” grafia, baina litekeena da Aranaburu abizena transkribatzerakoan egindako akatsa izatea. Milizia Nazionalari dagokionez, ikus ARTOLA: *La España de Fernando VII*, 674-726 or. Talde horren azterketa zehatzagoa, Madrilén izan zuen itxura, zehatz-mehatz, in PEREZ GARZON, Juan Sisinio: *Milicia Nacional y revolución burguesa. El prototipo madrileño* eta Gipuzkoako kasu bereziari dagokionez, LLANOS ARAMBURU: *El Trienio Liberal en Guipúzcoa*, 158-170 or.

¹¹⁸ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1822ko abuztuaren 8ko agiria.

¹¹⁹ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1822ko abuztuaren 8ko agiria.

¹²⁰ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1822ko abuztuaren 8ko agiria.



Juan Borboia eta emazte Margarita, 1860. urtearen inguruan
Iturria: Fototeka Kutxa

Horiek horrela, absolutisten aurrean auzoak ongi armatuta egoteko neurri zehatzak hartu eta gero, matxinoek Lezo har ez zezaten arduratuko ziren “konfiantzazko” taldeak osatzearen alde egin zuen alkateak. Argi eta garbi erakusten du horrek “konfiantzazko” bizilagun haien ondoan inolako konfiantzarik merezi ez zutenak ere bazirela. Batez ere, Lezoko muga haietan iraultza eta Monarkia Konstituzionala defendatzeari zegokionez.¹²¹

Bilera hartan horien izenik eman ez bazen ere, laster izango zen haien berri. Ikus daitekeenez, haiek, Monarkia Konstituzional hartako beste asko bezala, mozorroa kendu eta Monarkia Absolutuaren itzulera babesteko une egokiaren zain zeuden. Errusiako tsarrarena bezalako zen. Esan behar da, bide batez, tsarrak negozio bikaina egin zuela Fernando VII. arekin, hari, estatuaren kontura, Rafael Riegoren eta hark 1820an bidalitako soldaduen

pazientziarekin amaitu zuten ontzi erdi ustel eta zikin haiek salduz. Handik gutxira itzuliko zen berriz ere. Fernando VII.ak eta haren izaera zikoitzak –aukerarik txikiena izan zuenean erakutsi zuen bere izaera gaiztoa– Gobernu Liberalek emandako konfiantza erabili zuen Europako beste errege absolutu batekin –Karlos X.a, Frantziako jaun eta jabea– azpilanean aritzeko; halaxe izan zen Fernando ere 1820ko iraultza arte Espainian eta horren Amerikako kolonietan.

Negoiazioak azkarrak eta emankorrak izan ziren. Riegoren ereduak bere menpeko lurretan jarraipena izatearen beldur zen Karlos X.a, bere agintea kolokan jartzearena, ero-

¹²¹ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1822ko abuztuaren 8ko agiria.

so baitzegoen despota hura tronuan. Beldur hura ez zen funtsik gabea; Europako bigarren mailako hainbat monarkiak ere iraultzak pairatu zituzten, Espainiako liberalenak bezalako helburuak zituztenen aldetik. Berak ere konplota desegin behar izan zuen Armadaren barnean, eta hainbat sarjentu urkatu behar izan zituen Arroxelan, 1820ko neguan Cabezas de San Juanen lehertutakoa bezalako plan batean nahastuta egoteagatik. Beraz, 100.000 gizonez osatutako armada eskaini zion bere lehengusuari. Hala, Seo de Urgedik –erregeordealdi absolutista antolatuko zuten han handik gutxira–, Kataluniatik eta Bidasoatik barrena sartuta, iraultza liberalari irabaziko zioten; bestela, ongi finkatuta geratuko zatekeen Fernando VII.aren mendeko lurretan, Cadiztik Lezorainokoetan.¹²²

Angulemako dukearekin –armada erreakzionario haren burua– zihozten erregimen-tuen erregistroen arabera, zehatz-mehatz jakin dezakegu, ia, Lezora noiz heldu ziren.

Halaxe gertatzen da, adibidez, kanpaina hartan, Estatu Nagusiko kapitain Mesonanen kargu zegoenarekin, Burke –“Burke” gisa agertzen da hori Frantziako agiritan– teniente jeneralaren lehen laguntzailearekin.

Ofizial horrek idatzi zituen oroitzapen horiek, Coruñaren setioan bere zaldiak eragindako zaurietatik osatzen ari zela. Izan ere, Coruñan izango da iparraldeko liberalen azken aurre egitea, Armada ikaragarri harengandik ihesi baitzihoazen. Hain zen handia Armada, non horren azken unitateak lehenenak igaro eta hogeai egunera heltzen baitziren Bidasoara.¹²³

Kapitainak kontatzen zuenez, Castex bizkondearen dragoiak izan ezik, apirilaren 6an irten ziren denak Baionatik, Bidasoarantz abiatzeko. Urruñako gaztelu batean koartelertu ondoren –antza denez, Urtubia familiarena izan daiteke– apirilaren 6tik 7rako gaua zubi bat eraikitzen eman zuten. Hilaren 7ko goizean gurutzatu zuten hori, inolako erresistentziarik aurkitu gabe.¹²⁴

Halaxe jarraituko dute Lezo parera iritsi arte. Pasaian, Donostiako goarnizioak erantzun egingo dio San Luisen 100.000 semeen armadaren lehen taldearen erasoari. Aurrera jarraituko dute ondoren, eta Angulemako dukeari benetan erresistentzia gogorra egingo dion lehen lekuan bakarrik geratuko da: Donostian.¹²⁵

¹²² Frantziatik heldutako Angulemako dukearen armadaren inbasioarekin amaituko den absolutisten erantzunari dagokionez, ikus ARTOLA: *La España de Fernando VII*, 804-841or. Gipuzkoako gertakarien nondik norakoei buruz jakiteko –Monarkiaren lurralde hori izango da lehena armada erreakzionarioaren eraginak jasotzen–, ikus LLANOS ARAMBURU: *El Trienio Liberal en Guipúzcoa*, 447-486 or.

¹²³ Kanpaina honi buruzko Mesonan kapitainaren oroitzapenei dagokienez, kontsultatu Service Historique de l'Armée de Terre (SHAT) 1 M 805 (1). Unitateak Gipuzkoara –armada zapaltzailearen atzealdea– bi aste geroago heldu izanari buruz, kontsultatu SHAT 805 (2). Chastenay koronelaren agintepean dagoen lehen dragoi dibisioaren ibilbideak dio Bidasoara apirilaren 22an iritsi zirela. Egun bat pasatxo behar izan dute Hernani jotzeko. Hantxe zuten kuartel nagusia. Atzean utzi dute jada Lezo, erreakzioaren esku, noski.

¹²⁴ SHAT 1 M 805 (2).

¹²⁵ SHAT 1 M 805 (2). Donostiaren aurkako setioari dagokionez, ikus LLANOS ARAMBURU: *El Trienio Liberal en Guipúzcoa*, 504 or.

Ordurako, atzean geratua zen Lezo, eta Fernando VII.aren absolutismoaren menpe zegoen berriz ere. Laster nabaritu zen lehen iraultza autoktono horren porrota. Berehala kendu zituzten liberalak Udaleko karguetatik; hala ere, Donostiara joanak ziren horietako gehienak, Milizia Nazionaren erresistentziari eta gobernu konstituzionalaren aldeko soldaduei laguntzera, Angulemako dukearen ezpataren babesean absolutistek aurrera egin ez zezaten saiatzeko ari baitziren horiek. Berriz ere Lezora Antzinako Erregimena itzuli zela adierazten duen lehen seinale argia udal agirien liburuan agertzen da. 1823ko apirilaren 19koa Estatuaren zigilurik gabeko orri batean idatzi zuten; horixe zen, hain zuzen, 1820ko iraultzak beste hainbat pribilegiorekin batera ezabatutakoetako Gipuzkoaren pribilegioetako bat. Izan ere, liberalen iritziz Antzinako Erregimenaren usaina zerion horri. Horiek horrela, 1808 baino lehenagoko egoerara itzuli zen guztia. Berriz ere Hondarribiaren erabakien menpe geratzea esan nahi zuen horrek; beraz, litekeena da kontrairaultza babes-tu zuten lezoar asko aldaketaz damutu izana.¹²⁶

Boterean daudenak ere aldatu egingo dira, absolutismoaren garaipena erakusten duten seinale horiek guztiak biltzen dituzten orriak bezala. Juan Manuel Agirre hautatuko dute Nicolas Ramon Alzateren ordezkotako. Azken hori alde eginda zegoen, iraultzarekin amaiera arte jarraitzeko asmoz, segur aski.¹²⁷

Juan Manuel Agirre ez zegoen oso pozik eman zitoten karguarekin. Horrela jokatzeko izandako arrazoiak ez badakizkigu ere, postu hartarako gai ez zela-eta, dimisioa emango zuela esana zuen. Itxura guztien arabera, bete egin zuen esandakoa. Izan ere, hurrengo batzarrean, 1827 arte, gutxienez, Monarkia osoan absolutismoaren erantzuna bermatuko duen boluntario taldea sortzen denean, Diego Ignacio Etxegarai Lezoko kapitain kaboak, Jose Joaquin Salaberria errejidoreak, eta Rafael Alzelai eta Jose Zapien diputatuek sinatuko dute, eta horiek egongo dira agintean –Hondarribiaren menpe geratu ondoren benetako botereaz hitz egiterik baldin badago–. Alkate kargua iraganeko kontua da, noski, zapuztutako iraultzarena. Juan Manuel Agirrek izan ezik, horiek erabakiko dute boluntario talde hori sortzea; indarraren bidez, han guztia Monarkiaren gainerako lekuetan bezala egon zedin zaindu behar zuten horiek, 1808an eta 1820an ezer berezirik gertatu ez balitz bezala.¹²⁸

Handik aurrera, Lezo bete-betean sartuko da liberalismoaren zeinahi arrasto desagiteko prozesuan. Artxiboko fondoek oso argi islatzen dute hori.

Karbonaroen, franc-masoiaren, komuneroen eta iraultzaren eta askatasunaren alde borrokatu diren liberalen amaiera etorriko da, porrot egingo dute berriz ere; beste hainbatetan ere egin beharko dute, Monarkia Absolutistak Europatik ezabatuak izan arte.

¹²⁶ LUA A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1823ko apirilaren 19ko agiria.

¹²⁷ A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1823ko apirilaren 19ko agiria.

¹²⁸ A 1 1, 5 (Karpeta 1), 1823ko apirilaren 19ko eta uztailaren 13ko agiriak.

Lezoko agintariak gutunak jasotzen hasiko dira laster. Horietan, iraultza liberalaren usaina duen oro akabatzeko agintzen zaie.

1824ko abuztuaren 5ean, Angulemako dukearen armadaren inbasiotik urtebetera, erregearen zedula baten kopia jasoko dute. Bertan, barruti hartan franc-masoi, komuneroen eta halakoen isileko elkarteak debekatuta daudela jakinarazten diete, Fernando VII.aren mende geratutako guztietan bezala.¹²⁹

Horrelako agindu ugari jasoko dituzte hurrengo urteetan.

Horrela, isileko elkarte horien aurkako agindu hori emango diete berriz ere 1826an; izan ere, 1820ko iraultza ekarri izana eta, aukera edukiz gero, iraultza hura berriz ere indartzeko asmoa edukitzea leporatzen diete horiei. Agintariak gogorarazten zieten, 1825eko uztailaren 23tik irailaren 22ra agintarien esku zeuden elkarte horiei buruzko paperak biltzeko agindua eman zuen erregeak. Masoi, komunero, karbonaro eta "halakoen" elkarteen aurkako beste neurri bat zen, baita "abertzale" izeneko bileren eta elkarte horiekin loturaren bat zuten "liburuxka edo ekoizpenen" kontrakoa. Orduan bezala, orain ere gogorarazten zieten, interesgarria litzateke udaletxe konstituzionalako agiriak eta Milizia Nazionaleko, Batailoi Sakratuetako eta "iraultza babestea xede zuten bestelako taldeetako" kide izandakoen zerrenda bidaltzea. Konstituzionala izan zen Lezoko Udala ere 1820ko iraultzari esker. Garbiketa prozesua zen hori; izan ere, erregearen iritziz ez zen hark nahi bezala bete. Horregatik, zera gogorazi behar zitzaizkien agintariei –baita Lezokoei ere–: gehiago arduratzeko paper haiek guztiak biltzeaz, lehen zapalkuntza hartatik ihes egitea lortu zuten 1820ko iraultzaren eragileak zigortzeko. Aginduak bi hilabeteke epea ematen zien Fernando VII.aren mendeku nahia lehenbailehen betetzeko.¹³⁰

1827an, erregimen absolutista erabat finkatuta zegoela –atzerriko armada baten baionetan menpe dagoen gobernu egon daitekeen bezala–, iraultza liberalaren edozein arrasto salatuz, geldiaraziz eta zapalduz, erregimen hura mantentzera behartuta egongo da Lezo. Horiek horrela, portu edo mugetatik hurbil zeuden Monarkiaren gainerako herriei bezala, beren jurisdikzioa "Ocio de los españoles emigrados" izeneko liburuaren sarbide izan ez dadin zaintzeko agindu zieten Lezoko errejidoreei.¹³¹

Horrelako beste hainbat agindu helduko dira ondoren. Hori jaso eta denbora gutxira, adibidez, zaintza areagotzeko eskatuko diete, Monarkia Absolutistaren zerrenda beltzetan daudenak beren lurraldean ibil ez daitezen.

Hala, 1827ko apirilaren 6an, iraultzarekin lotura zuten hainbat lagun atxilotzeko agindu zieten Diputazio Absolutistako agintariak; zehazki, Errenteriako barrutiko ahaldun nagu-

¹²⁹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1824ko abuztuaren 5eko gutunak. Fernando VII.ak masoneriari eta horren kideko elkartei buruz zuen obsesioari dagokionez, ikus MORALES RUIZ, Juan José: "Fernando VII y la masonería española".

¹³⁰ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1826ko martxoaren 3ko gutunak.

¹³¹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1827ko martxoaren 30eko gutunak.



Gipuzkoako ekialdea 1816an.

España. Ministerio de Defensa. Archivo Cartográfico y de Estudios Geográficos del Centro Geográfico del Ejército. Cartoteca Histórica: F 2 3 267. Jose Brito sarjentuak egina.

Explicacion Cosmografica de las cuestas mas notables

En esta cumbre se ve una gran cantidad de
rocas de diferentes especies, y en algunas
de ellas se ven algunas plantas que son
muy raras, y en algunas de ellas se ven
algunos animales que son muy raros.
En algunas de ellas se ven algunas
plantas que son muy raras, y en algunas
de ellas se ven algunos animales que son
muy raros.

En esta cumbre se ve una gran cantidad de
rocas de diferentes especies, y en algunas
de ellas se ven algunas plantas que son
muy raras, y en algunas de ellas se ven
algunos animales que son muy raros.
En algunas de ellas se ven algunas
plantas que son muy raras, y en algunas
de ellas se ven algunos animales que son
muy raros.

En esta cumbre se ve una gran cantidad de
rocas de diferentes especies, y en algunas
de ellas se ven algunas plantas que son
muy raras, y en algunas de ellas se ven
algunos animales que son muy raros.
En algunas de ellas se ven algunas
plantas que son muy raras, y en algunas
de ellas se ven algunos animales que son
muy raros.

Plata y el 2.º de 1780



siak, polizia ordezkarri lanak egiten dituenak, eta probintziako ahalduen nagusiak, Peñafloresta kondeak. Horixe zen, esaterako, Francisco Placencia brigadierraren eta Rafael del Riego jeneralaren laguntzaile izandako Manuel Roblesen kasua. Altuera ertaina zuen azken horrek; argala zen, dotorea, eta “buenas patillas” zituen. Garai hartako moda erromantikoa jarraitzen zuen, eta kapa eta ilezko txapela janzten zituen gaez, eta “fraque (frac) negro, ó color de chocolate y sombrero de copa alta”, berriz, egunez. Horixe zen, halaber, iraultza garaian Santa Katalina gazteluko burua izandako Epifanio Mancharen kasua, eta baita garai hartan tokikoen batailoi baten komandante izandako Jose Eletxege morena, Miguel Benturarena edo Juan Calperena ere. Preso zeuden horiek guztiak, preso komunekin batera. Halaxe zegoen, baita ere, Juan Maria Barcarano izeneko Ermuko grabatzaile bat; 23 urte zituen, eta txikia zen. Ile marroia, begi marroiak eta azal zuria zituen, eta dirua faltsutu erabili izana leporatzen zioten. Astigarragako Jose Ramon Kereizaeta zen beste atxilotuetako bat; Santoñako lehen lerroko erregimentutik desertatu zuen. Hauxe zen hura ezagutu ahal izateko zekiten gauza bakarra: uniformeaz jantzita egon zitekeela oraindik.¹³²

Pertsona susmagarrien zerrendak etengabe agertu ziren Lezoko udal bulegoetan, noski. Horrelako berriak jaso eta handik gutxira, 1827. urtean bertan, beren menpeko lurra zaintzeko agindu zieten berriz ere Lezoko errejidoreei, Gibraltarren ezkatututako Aniceto Albano han zebilen jakiteko. Hala, “iraultzaile berria” zela zioen orriak; “mui reservado” omen zen, Monarkiako agintarien arabera.¹³³

Monarkia Absolutuak iraultza liberalarekiko zuen obsesioa –Lezoko herria eta bertako agintariak, 1820 eta 1823 artean gertatutako aldaketak ahaztuta zituztenak, iraultza horretan nahasi nahi zituen– areagotu egin zen, denborak aurrera egin ahala, Monarkia horren amaiera hurbiltzen ari zen bitartean.

Horiek horrela, 1830ean, uztailean Frantziako iraultza lehertu aurretik, Fernando VII.ari haren oinarri nagusietakoa kenduko ziona, honakoa eskatuko diete Lezoko agintariei: Londresen “El representane del pueblo” izenarekin argitaratzen zuten Frantziako egunkari “erdeinagarriaren” alerik sartzen ez uzteko beren lurraldean. Argitalpen horrek artikulu iraultzaileak zabaltzen zituen eta, horrekin erakusten duenez, herrialde guztietako demokratak –horixe da agindua idatzi zuenak iraina balitz bezala erabili zuen hitza– “están confabulados y de acuerdo entre sí” errege-erregina absolutuen kausari erasotzeko.¹³⁴

Zaintza hori ez da erregimenaren amaieran ere arinduko; alegia, erregea hiltzeko zorian dagoenean eta, une argi batean, bere oinordekoa alaba izatea erabakitzen duenean. Izan ere, horrek zuen erregina konstituzional izateko aukerarik handiena. Horren anaia Karlos,

¹³² LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1827ko apirilaren 15eko gutunak.

¹³³ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1827ko uztailearen 23ko gutunak. Sorgin ehiza egoera honi dagokionez, ikus GILNOVALES, Alberto: “España 1814-1834”, in MANIQUIS, Robert M.-MARTÍ, Oscar R.-PÉREZ Joseph: *La revolución francesa y el mundo ibérico*, 161-205 or.

¹³⁴ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1830eko maiatzaren 17ko gutunak.

aldiz, monarkia guztiz absolutuarekin jarraitzeko zen egokia. Gauzak horrela, zera jakin-arazi zieten 1832ko maiatzean: Bordelen lan egiten zuen konfiantzazko pertsona batek –espioi batek, alegia– Frantziako hiri horretan Mina jeneralarekin –iraultza liberalaren babesle nagusietakoa– biltzera joandako pertsona baten berri jakin zuela. Beraz, iraultzaileek berriz ere boterea lor ez zezaten, barruti hartako herriak ongi zaintzeko eskatzen zion ahaldun nagusiak Lezori. Paradoxikoa bada ere, Fernando VII.aren aginduz lortuko zuten haiek botere hori, hilabete batzuk geroago.¹³⁵

Ez gaitu ezerk harritu behar, Fernando VII.ak guztia bere emaztearen esku –ez anaiarenean, monarkia absolutuaren jarraipenaren bermatzailearenean– uztea erabakitzeak ez bada. Izan ere, hauxe ikusiko dugu estatu absolutistak iraultzaileen lorpen guztiak desegiteko ahalegin horretan etenik ez duela erakusten duten orri hauek arretaz begiratzen baditugu: ahalegin guztiak eginda ere, Fernando VII.ak ezin izan zuela sustraietatik atera 1823tik ongi finkatuta zegoen arbola, askatasunarena. Litekeena da helburu hori lortzeko herrialde osoa suntsitu ahal izatea. Ikusten denez, ez hura eta ez karguetan zeuden lekaio zikoitz asko ere, ez zeuden horretara heltzeko prest.

Jose Mujikak Gipuzkoako liberalei buruz egindako lan bikainean adierazi zuen bezala, adibide ona zen probintzia hori erreakzionarioek behin baino gehiagotan –hainbat arrazoiengatik: adiskidetasuna, familiarteko lotura eta abar– liberalei Monarkia Absolutuaren hamar urteko erregimen hartan moldatzen laguntzeko erabilitako bidea ikusteko. Hala, estatuaren egituraren barnean sartzen utzi zieten, hura barnetik erorarazteko.¹³⁶

Gipuzkoaren zati izaki, adibide ederrak eskaintzen dizkigu Lezok. Eta adi-adi begiratzen baditugu, guztiz egia da Jose Mujikaren tesia, liberalismoak bigarren erreakzio absolutistaren barnean ezkatututa biziraun izanaren ingurukoa. Bai, nekez ulertuko litzateke, bestela, Lezoko agintariek –oso ondo irakatsiak, ikusi dugun bezala– edozein iraultza ahalegin zapuzteko –Hondarribiakoei buruz ez mintzatzeagatik, haiek baitziren erabakigarriak–, inolako jaramonik egin ez izana 1827an Lezoko udaletxeko aretoan gertatutakoari. Izan ere, honakoa esan zuen Luis Antonio Arrietak oihuka eta han zeuden denak aztortuz: bera eta, absolutismoa boterera heldutakoan, erregearen aldeko Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako boluntarioak ordezkatzera etorritako gainerako foru tertzioetako kideak ez zirela “esclavos y otras cosas y gritos y alborotando à todos”.¹³⁷

Argi zegoen espiritu iraultzailea nahiko sustraituta zegoela sistema absolutistan, eta absolutismoak ez zuela erabakiko zorrotzago hastea haren aurka. Are gehiago, absolutis-

¹³⁵ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1832ko maiatzaren 21eko gutunak.

¹³⁶ Euskal Herrian, edo Gipuzkoan behintzat, absolutismoaren bigarren zapalkuntza hori ahultzeko moduari dago-kionez, ikus MUGICA, Jose: *Carlistas, moderados y progresistas*. Claudio Antón de Luzuriaga, 37-67 or. Interesgarria da hemengo egoera Fernando VII.aren mendeko gainerako lekuetakoarekin alderatzea; izan ere, Miguel Arbolaren arabera, Hirurtekoko liberalekiko mendeku eta kontu garbitzeak benetan gupidagabeak dira. Ikus, ARTOLA: *La España de Fernando VII*, 254-261 or.

moa mantentzeko ardura zutenek ere zerbaitek min ematen zienean diskurtso iraultzailea erabiltzen zutela ikusita; horixe gertatu baitzen, itxuraz, Luis Antonio Arrietarekin.

Horixe bera ondoriozta daiteke iraultzarekin hain konprometituta zegoen Nicolas Ramon Alzate 1829an agintari absolutisten aurrean salatu ez izanaz. Ondorio hori atera daiteke, bederen, 1823tik hain bilatua zena oraindik Hondarribiko alkateak, bi urte lehenago esklabo ez zirela aldarrikatzen zuten foru tertzioekin zorrotzegi izan ez zenak, alegia, ikertu behar izateaz. Izan ere, lotsagabetu egin zitzaizkion horiek gobernu sistema hari, sistema hartan inori "morroi" deitzea harro sentitzeko modukoa bazen ere, "iraultzaile" zirenekin alderatuz; orain, berriz, Alzateren jokaera politikoaren berri eduki nahi zuen alkateak; hark Angulemako dukearen aurkako borrokan izandako parte-hartzearena, baita 1820-1823ko iraultzan izandakoarena ere, erregimen absolutistaren sei urteetan ekintza horiei jaramon handirik egin ez bazitzaien ere, nahiz eta Alzatek erregimen hori tiroz hartu izan, Hirurtekoko Lezoko udal agiriek zioten bezala.¹³⁸

Horrelako hankasartzeekin, batzuetan agintarienak, ia-ia eskuak garbitzen baitituzte erregimen absolutista defendatu behar dutenen sedizio saialdien aurrean –horixe gertatzen da Hondarribiak eskatutako foru tertzioen 1827ko gertakariaren inguruko ikerketarekin–, edo oraindik ezkutuan –1829an eskualde buru den herriko alkatearentzat, gutxienez– jarraitzen duen liberal nagusienetakoaren berri emateko Lezok duen presarik ezarekin, normala da Fernando VII.aren agintaldia amaitu eta Monarkia Konstituzionala ezarzen dutenean, bazter guztietan horren aldekoak agertzea.

Ez ziren gertakarien ildoaren arabera taldez aldatzen diren aprobetxategiak. Garbi eduki beharreko gauza da hori. Egia esan, liberalak ziren armak eskuetan printzipio horiek defendatzeko prest zeudenak, inguruaren zati zen iraultza berriz ere geldiarazi nahi zuten aurrean. Gai honi buruz lan honen hurrengo atalean mintzatuko gara.

¹³⁷ Gertakari horri buruz, ikus RILOVA JERICO: *Dueño y señor de su estado*, 97-99or. Foru tertzioek erregearen aldeko boluntarioak, benetako "alkandora nabarrak", ordezkatzerakoan liberalen –tertzioetako kideen artean gordeak zeudenak– eta erreakzionarioen arteko liskarrak izan ziren; izan ere, erreakzioen aburuz erregearen aldeko boluntarioek bakarrik berma zezaketen absolutismoa, Jose Ignacio Telletxea Idigorasek erakutsi duen bezala. Ikus TELLECHEAIDIGORAS, Jose Ignacio: *Nacionales y realistas: un episodio donostiarra* (1827). Julio Arostegik, berriz, 1827. urte hartako liskarrei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen du eta, adierazten duenez, 1833 baino lehen ere Fernando VII.ak erregimen absolutista tronutik desegitea erabaki zuela erakusten dute; erregearen aldeko boluntarioen baztertzea da horren sintometako bat, hain zuzen. Ikus AROSTEGUI, Julio: "Carcas" y "Guiris". *La génesis del carlismo*, 61-63 or.

¹³⁸ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1829ko apirilaren 5eko gutuna.

GARAIPEN APALA. ESPAINIAKO AZKEN ERREGE ABSOLUTUAREN ONDORENGOTZA ETA LEHEN GERRA KARLISTA (1833-1841)

Iraultza liberalak 1823ko udaberrian galdutako lekua –Angulemako dukearen soldaduek iraultza, bestela indartuko litzatekeena, zapaldu zutenean– errekuperatu izanaren lehen seinalea Fernando VII.a hil eta berehala heldu zen.

Hasteko, Lezo herri independentea izango da berriz ere, eta halaxe izango da handik aurrera.

Hainbat artxibok erakusten digute aldaketa hori, Hondarribiak bere sorreratik, XIII. mendetik, zuen feudalismoaren amaiera ekarri zuena.

Hiriko artxiboak berak egiazta diezaguke hori lehenik eta behiz; izan ere, ordura arte ahalik eta aginterik handiena izan zuen Hondarribiak Lezorekiko. Horixe gertatzen zen Lezoko armadarekin ere 1827an ikusi dugun bezala, absolutismoaren aurkako iraultza bete-betean zegoenean, edo, batez ere, beren arteko auziak konpontzeko epaitegi bihurtzen zenean. Zera ikusiko dugu artxiboen aurkibideak adi-adi begiratzen baditugu: Fernando VII. hil ondoren kasuak Lezon epaitu zirela eta Hondarribiko artxibo judizialean ez dagoela Lezoko herritarrekin lotutako auzirik.

Lezok 1833an onartutako udal ordenantzek, Isabel II.aren izenean erregeordeak berresten dituenak, eta ez Hondarribiko alkateek, –Madrilgo Artxibo Nazionalean daude gordeta–, egiaztatzen dute hori. Alegia, iraultza liberalak lehen galdutako esparrua berreskuratu zuela ia egun batetik bestera, eta esparru hori handitu egin zela ere esan liteke.¹³⁹

Benetan azkar gertatu zen guztia. Garai hartan esaten zuten bezala, ezinbestekoa zen bizkor aritzea, erreakzionarioak ez baitzeuden prest erregearen anaia Karlosek, tronua gal zezan. Ez, behintzat, horri aurre egin gabe. Horiek horrela, kontrairaultza ere antolatu zuten.¹⁴⁰

Lezoarrak, liberalismoaren birusa oso barneratuta zutenak –erreakzionarioak liberalismo horren aurka altxatuko dira–, ez zeuden prest hori gerta zedin. Horien borrokak beste lekuetakoak baino gogorragoa eta azkarragoa izan beharko du, mehatxu bikoitza baitute.

¹³⁹ Artxibo Historiko Nazionala (AHN) Batzordeak 3943 / 9. Ikus, halaber, RILOVA JERICO: "Dueño y señor de su estado". *Un ensayo sobre la persistencia del feudalismo*, 99. or. Gipuzkoa osoko liberazio berankorrenetakoa da; izan ere, XVII. mendearen hasieran edo XVIII. mendearen erdi aldera izan ziren Hondarribia bezalako jaurerriak bereizteko prozesu gehienak; halaxe gertatu zen Irunekin eta Pasaiarekin, horiek ere Hondarribiaren menpe bazeuden ere. Prozesu horiei dagokienez, ikus TRUCHUELO, Susana: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*.

¹⁴⁰ Gerra honetako gertakariei buruzko ikuspegi orokorra edukitzeko, Euskal Herrikoa eta kanpokoa, BULLON DE MENDOZA, Alfonso: *La primera guerra carlista*. Desde otra perspectiva AROSTEGUI, Julio: "El Carlismo y la guerra civil", in ZZEE: *La era isabelina y el sexenio democrático 1834-1874*, 6-17 or.

Batetik, 1833tik aurrera karlistatzat hartuko dituztena, eta bestetik, berriz, Hondarribiarena berarena; izan ere, ñabardura txikiak egin nahiko ditu iraultza liberal horretan, legezko erreginaren aldeko agertu bada ere. Erregimen berriaren mozorropean Lezorekiko kontrola berreskuratzen lagunduko lioketenak, bestek beste. Helburu hori zuenez, Lezoko agintariei boterea berehala kentzeko eskatu zien Hondarribiko Udalak buru militarrei, inolako lotsarik gabe, udal ordenantzen bidez –erreginordeak berretsitakoak– independentzia lortu eta urtebetera, haiek karlistak zirela argudiatuz.¹⁴¹

Nekez sinets zitekeen hori –gezur biribila zen–, hainbat artxibotako agiri kontuan hartuta. Horietan ikusten denez, lezoarrek indar militarrekin erantzungo diete karlisten mehatxuari, hiri milizia talde berriak sortuko baitira Isabel IIaren monarkiari ekarriko duen iraultza liberalaren alde dauden hirietan. Talde hori edozer egiteko prest egongo da, karlistek beren helburua bete ez dezaten. Izan ere, 1789ko uztailaren 14ra arte indarrean egondako Antzinako Erregimenaren bertsioa are larriagoa ezarri nahi zuten haiek berri zere gizar-tean.

Artxiboetan Lezoko boluntario milizia horrek egindako gerra ekintzen inguruko agiri ugari daude. Horiek horrela, Hondarribiko agintariak Lezoren independentzia zapuzteko egindako ahalegin horretatik egun gutxira –karlistak izatea leporatu zieten Lezoko agintariei–, Donostiako Kapitaintza Nagusiak idatzi bat bidali zion Lezoko alkateari.

Idatzi horretan, zorionak ematen zizkion alkateari *Guadiana* bergantinekiko komandanteak Kapitaintzara helarazitako berriak zirela eta. Marinelak zioenez, Lezoko hiri milizia Erreteriarra joana zen hark han utzitako tropekin batera eta, hari esker lortu zuten Lezotik hurbil dagoen herri horretan gordeta zeuden matxinoak handik irtenaraztea.¹⁴²

Ikusten denez, hori ez zen nahikoa, baina, Hondarribiko agintarientzat, urte hartan bertan, apirilean, Lezoko udalbatzan espioi karlistak zeudela esaten jarraitzen baitzuten. Beraz, Lezok Hondarribiari bere lurretan matxinoak sartu direla esaten dionean –akordio bat baitzuten otsailetik hainbat herri liberalek, Irunek besteak beste, elkarri karlistek Gipuzkoan egindako urratsen berri emateko–, zera entzungo du Hondarribiak: Lezon bizi ziren etsaien aholkuak jarraituz sartuko zirela horiek, bidezko kausaren aurka baitaude horiek, eta amorruek eta mendekuek bultzaturik abertzaleak (“patriotas”) akabatzea baitzuten helburu.¹⁴³

Hondarribiaren hitz zorrotz horiek behin eta berriz gezurtatuko ditu, ordea, Lezoko boluntarioek osatutako miliziak, erreakzionarioek iraultzaren aldekoen –“abertzaleak”, Hondarribiaren hitzetan– aurka egindako edozein ekintzaren aurkako erresistentzia bortitzaren bidez. Izan ere, talde sutsua, zalapartatsua da hori iraultza liberala, 1793an hasita-

¹⁴¹ RILOVA JERICO: “Dueño y señor de su estado”. *Un ensayo sobre la persistencia del feudalismo*, 99. or.

¹⁴² E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1834ko otsailaren 19ko gutuna.

¹⁴³ E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1834ko apirilaren 7ko gutuna.



Pasaiaiko kaia eta Lezo Mirakruz gainetik ikusita, I.go gerrate karlistan. Henry Wilkinson-en grabatua.

ko prozesu geldoaren bidez gizartean finkatzen joan dena, defendatzeko orduan. Hala, apirilaren 7ko gauean, Hondarribiak berriz ere Lezok iraultza liberalarekiko zuen fideltasunaren inguruko zalantza pizten duenean, Lezoko miliziako hainbat boluntario Errenteriarra joango dira eta han, karlisten aurka mendekua –baita erronka ere– hartzea erabaki zuten. Izan ere, frontean egon beharrik ez eta, Lezora inguratu ziren haiek lezoarren ideia liberalak laidotzera. Kexu zen Poliziaren Gipuzkoako ordezkari Sebastian Arana, boluntarioak Errenterian sartu eta kalean kantari eta hango hainbat bizilagun irainduz aritu izanagatik (“cantando por las calles é insultando a algunas personas”).¹⁴⁴

Hain da handia liberalismoaren aldeko indarra, non liberalen ekintzak ez baitira Lezo ingurura edo alboko herrietara mugatzen, Errenteriarren kasuan ikusi dugun bezala. Lezoko boluntarioak prest zeuden iraultzaren alde bizia emateko eta, ondorioz, Lezotik urrun zeuden misioetan ere jartzen zuten beren bizia arriskuan. Horren adibide da, hain zuzen, 1834ko uztailaren 8ko lehorreratzea, Barojaren eleberri batekoa dirudiena. Debako portua zuten helburu, herri hartan bazela Karlos erregearen aldekoiei babesa ematen zien taberna bat jakin baitzuten Lezoko boluntario liberalek.¹⁴⁵

¹⁴⁴ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1834ko apirilaren 7ko gutuna.

¹⁴⁵ Ikus, RILOVA JERICO: “Dueño y señor de su estado”. *Un ensayo sobre la persistencia del feudalismo*, 100.or.

Ekintza nahiko arriskutsua zen. Portua karlisten esku zegoen, itxura denez. Eta haiek dezente zirenez, ez zen inor ausartzen haiei kontra egitera, hango aduana eskubideak eskatzeko eskubideari zegokionez.¹⁴⁶

Beraz, iraultzaren eta erreginarena urkako laido harekin amaitzea zuen xede Lezoko taldeak eta, fusilak hartuta, Debako portuan lehorreratu zen udako gau hartan. Lezoko boluntario horiek ospe handia zuten iraultzaren aldekoen artean, ausardia baitzuten iraultzaren etsaien bila joateko, horiek zeuden lekuan zeudela ere. Operazio haren berri emateko Diputaziora bidalitako txostenak dioenez, Deban zeuden karlista urriek beren buruaz beste egin zuten, tabernako leihotik behera jauzi eginda, Lezoko boluntarioen fusiletatik ihes egiteko eta ez zen ia haien arrastorik ere gelditu.¹⁴⁷

Karlisten aurkako borrokan izandako garaipen hori, baina, ez zen nahikoa. Horrenbestez, Deban zebiltzan erreakzionarioetako bakar bat ere harrapatu ez zutenez, Miguel Aranburu Onzas, aduanako karlistetako baten osaba, harrapatu beharko zuten. Hala, haren etxea miatu zuten, eta debekatuta zeuden hainbat arma –karabina bat eta makila-etzpata bat, besteak beste– aurkitu zituzten. Horiek guztiak eta Onzas bera agintariaren aurrera eraman zituzten. Hura bai garaipena komandantearentzat, 1817tik Lezon iraultzak irabaz zezan zain zegoen Nicolas Ramon Alzaterentzat, hain zuzen. 1820an eta 1823an ere egon zen prest iraultza horregatik hiltzeko, bere arma guztiak askatasunaren edo heriotzaren alde jarri baitzituen; orain, aldiz, Estatuaren eta Legearen babesarekin, eta 1789tik aurrera Europako gizartearen aldaketa ekarri zuen erreakzioaren eta iraultzaren arteko borroka hartako garaile izanik, 1812ko egitaraua ari zen betetzen berriz ere.¹⁴⁸

Borroka amaitu gabe zegoen, baina, nahiz eta lezoar ugari prest egon –Nicolas Ramon Alzate artean– Askatasunaren arbolari eta hark sinbolizatzen zuen iraultzari eusteko; orduan zuten monarkia Frantziakoaren edo Ingalaterrakoaren mailara hel zedin eta ahalik eta gehien aldendu zedin Errusiako autokraziatik, Isabel II.aren aitak hainbeste miresten zuenetik –erregina horren alde bizia emateko prest zeuden haiek, tronutik egindako iraultza liberalaren ordezkari baitziren–. Ameriketako Estatu Batuek Bilbon zuten kontsulak Washingtonera bidalitako gutunetan zioen bezala, garbi zegoen liberalak askoz ere gehiago zirela. Erreginaren tropei zegokienez, gutxienez. Hori ez zen nahikoa, halere; izan ere, erreakzionarioen hautagaiaren alde borrokatzen zirenek borroka erabakigarri oro saihesten zuten, mendiko bideei buruz zuten ezagutzari eta nekazari gehienek –“the generality of the peasantry”– ematen zien laguntzari esker. Horregatik ari zen herrialde suntsituta gera-

¹⁴⁶ RILOVA JERICO: “Dueño y señor de su estado”. *Un ensayo sobre la persistencia del feudalismo*, 100. or. Aduanei eta karlisten bestelako diru iturriei dagokienez, interesgarria izan daiteke URQUIJO GOITIA, Jose Ramon: “Empréstitos y ayudas financieras a favor del pretendiente carlista (1833-1834)”, in ZZEE: *Azterketa historikoak-estudios históricos I*, 107-127 or.

¹⁴⁷ RILOVA JERICO: “Dueño y señor de su estado”. *Un ensayo sobre la persistencia del feudalismo*, 100. or.

¹⁴⁸ RILOVA JERICO: “Dueño y señor de su estado”. *Un ensayo sobre la persistencia del feudalismo*, 100-101 or.

tzen borroka latz hartan. Horren guztiaren ondorioak Lezora ere helduko ziren, lehen gerra karlista hartan herri hori borroka gune izan ez bazen ere.¹⁴⁹

Lezoko talde liberal horien joan-etorriek asko lagundu zuten, agian, iraultza liberalak irabaz zezan erreakzionarioek planteatutako gerra ireki hartan. Hala eta guztiz ere, ez zen lagungarria izan herritarrentzat, karlisten esku geratuko baitziren 1834ko uztailaren 8ko gertaera hartatik urtebetera.

Berri txarra zen iraultzaren, Konstituzioaren eta Askatasunaren aldekoentzat. Dena den, gertakari hura gaurko ikuspegitik ikusita, errazago uler daiteke XIX. mendearen lehen hogeita hamar urteetan Lezoko gizartean gertatutako aldaketa ikaragarria.

Liberalak erretiratu ondoren, Lezo menpean hartu zuten funtzionario karlistek egindako zerrendek erakusten dutenez, lezoar ugari zeuden konprometituta iraultzarekin, 1789an Parisen hasi eta 1812an, Napoleonen aurkako gerran, Cadizko Konstituzioaren bidez, onartutakoarekin. Zerrenda horretan ageri dira Karlosen aldeko tropak eskualde hartan sartu zirenean zigor ez zitzaten Donostiara ihes egin behar izan zuten 46 lezoarren izen-abizenak. Paradoxikoa da, haien arbasoak 1794an bezala irten zirela kontuan hartuta. Halaxe irten baitziren haiek, Frantziako Konbentzioa, ideia liberal eta iraultzaileak ekaritzen lehena, Lezora heldu zenean. Orain, berrogei urte geroago, erbesteratu bihurtzen zituzten berriz ere ideia haiek.¹⁵⁰

Datu garrantzitsua da hori, batez ere kontuan hartzen badugu Irundik –hiri hori ere Karlosen aldekoen esku geratu zen 1834-1835eko karlisten ofentsiban– emigratutakoak 42 bakarrik izan zirela. Hau da, kopuru hori oso txikia da, hiri horretako biztanleria Lezokoa halako hiru zela kontuan hartuta. Zera ondoriozta daiteke, beraz, zerrenda horri buruzko datu horretatik: hori bazen karlisten fusilatzeetatik ihes egiteko besteko garrantzia zuten liberalen kopurua, ideia iraultzaileak ongi sustraituta behar zutela Lezon. Nahiz eta 1823ko kolpe absolutistaren ondoren nahiko ahalegin eskasak egin, San Luisen 100.000 semeen baioneten babesean, ideia horiek ezabatzeko.¹⁵¹

¹⁴⁹ National Archives and Records Administration (NARA). Dispatches from United States consuls in Bilbao, 1791-1875. Roll 1-Vol. 1, August 12, 1791-March 9, 1875, 1834ko maiatzaren 3ko mezua. Lehen gerra karlista horretako armaden ezaugarri fisikoei dagokienez -nolabait esateagatik-, interesgarriak izan daitezke Ramiro Larrañagak, Juan Pardo San Gilek eta Jose Carlos Iribarren Arizmendik 1900. urtean argitaratutako lanak. Ikus LARRAÑAGA, Ramiro: "El armamento durante la primera guerra carlista", PARDO SAN GIL, Juan: "Ejército carlista. 1839", IRIBARREN ARIZMENDI, José Carlos: "El uniforme y equipamiento de los combatientes de la guerra carlista", in ZZEE: *Azterketa historikoak-Estudios históricos I*, 129-149 or., 151-206 or. eta 207-232 or., hurrenez hurren. Ameriketako Estatu Batuen kontsulak deskribatutakoak bezalako gertaerei dagokienez, interesgarria izan daiteke John F. Coverdaleren ikuspegia. Ikus COVERDALE, John F.: *The basque phase of Spain's carlist war*.

Operazio militarrek Lezo "alboan" izan ziren, ikusiko dugun bezala. Lezo ingurukoei dagokienez, eta gero atal honetan adieraziko duguna utzi gabe, ikus ROQUERO USSIA, María Rosario: "La primera guerra carlista a través de sus protagonistas. *La línea de San Sebastián*", 153-253 or.

¹⁵⁰ AGG-GAO CA 204, orriak: 1,4 zuzena.

¹⁵¹ Irundik emigratu zuten 42 lagunengatik datuari dagokionez, ikus GABARAIN: "Evolución política de los valles del bajo Bidasoa y del Oiartzun (1808-1840)", 114-115 or.



Ofizial karlistak (1873-1876)
Iturria: Kutxa Fototeka

Lehenik eta behin, Lezoko apaizetako bi daude, gutxienez, zerrenda hain esanguratsu horretan eta, Gipuzkoako eta, oro har, Euskal Herriko klero ultraerreakzionarioaren inguruko topikoetatik –egiazkoak askotan– harago, apaiz liberalen zerrendako –ohikoak, 1812ko iraultzatik– haiek ez zuten arrazoi handirik Karlosen armadako soldaduei han itxaroteko. Juan Isasi Lezoko bikarioa –eta haren ama eta bi anaiak eta Rafael Pikandia ziren bi apaiz horiek. Haien ondoren, karlisten menpe egon nahi ez zuten, edo lehen gerra zibil hartan hain ohikoak

ziren epaiketa zorrotz haiek jasan nahi ez zituzten hainbat senide zeuden: Manuel Agirre eta haren familia, Maria Matxinena eta harena, Maria Ignacia Alzelairena, hura barne, eta baita honako hauena ere: Manuela Josefa Isasa, Angela Etxeberria, Matias Elizetxea, Maximina Sein... 152

¹⁵² AGG-GAO CA 204, 1, orriak: 4 zuzena. Kleroak iraultza liberalaren aurrean edukitako jarrera ikusteko, interesgarri aizan daiteke RILOVA JERICO: "Patria defendida a sangre y fuego", 11-14 or. Bertan, Gabriel Arranbide apaiz hondarribiarraren istorio bitxia jasotzen da; liberal sutsua zen, eta 1812tik aurrera, iraultza liberala Fernando VII.aren monarkia ekartzeko egindako azpilan eta konspirazio guztietan sartuta zegoen. Zalantzarik gabe, Frantziako iraultzaren helburuetara makurtu ziren errege katolikoaren morroi ugarietako bat; horrenbestez, leku garrantzitsua du Jose Manuel Fajardok horri buruz egindako liburuan. Ikus FAJARDO, Jose Manuel: *La epopeya de los locos. Españoles en la Revolución francesa*, 266 eta 269 or. Ez dira kasu bitxiak, noski. Horri dagokionez, interesgarria izan daiteke Julian Recuenco irakaslearen lana, Cuencaco Elizbarrutiaren Auzitegiari buruzkoa. Ikus RECUENCO PEREZ, Julian: "La represión contra el liberalismo desde el Tribunal Diocesano de Cuenca (1808-1823)".

Hala eta guztiz ere, nahiz eta horrelako adibideak egon, Euskal Herriko apaiz eta fraide gehienak ideia liberalen etsai izango dira. Horri dagokionez, ikus RODRIGUEZ DE CORO, Francisco: "Palpitación carlista de los conventos vascos (1834-1840)", in ZZEE: *Azterketa historikoak-Estudios históricos I*, 83-106 or.

Horiekin batera, "Erregearen legezko eskubideen aurka armak hartu dituztenen" izenak ere jarri zituzten zerrenda horretan Karlos V.aren gobernuko funtzionarioek. Zerrenda horretan ageri dira Bautista Zuzuarregi eta Nicolas Ramon Alzate erreakzioaren etsai, boluntario liberalen miliziaren komandante eta 1817tik gutxienez iraultzaile setatia. Ondoren hain ezagunak ez diren beste hainbat izen-abizen agertzen dira agirietan; hala ere, liberalismoarekin nahiko konprometituta behar zuten, Nicolas Ramon Alzate bezala. Nahikoa, karlismoaren zerrendan –beltza, batez ere– egoteko: Juan Jose Lujambio, Juan Jose Santiago eta Rafael Alzelai, Nicolas Aizkorreta, Jose Cruz Arretxe, Pedro Elizetxea, Jose Gabriel Martiarena, Olaizola familiako hiru kide – Martin, Jose Maria eta Jose Manuel–, Jose Joaquin eta Jose Garaño, Antonio Garbiso, Jose Juan Eizagirre, Nicolas Quinter, Jose Ignacio eta Jose Antonio Arrieta, Celestino Pikandia, Manuel Eusebio Sein, Agustin Oiarbide, on Jose Maria de Artodo –besteek ez duten "on" titulu hori merezi izateko bezain garrantzitsua–, Jose Cruz eta Joaquin Urrestarazu, Vicente Olló, Pedro Jose eta Jose Rafael Letamendia, Andres eta Juan Bautista Agirre, Isidro Lujambi, Jose Diego de Martiarena, Juan Alegre, Jose Antonio Irisarri eta Jose Maria Tinao. Abizen horietako asko ikusi ditugu lehen ere; Arrietatarrena, besteak beste, beren armak eskaini baitzituzten horiek Hirurtekoan absolutismoaren aurka borrokatzeko; horiek izan ziren, halaber, 1827an foru tertzioak aztoratu zituztenak; aurrerago ere aurkituko ditugu, 1873tik aurrera erreakzioaren eta iraultzaren arteko borroka honen amaiera heltzen denean, eta azken zatiketa bat gertatzen denean; liberalismoaren barnean izango da hori ere eta, berehala ikusiko dugunez, absolutismoaren aldekoen aurkako ia behin betiko garaipenarekin batera etorriko da.¹⁵³

Gauza gutxi gertatu ziren karlistek Lezo okupatu zutenean. Hiru urte bakarrik izan ziren eta artxiboetan ez dago horiei buruzko datu askorik. Hala ere, oso esanguratsuak dira dauden gutxi horiek. Batez ere herri horrentzat batere itxaropentsua ez den egoera bati buruzkoa. Izan ere, bigarren mailakoa bihurtuko da ideologia, eta egoera Konbentzioaren 1794ko eta Napoleonen 1808 eta 1813ko inbasioak, eta Bonaparteren aldekoak suntsitu eta kanporatu ondoren armada aliatuak luzatu zuena ekarri zituena izango da berriz ere.

Hau da, ordaina hartu ez ezik, dirua eta gizonak exijituko ditu okupazio armadak. Eta egoera ekonomiko penagarri baten erdian egingo du hori. Izan ere, gerra gutxi balitz bezala, uholdeak eta uzta eta arrantza harrapaketa eskasak izan zituzten orduan, horretan aritzen ziren gizon gehienak ihes eginda, fusilatuta edo bandoetakoren batean baitzeuden.¹⁵⁴

Gerrako gertakari nagusiak, izan baitziren halakoak, Ameriketako Estatu Batuek Bilbon zuten kontsularen gutunek, lehen aipatutakoek, erakusten zuten bezala, beste lekuetan izan ziren, borroka latza eta agerikoa zen tokietan. Laster izan zuen horren berri Lezoko alkate izandako batek, beste bederatzi *txapelgorriekin* batera fusilatu baitzuten armada liberaleko bere soldaduek Arabako frontean, lapurreta sakrilego batean parte hartu izana-

¹⁵³ AGG-GAO CA 204, 1, orriak: 4 zuzena.

¹⁵⁴ Ikus GABARAIN: "Evolución política de los valles del Bajo Bidasoa y del Oiarzun (1808-1840)", 108-115 or.

gatik; 1834ko gauean Erreterian gertatutakoa, atal honetan bertan ikusi berri duguna, dakarkigu horrek gogora.¹⁵⁵

Une epikoak geroago etorriko ziren eta, orduan ere, Lezotik urrun geratu zen frontea.

Bando liberalaren kontraerasoak Pasaiaiko portua berreskuratzea izan zuen helburu, nahiz eta 1836tik bando karlistaren aurkako ekiteko moduan egon, haren indarra mugatua izaki. Gertakari horri buruzko berri desberdin ugari daude, Maria Teresa Gabarainek gogorarazten digunez. Liberalei laguntzeko Donostiara bidalitako tropa britainiarren komandanteburu Lacy Evansen mezuek Zaragozako erregimentuaren zalditeriaren eraso bikainak aipatzen dituzte; baita 1836ko ekainean flota anglo-espainiarraren eta Santa Isabel gotorlekuaren artean kanoiekin izandako borroka ere. Tokiko prentsa frantsesak zioen, aldiz, une horretan badian sartzen ari zen Frantziako ontzi batean pabiloi frantsesean babesa bilatzera joandako nekazari gaizki armatu gutxi batzuen arteko liskarra baino ez zen izan hura.¹⁵⁶

Lezok hurrengo urtera arte itxaron behar izan zuen. 1837ko otsailean, Lezorantz eta Erreteriarantz beste urrats bat egitea erabaki zuten liberalek. Erresistentzia bortitza topatu zuten hor. Itsaso harroa zela eta, tropa erasotzaileek ezin izan zuten muniziorik jaso; gero ere, otsailaren 7an, *txapelgorri* liberalak berriz ere Lezora sartzen saiatzen direnean, erresistentzia handia aurkituko dute.¹⁵⁷

Hala ere, hainbat hilabete geroago liberalen esku geratu zen berriz ere Lezo; herritar asko oso gustura zeuden harekin. Maria Teresa Gabarainek bere azterketan adierazten duenez, Gipuzkoako ipar-ekialdearen 1808tik 1840ra bitarteko egoerari buruzkoan, Espartero jenerala –liberalismoaren adar iraultzailearen idoloa– beste eraso bat zuzentzeko asmoz etortzeak lagunduko du Isabel II.aren armadak Lezotik, alegia, maiatzaren 14a eta 15a artean tropa karlistek utzitako lineatik, haratago joan daitezten. Lehenago ere izan zitekeen; izan ere, Lezoko udal artxiboko hainbat agirik erakusten dutenez, Lezoko Gurutze Santua Nafarroako Arano herrira eramateko agindu baitzuen maiatzaren 12an Bartolome Zumalabe jeneralak.¹⁵⁸

¹⁵⁵ Gertakari horri dagokionez, ikus GABARAIN: "Evolución política de los valles del Bajo Bidasoa y del Oartzun (1808-1840)", 116. or. *Txapelgorriak* gerra karlistaren hasieratik herritar liberalen artean erreklutatutako talde boluntarioetako kideak ziren.

¹⁵⁶ GABARAIN: "Evolución política de los valles del Bajo Bidasoa y del Oartzun (1808-1840)", 116-117 or. Karlista taldeari dagokionez, lan honetako 149. oharrean aipatutako lanetara jo dut, Juan Pardo San Gilek, Jose Carlos Iribarenek eta Javier Ignacio Kerejetak sinatutakoetara, hurrenez hurren.

¹⁵⁷ GABARAIN: "Evolución política de los valles del Bajo Bidasoa y del Oartzun (1808-1840)", 117-118 or. Operazioak benetan epikoak dira hainbatetan. Behintzat, garai hartako hainbat agirik baliatuz Jose Mujikak bere lanean jasotzen dituen bezala. Ikus MÚGICA: *Carlistas, moderados y progresistas*, 138-149 or.

¹⁵⁸ GABARAIN: "Evolución política de los valles del Bajo Bidasoa y del Oartzun (1808-1840)", 117-118 or. Agirietako abizen aldatetari dagokionez, ikus LUA A 1 2, 2 (Karpeta 2), 1838ko urtarrilaren 15eko agiria; Fermin Arizkorreta eta Francisco Olasagasti ere ageri dira errejidore gisa, eta Manuel Sagarzazu, berriz, sindiko prokuradore nagusi gisa. Gurutze Santuaren leku aldatzeari dagokionez, ikus LUA E 4 IV 2, 10 (Karpeta 76). Ikus, halaber, AZPILICUETA OLAGÜE, Miguel: "La basílica del Santo Cristo de Lezo: estudio histórico-artístico", 283-284 or.

Berri zere liberalak berreskuratuta ondoren, ordea, ez dira aldaketa asko izango Lezon. 1834an ihes egindako edo iraultzaren eta Monarkia Konstituzionalaren banderapean borrokatzen direnen artetik hautatuko dute alkatea, noski. 1827an izan zen hautaketa eta Ignacio Maria Garbizu –Arbizu, Lezoko agiri liburuaren arabera– izendatu zuten alkate. Gainerakoan, gerraren ondorioak besterik ez zituen jasan herriak. Aldaketa bakarra zen herria garai hartan bando indartsuenaren eta ondoen hornituaren esku zegoela –Monarkia osoaren baliabideak ez ezik, Frantziako eta Britainia Handiko aliatuenak ere bazituen–, eta zapalketa 1835eko okupazioan karlisten buruek hartutako bidea ez bezalakoa izan zela; alegia, haren kontrakoa.¹⁵⁹

Horiek horrela, Garbizu alkateak, kargua hartu eta gutxira, idazkari bat hartu eta herri-tarrak deitu zituen, Karlosen alde borrokatzen zirenei ordaintzen zieten izenak hartzeko.

Hau da, funtzionario karlistek bi urte lehenago jarraitutako prozesu bera. Izenak bakarrik aldatuko dira. Oraingoan, zapaldukoak Granada Ega dukea edo erlijio korporazioak –Errenteriako komentu bat, besteak beste– dira. Horiek babesten dute hautagai erre-akzionarioa. Bai, behintzat, Lezori dagokionez.¹⁶⁰

Pertsona partikularren izen gutxi daude zapalkuntza jasaten duten horien artean. Lehen aipatutakoez gain, honako hauek agertzen dira: Manuel Joaquin Mitxelena, Jose Maria Etxegarai –azken horrek ihes egin du, baserria eta dituen lur eskasak suhiaren esku utzi-ta–, Jose Ignacio Lekuona, horrek ere konfiantzazko gizon bati –Manuel Joaquin Martiarena– utzi dio galsoroa, eta Francisco Maria Galarraga; azken horrek Dolores ahizparen esku utzi zuen etxea, bahitu behar zutena. Horien ondoren ondasun gehiago zituztenak daude; horixe da, hain zuzen, Iturralde, Jose Maria Urigoitia, Jose Maria Goikoetxea eta Clemente Zarateren kasua, baserri ugari baitzituzten. Zerrendaren amaieran, Lezoko kleroko onuradunetako bik –Juan Ignacio Lekuona eta Martin Jose Aranburu– jaso beharreko hamarrenak zeuden. Horiek, beren kide bikarioak eta presbiteroak ez bezala, bere egiten zuten apaiz “trabucaire” eta basatien topikoa, Frantziako edo tokiko iraultzaileak akabatzen zituzten gerrilla ultraerreakzionarioena.¹⁶¹

Zerrenda benetan interesgarria da Karlosen aldekoak zeintzuk ziren, eta horiek gizartean zer mailatan zeuden jakiteko. Zerrenda horretatik ondorioztatzen denez, horietako gehienak inolako ondare eta ondasunik gabekoak zirela, eta landako jabe gutxi batzuek finantzatzen zutela kausa hura.

¹⁵⁹ Lezoko alkate liberalaren hautaketari dagokionez, ikus GABARAIN: “Evolución política de los valles del Bajo Bidasoa y del Oiarzun (1808-1840)”, 121. or. Liberalak kanpotik jasotako laguntzari buruz –erabakigarria izan zen hori gerra haien alde jartzeko–, ikus CONDADO, Emilio: *La intervención francesa en España (1835-1839)* eta BORRAS Y RODRÍGUEZ DE LEÓN, Gonzalo: “La expedición Rodil y las legiones extranjeras en la primera guerra carlista”. Karlisten lortzen edo bilatzen duten laguntzari dagokionez, ikus URQUIJO GOITIA, Jose Ramon: *Relaciones entre España y Nápoles durante la primera guerra carlista*.

¹⁶⁰ AGG-GAO JD IT 3829, 6, 1837ko uztailaren 12ko agiria.

¹⁶¹ AGG-GAO JD IT 3829, 6, 1837ko uztailaren 12ko agiria.

Interesgarria da datu hori, funtzionario karlistek 1835ean egindako zerrendarekin alderatuta. Izan ere, karlisten zerrenda horretako gehienak maizterrak edo inguruko baserrien errentariak ziren; horixe da, esaterako, ihes egin zuten bi apaizetako baten kasua, Rafael Pikandiarena. Zerrendaren arabera, iraultzaileei zor zien postu hori, eta Eguzkibukar baserriaren uztaeren erdia kobratzen zuen; horiekin batera zeuden Donostian bizi ziren hainbat jabe; Isaac Goizueta, besteak beste; jatorriz Gareskoa (Nafarroa) zen, baina Donostiara ezkondu, hango milizian sartu eta Bordatxo baserria eta haren 900 errealeko errenta lortu zituen. Elias Legarda eskribaua zen besteetako bat; gorroto berezia zioten hari karlistek, eta kristinatar sutsu eta alderdi iraultzailearen babesle gisa hartzen dute; ez dakite ziur, ordea, iraultza armekin edo diruz bakarrik laguntzen duen. Diru kopuru horiek bere Behekoerrot eta Goikoerrot baserrietatik lortzen zituen, noski.¹⁶²

Hala eta guztiz ere, nahiz eta horrelako zerrendak eduki, mendekuzaleak ziren bi aldeak. Gerra hau amaierara heltzen hasten den heinean, baina, jarrera bateratzailea erakusten duten hainbat arrasto ikusiko ditugu bi alderdien artean, Europako beste hainbat lekutan bezala, herrialde, eskualde, hiri edo, kasu honetan bezala, herri baten –Lezo– kontrola lortzeko borrokatzen zirenen artean. Horiek horrela, 1838ko urtarrilaren 15eko ekitaldian Lezoko errejidore liberalek Gipuzkoako –liberalen esku, berriz ere– buruzagi politikoen mezu bat irakurriko dute –pozik, agian? –. Eta, urtarrilaren 13ko mezu horretan, karlisten ondasunak mailegatzeko baimena ematen zien.¹⁶³

Handik aurrera, etsaia tratatzeko erabiliko duten kontu handiak antz handia izango du 1839ko abuztuko Bergarako besarkadaren –traizioa, karlista sutsuenentzat– ondorengo bake luze baina urduriarena.¹⁶⁴

Egia da Gipuzkoako buru politikoak neurriak hartu zituela ekainean, Lezotik hurbil zegoen frontearen bidez “herrialde” karlistara kontrabandoa –artoa, artilea edo ahuntz-ilea– pasa ez zezaten; izan ere, truke hori egiteko lekuak zaintzeko agindu ziren talde ibiltariei, lan hori gerrako lehen lerrokoa bezain garrantzitsua zela pentsatuz.¹⁶⁵

Era berean, hura eta Bernardo Iturriaga komandante liberala karlisten agintariekin jarriko dira harremanetan, “gerraren kalteak” deitzen dituenak ahalik eta gehien murrizteko. Elkarrizketa horien ondorio izango da bandoei beren eraginpeko baserrietako uzta jasotzeko aukera emango dien su-etena. Epea abuztuaren 15eraino zen eta, hitzartu zuten bez,

¹⁶² AGG-GAO CA 23, 6. Datu bitxi honek zehaztu egingo lituzke Josep Carles Clementek Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo oinordegabetuei buruz egindako oharra; Oviedon, esaterako, karlistekin geratzen da hori. Ikusten dugunez, zerrenda batean zein bestean ditugu jabeak eta soldatapekoak. Egia da, ordea, karlisten zerrendan liberalenean baino ez-jabe gehiago daudela. Ikus CLEMENTE, Josep Carles: *Los carlistas*, 45-46 eta 59-62 or.

¹⁶³ LUA A 1 2, 2 (Karpeta 2), 1838ko urtarrilaren 15eko agiria.

¹⁶⁴ Gai honi buruzko lan bilduma interesgarri batek besarkada haren ondorioak ulertzen lagun dezake, in AGIRREZKUENAGA, Joseba-URQUIJO GOITIA, Jose Ramon (arg.): *150 años del Convenio de Bergara y de la ley del 25-X-1839*.

¹⁶⁵ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1839ko ekainaren 14ko eta 27ko gutunak.

bandoek ezin izango zuten erabaki bi lerroen –liberala eta karlista–arteko baserrietako uzta zein aldetara eramango zuten.¹⁶⁶

1839ko hasieran, talde karlista utzi eta Lezora itzuli direnen berri emateko aginduko dio Eustasio Amilibiak Lezoko alkateari. Lezoko alkateak laster emango dio horien berri, baina zera aginduko diote: ondasunak itzultzeko eta lasai uzteko Karlosen alde armak hartutakoei –Lucas Arretxeren semea, adibidez–, eta haien eta beren familien aurka inolako mendekurik ez hartzeko.¹⁶⁷



Iragarki karlista (1873-1876)
Iturria: Kutxa Fototeka

Keinu bateratzaile horiekin amaitu zen erreakzionarioek liberalismoa saihesteko egindako zazpi urteko gerra; alegia, haiek alderdi iraultzailea deitzen zutenak Monarkia kontrola ez zezan hasitakoa.

Hala ere, horrek ere ez zuen erabateko bakea ekarriko. Egia da, lan honetako hurrengo eta azken atalean ikusiko dugun bezala, karlismoa edo iraultzaileen kontrako erantzuna garaituta zegoela hainbat urterako.

Baina horrek ez du esan nahi etorkizunean erreakzioak aukera hobetik izango ez duenik liberalismoaren barnean eta kanpoan gizarte eta politika aldatetekin gustura ez dauden hainbat lagun aurkitzeko. Izan ere, aldaketa horiek azkarregiak izango dira, eta Historia 1789ko uztailearen 13ra eramateko prest egongo dira berriz ere asko eta asko.

¹⁶⁶ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1839ko uztailearen 13ko gutuna.

¹⁶⁷ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79). Joseba Agirrezkuenagak eguneratutako biografia labur batean ikus daiteke kargu politikoetan hasi aurretik karlisten lehen lerroan borrokatu zen muturreko liberal honen ibilbide interesgarria. Lezo inguruan aritu zen gainera; zehatz-mehatz, 1836ko Altzako eta Pasaiako borroketan. Ikus AGIRREZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba: "AMILIBIAEGAÑA, Eustasio", in AGIRREZKUENAGA ZIGORRAGA-SERRANO ABAD-URQUIJO GOITIA-URQUIJO GOITIA: *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*, 139-141or.

III. ATALA

ALKOLEAKO ZUBIKO SEGADA

IRAULTZAOSPETSUA ETA AZKEN GERRA KARLISTA (1868-1876)

Bergarako besarkadak ez zuen inor poztu, segur aski. Ez, behintzat, urtebete geroago ere Aragoiko frontean erreakzionarioen banderapean borrokatzen zirenak. Hala eta guztiz ere, eta Lezori dagokionez, Euskal Herriko asalatuak lasaitzen lagundu zuen. Hogeita hamar urtean. 1839tik 1872ko altxamendu karlistaraino.

Beste gauza bat ere lortu zuen besarkadak: absolutistak jokoan kanpo uztea ia behin betiko. Aragoiko erresistentzia menderatuta, gauza gutxi egin ahal izan zuen kontrairaultzak liberalismoaren –edo haiek beren agirietan alderdi iraultzailea deitzen zutenaren– aurka, menpean hartua baitzuten haiek Espainia osoa. Karlismoak ezin izan zion liberalismoari aurre egin, ez arlo politikoan, ez sozialean, ezta ekonomikoan ere; izan ere, nahiz eta liberalismoaren barnean zatiketak izan, aldaketa handiak egingo ditu horrek arlo horietan guztietan; 1808an hasitakoak ziren aldaketa horiek eta orain, –besarkada tarteko edo ez–, arerioari borroka zelaian irabazi ostean, inposatu egingo ditu, eta, liberalismoaren adar desberdinen ikuspegi desberdinek bakarrik –aurrerakoiagoak eta aldaketa bortitz eta azkarragoen aldekoa bata, “aurrerakoa” deiturikoa, eta aldaketa mantsagoen aldekoa, moderatua, bestea – saihestu ahal izango dituzte aldaketa horiek, monarkia goitik behera aldatuko dutenak. Horiek horrela, nekazaritza mundu tradizional batetik industria mundura pasatuko da eta, hasteko, trenbideek eta telegrafoak ordezkaturiko dituzte posta zaldi eta diligentziak. Era berean, ordura arteko paisaia – nekazaritzari lotua Lezori dagokionez– agertzen hasten diren industria berrietako langile bihurtuko dira ordura arte karlisten artean borrokatu zirenak. Eta, karlismoan aditu den historialari batek adierazi duen bezala, klase horrek ez dio inolako jaramonik egingo ideologia horri; are gehiago, horren aurkakoa dela ere esan liteke.¹⁶⁸

Garbi dago, Lezori dagokionez, hori eta ez beste ezer gertatuko dela 1837. urtean alderdi iraultzaile edo liberalak herri horren kontrola hartzen duenetik. Hurrengo belaunaldikoen begien aurrean, izugarria da mugatik eta batez ere Pasaiaiko portutik eta hango merkataritza eta gerrako produktuen salerosteetatik zetorren zurrumurrua, aldaketa eta asaldadura etengabearen ingurukoa. Eta guztiak bere bidetik jarrai dezan utziko du guztia herriak. Bizimodu berrira ohitzeko –ikusi dugun bezala, asko ziren horren aldekoak; horren izenean bizia emateko edo kentzeko prest ere badaude–, edota aldaketa horien aurka borrokatu izan arren horien aurka egiteko arrazoirik eta indarririk aurkitzen ez dutelako. Beraz, ez da inor aztoratuko ez Lezon ez eta Gipuzkako beste hainbat herritan ere, Espartero jeneralak, liberalismoaren adar aurrerakoiaren buruak, bere ustez moderatuegia den monarkia liberalari kolpea eman –militarra, noski–, eta Fernando VII.aren azken emaztea erregeorde funtzioetatik kentzen duenean. Bigarren aldia izango da –1820ko iraultzatik kontatuz gero– adar liberal batek Gipuzkoako foruak ezabatzen dituen; izan ere, adar horrek ez du ezer jakin nahi antigoeleko lege horiei buruz, oztopo bairtzen negozioetarako, hain azkar hain aberats bihurtzen zituztenetarako.¹⁶⁹

¹⁶⁸ AROSTEGUI, Julio: “Años de oro y sangre”, 66-67 or.

Harridura, axolagabetasuna edo aihergatasuna zabalduko dira, antza, Lezon; begi onez ikusten dituzte hango herritarrek mugimendu eta aldaketa horiek guztiak, 1789ko uztailearen 14ko egoerarekin alderatuta hain azkar eta etengabe datozenak.¹⁷⁰

Horiek horrela, aldi horri buruz aurkitutako agiri urriek diotenez, herriak bizkarra eman go dio aldaketa horiek eteteko ahalegin orori. Parisen iraultza liberal moderatuegien aurka –Luis Felipe Orleanskoaren edota 1839an garaipen moduko batekin hasten den Isabel II.arena, besteak beste– hasitako iraultza aldiak Europa osoan eragindako nahastea aprobetxatuz, 1848an hautagai karlista euskal probintziak beste ahalegin batean matxinatzen saiatzen denean, ez du ia jarraitzailerik aurkituko Euskal Herrian, eta are gutxiago Lezon.¹⁷¹

1854ko iraultzak ere ez zuen aztarna handirik utzi Lezon, nahiz eta Esparterok 1841ean neutralizatu nahi izan zuen adar moderatu horretako gobernu liberalen hamar urteen amaiera izan.

Itxuraz, zer gertatu zain geratzen da herria aldi batez, guztia gerta dadin utziz, XIX. mendeko herri hizkeran “handia” deituko dioten Armagedon horren ordua heldu arte. Hau da, moderatu guztiak –eta haien itzalean ezkutututako erreakzionarioak– ezabatu, eta nahaste hartan guztian gertatzen ari ziren aldaketei bidea utziko zien iraultza handia.

Jarrera nahiko zuhur horrekin ikusi zituzten lezoarrek, halaber, iraultzaren aldekoak ez ziren asko egoera haren atzera bueltarik ezaz konbentzitu zituzten lan bitxi batzuk: telegrafoaren hariak jartzeko eta haren parean zihuan trenbidea eraikitzeko lanak, alegia. Ordura arte ikusitako guztiaren antzik ere ez zutenak, noski, nahiz eta Lezoko presbitero-etako batek, Jose Ignacio Arrietak, eginak zituen 1846an zenbait proba hainbat lurrun makinarekin.¹⁷²

Mendearen erdi aldera izan zen. Lezoko Artxiboko hainbat agiriren arabera, 1858an Gipuzkoako Diputazioak Lezori jakinarazi zionez, Mailegu Higigarrien Elkarteak –Euskal

¹⁶⁹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1841eko urriaren 20ko gutuna.

¹⁷⁰ Prozesu orokorra ikustzen, kontsultatu ZZEE: *La era isabelina y el sexenio democrático 1834-1874* eta RUBIO POBES, Coro: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*; 1808ko iraultzarekin hasitako prozesuaren Euskal Herriko egoera eskaintzen du honek, noski, nolabait 1868koarekin amaitzen dena.

¹⁷¹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1848ko ekainaren 30eko gutuna. Karlistekin bate gin ahal izan duten lezoarren izenak eskatu zituzten, baina ez zuten bakar bat ere lortu. Ahalegin horrek orohar eragiten duen axolagabetasunari dagokionez, ikus AROSTEGUI: “El Carlismo y la guerra civil”, in ZZEE: *La era isabelina y el sexenio democrático 1834-1874*, 134-135 or. Joseph Zabalok, aldiz, “bigarren gerra karlista” deitzen dio horri. Ikus ZABALO, Joseph: *Le Carlisme. La Contre-revolution en Espagne*, 85-93 or. Horrek Euskal Herrian duen erantzunari dagokionez, interesgarri aizan daiteke RILOVA JERICO: “1848ko Sanjoanak eta karlistada txiki bat”. Karlisten ahalegin horren inguruko Europako giroa, paradoxikoa bada ere, 1789 eta 1871 artean kontinente zurian gertatzen diren absolutismoaren aurkako iraultza baten erdian, ikus RUDE, George: *La multitud en la Historia: los disturbios populares en Francia e Inglaterra 1730-1848*.

Herrian trenbidea eraiki zuen konpainia frantsesaren adarretako bat– eskainitako funtsari esker, lursailak desjabetu ahal izango ziren inguru hartan, trenbidea lehenago zabalteko.¹⁷³

Ondoren, ez dago bestelakorik agirietan hainbat urtean. Hala ere, egitasmoak arrakasta izan zuen, nahiz eta orokorrean oso errentagarria ez izan eta akziodun ugariren irabazi asmoak ez bete; esaten dutenez, hori izan zen gero aipatuko dugun 1868ko iraultza handiaren –“la gorda”– eragileetako bat, trenbidea Lezo aurrean baitzegoen. Ukaezina zen, behintzat.

Presbiteroari ez bezala, lezoar ugariri asko kostatu zitzaizen makina berri hura ulertzea. Hala eta guztiz ere, berehala onarrarazi zieten agintariek, isunak jarritz. Horixe gertatu zitzaizen Catalina Irizarri eta Maria Aldetari; ez zioten inolako kasurik egin Bernardo Arrietari, horrek trenbidetik irteko esan zienean. Ongi ordaindu zuten Trenbideen inguruko Lege berriaren urraketa hura: 3 duroko isuna, Estatuaren paperean. Andres Arretxe alkateari ordaintzekoa.¹⁷⁴

Horixe bera gertatu zitzaion Jose Manuel Trekuri, horren ama Josefa Martina Zabaletak ordezkatzan zuenari; hark ere horrelako beste isun bat ordaindu behar izan zuen, trenbidean sartzeagatik.¹⁷⁵

Lezo inguruan bazkatzen zen ganaduak ere nekez ulertu zuen gauzak goitik behera ari zirela aldatzen eta hobe zela ezerk geldiarazten ez zuen makina haren aurrean ez jartzea. Ez du inon jartzen Iparraldeko lineako lokomotora horiek bazutela Hollywoodeko pelikuletan ikusten ditugun bufaloak apartatzeko tresna horiek, baina Gipuzkoako Diputazioak hainbat ekimen egin zituen udalek hesiak landa zitzaten makina horien abiaduratik babes-teko. Lezoko alkateari ere helarazi zioten ideia hura, trenbidea zuten beste hainbat herri-takori bezala.¹⁷⁶

¹⁷² Isabel II.aren monarkiaren garaian trenbidea eta telegrafoa ezartzeko lanei dagokienez, ikus ZZEE: *Los fundamentos de la España liberal (1834-1900). La sociedad, la economía y las formas de vida*, 467-534 or. Telegrafoari buruz, zehatz-mehatz, OTERO CARVAJAL, Luis Enrique: “El telégrafo en el sistema de comunicaciones españolas”, in DONEZAR Javier Maria-PEREZ LEDESMAManuel (arg.): *Antiguo Régimen y revolución liberal. Homenaje a Miguel Artola*, II. alea, 587-598 or.


Jose Ignacio Arrieta presbiteroari eta garraioan lurra aplikatzeko haren esperimenduei buruz, ikus ZZEE: *XIX. mendea karikaturetan umorea, distorsioa eta kritika soziala-El siglo XIX en caricaturas humor, distorsión y crítica social*, 92-93 or; bertan, garai hartako historiagile nagusienetakoa den Modesto Lafuenteren “Teatro social del siglo XIX” laneko paragrafo bat agertzen da, Lezoko apaizaren proiektu aurrerakoien berri ematen zuena. Norteko trenari buruzko informazioa Gipuzkoan, LARRINAGARODRÍGUEZ, Carlos: *El ferrocarril del Norte y el paso de los Pirineos a mediados del siglo XIX. Entre Irún y los Alduides*. Casino. Irún, 2002.

¹⁷³ LUA D 6 1, 2 (Karpeta 53), 1858ko irailaren 13ko gutuna.

¹⁷⁴ LUA A 8 1, 1 (Karpeta 8), 1870eko uztailaren 6ko espedientea.

¹⁷⁵ LUA D 6 1, 2 (Karpeta 53), 1873ko maiatzaren 23ko espedientea.

¹⁷⁶ LUA D 6 1, 2 (Karpeta 53), 1870eko otsailaren 8ko gutuna.



Lezoko udaletxea

Iturria: Kutxa Ondarea

Gizakiak izan ziren erremediorik eduki ez zuten bakarrak. Zehazki, 1868tik 1870era gertatutako guztia –trenbidearen sorrera barne– gehiegitxo zela pentsatu eta hura deuseztatzeko garaia zela, 1789ko uztailaren 13ra itzultzekoa edo, gutxienez, makina hari eta aldaketa haietako askori osoko zuzenketak egiteko ordua zela pentsatu zutenentzat.

Segur aski ez da kasualitatea izango bigarren gerra karlista hartako borroka erabakiko duela trenbide eta telegrafoarekiko kontrola edo horiek deuseztatze gaitasuna izatea.

Hainbat buruzagi karlistak, Lizarragak besteak beste, oso argi zuten hori; alderdi horretako historialari nagusienetakoak, Roman Oiartzunek dioenez, gerraren erdian –Aragoi ingurua, Teruel, Vinaroztik itsasorako irteera eta Ceutaranzko zerrenda zabala–, borrokatzen ziren armaden agintea hartu bezain laster, trenbideak desegiteko eta trenbide konpainietan lan egitera ausartzen zirenak hiltzeko agindu zuen; liberalei batetik bestera mugitzeko aukera kendu nahi zien horrela.¹⁷⁷

Ikusiko dugun bezala, Lezon ere argi eta garbi geratu zen hori hasieratik. Itxura denez, argi eduki zuen Lezoko udalbatzak telegrafo hariak eta errailak karlisten erasoetatik babestearen garrantzia. Gerra hartan jokaten zutenaren eta hura lortzeko borrokatzen

¹⁷⁷ OYARZUN, Roman: Historia del carlismo, 349 or.

zirenen sinbolo ziren: batetik, teknologia berri haren jabeak eta onuradunak eta bestetik, berriz, hartaz baliatu arren gaitzesgarritzat, ez beharrezkotzat zeukatenak. Gerran jokatzeko adinakoa.

Lezoko herritarrek 1869an izan zituzten gerraren hurbiltasunari buruzko lehen berriak; alegia, tropek, 1868an, monarkia liberal moderatuegia –herritarrentzat, monarkiaren aldeak barne, askotan, zama bihurtu zena– babesten zuten talde urrien aurka Alkoleako zubiko bataila irabazi eta urtebetera.

1869ko abuztuaren 21ean gutun bat jaso zuen Lezoko alkateak eta, bertan, Alkoleako zubiko segadaren ondorioak jakinarazten zizkioten. Hau da, 1823an eta 1833an izan zuten arerio berbera zuten berriz ere aurrean, erreakzioaren eta monarkia Borboien etxeko adarrik atzerakoenari –Karlos Borboikoak eta Austria Ekialdekoak ordezkatzan zuenari– itzultzearen aldekoak. Karlos VII.a ere deitzen zioten, eta baita Karlos “chapa” ere gero eta ugariagoak ziren etsai liberalek. Madrilgo tronua nahi zuen hark, agintari iraultzaileen gobernuarekin –haren ustez moralgabea zenarekin– amaitzeko. Zalantzarik gabe, zaila izango zen harentzat gobernu mota hura zehaztea, hura ere nahiko lasaka izaki. Hasteko, garai hartan Europako gainerako herrialdeetan bezala, haren erresumako hiriburuan dantzatzen zuten *can-can* ezaguna zen moralik ezaren isletako bat.¹⁷⁸

Gutun haren bitartez jakinarazten ziotenez, Azpeitian altxatu zen kausa bitxi haren aldeko talde txiki bat. Eta asmo txarrak bakarrik eduki zitzaizkela pentsa zitekeenez, adi egoiteko eta haiek ere taldeak –katalanezko *somaten* hitza erabiltzen zuten talde haiek izendatzeko, Euskal Herrian ezohikoa zena– antolatzeke agintzen zieten agintariek Lezori eta trenbidea zuten gainerako herriei, trenbidea babestu ahal izateko.¹⁷⁹

Etengabe eta gero eta zehatzago helduko dira agindu haiek, gobernu iraultzailearen agintepeko lehen urte horretan.

Horiek horrela, gutun berriak helduko dira urrian Madrildik eta, horietan, trenbidea zaintzeko aginduak emango dizkiete; esaten dietenez, alkateak du bere jurisdikzioko trenbidea zatia Karlos VII.aren aldekoen erasoetatik zaintzeko ardura. Batez ere, zubiei dagokienez. Santanderko, Leongo, Bilboko, Logroñoko, Iruñeko eta Zaragozako trenbideak defentsa plan horietan sartzen ziren, eta beste horrenbeste gertatzen zen, baita ere, Lezokoarekin, Irun eta Madril lotzen zituenarekin.¹⁸⁰

Bazen arrazoi bat horretarako guztirako. Udal artxiboko beste agiri batzuek erakusten

¹⁷⁸ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1869ko abuztuaren 21eko gutuna. Karlos VII.aren bizimodu zalantzarriari dagokionez, karikatua bilduma interesgarri bat dugu, non Karlos VII.ak jokoarekiko eta, batez ere, emakumeekiko zuen jendaurreko atxikipena agertzen den. Ikus ZZEE: *XIX. mendea karikaturetan umorea, distorsioa eta kritika soziala-El siglo XIX en caricaturas humor, distorsión y crítica social*, 46-47 or.

¹⁷⁹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1869ko abuztuaren 21eko gutuna. *Somaten*-a osatzeko aginduak 1869ko uztailaren 26ko Aldizkari Ofizialean zeuden.

¹⁸⁰ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1869ko urriaren 10eko eta 11ko gutunak.

dutenez, etsaiak altzairuzko trenbide horietatik oso hurbil zeuden, eta ez zuten haien kontrola inola ere lortu behar eta, are gutxiagoa, haiek suntsitu.

1869ko urrian, zaintza areagotzera aholkatu zituen Burgosko Lurralde Auzitegiko fiskalak Lezoko alkateak, delitu arruntak ez ezik matxinadak ere saihesteko, eta, gainera, inolako beldurrik gabe aritzera. Are gutxiago delitu horien errudun zirenen gizarte mailarena¹⁸¹, –“duintasuna” da fiskalak erabiltzen duen hitza–.

1870eko abuztuaren 27an are esplizituagoa izan zen Gipuzkoako ahaldun nagusi Rocaverde markesa arazo horien inguruan. Egun hartan erabaki zuen aldarrikapen bat egitea eta zera eskatzea urte hartan bere agintepean zegoen probintzia hartako herritarrei: sermolari karlisten –“ya sabeis por quien” esaten zuen– hitzei jaramonik ez egiteko, haiek gerra zibilaren zutoihal beltza jaso nahi zutelako. Frantziaren egoera tamalgarria zuten begien aurrean une hartan: Frantzia txiki-txiki eginda zegoen, menpean hartu nahi izan baitzuten talde iraultzaileek herrialde hori, Bonaparteren iloba Napoleon III.a enperadoreak Sedango batailan prusiarren aurka porrot egin ondoren; nekez geldiarazi izan zituzten horiek Parisen munduko lehen errepublika sozialista izango zena, Komuna, aldarrikatu zuten herritar taldeek.

Hiri horretan eta beste hainbatetan garaitu ondoren, zapaldu egingo dute hori Frantzia errepublikanoa baino burgesa bahi dutenek.¹⁸²

Benetan maltzurak ziren karlista haien helburuak, bikainak baitziren, markesaren arabera, nekazaritzaren eta industriaren egoera.¹⁸³

Horixe zen arazoa, agian. Ke gehiegi, fabrika gehiegi... guztia ari zen aldatzen; trenbide gehiegi, telegrafo gehiegi... Hau da, petrolio gehiegi eta Karlos gutxiegi, aita Manterolak, karlismoko ideologorik nagusienetakoak zioen bezala.¹⁸⁴

Arazoa larriagotzen ari zen. Lezoko artxiboko agiriek erakusten dutenez, orri ofizial ugari zebiltzan batetik bestera eta horietan, ahaldun nagusiaren deian bezala, Gipuzkoan tropak zebiltzala esaten da; karlista taldeak eta haiekin bat egiteko prest zeudenak geldia-

¹⁸¹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1869ko urriaren 28ko gutuna.

¹⁸² LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1870eko abuztuaren 27ko deia. Markesaren irudiari dagokionez, Baskoniako Diputatuena Hiztegiaren bildutako biografia laburretako batera jo dut berriz ere. Ikus URQUIJO GOITIA, Mikel: “MOYUADARRAGA, Juan Manuel. Marqués de Rocaverde”, in AGIRREZKUENAGAZIGORRAGA-SERRANO ABAD-URQUIJO GOITIA-URQUIJO GOITIA: *Diccionario biográfico de los diputados de Vasconia (1808-1876)*, 653 or. Komunari buruzko gertakariari dagokionez, Hippolyte Prosper-Olivier Lissagaray lekukoak hari buruz idatzitako kronika argitaratu dute orain gutxi; horri esker, egunez egun jarrai daiteke Rocaverde markesak adibide gisa aipatutako gertakari interesgarri hori. Ikus LISSAGARAY, Hippolyte Prosper-Olivier: *La Comuna de París*.

¹⁸³ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1870eko abuztuaren 27ko deia.

¹⁸⁴ Manterolari eta munduaren inguruko haren ikuspegi bitxiari dagokionez, ikus GARMENDIA, Vicente: “Vicente Manterola. Decidido conspirador carlista”, in ZZEE: *Los carlistas*, 289-305 or.

raztea zuten helburu. Herri bakoitzean karlistak eta leialak zeintzuk diren jakin nahi dute agintariek. Lezoko Udalak eta beste hainbat herritakoek karlisten zerrendak egiteko aginduak jasotzen dute. Alegia, gerrilla karlistekin bat egiteko asmoarekin irten direnenak. Era berean, tresnarik onenak erabiliz – hau da, telegrafoa, lehertzearen den gerraren sinbolo bihurtu dena–, ordenaren edozein urratzeren berri emateko esaten diete.¹⁸⁵

Krisi haren erdian, Lezoko alkate Andres Arretzek bere herriari buruzko txostenak bidaliko ditu, eta, horietan adieraziko duenez, 1808tik bezala, bi bandotan ari da zatitzen herria. Miguel Antonio Salaberria Agirre izango da lehenetakoa karlistekin bat egiten. Ehule ezkongabe horrek irailaren 3an elkartu zitzaizen haiei. Hala ere, ez dirudi kausa hartan gehiegi sinesten zuenik; izan ere, Lezora itzuli zen bi egun geroago, eta indultua eskatu zuen. Itxura zenez, ez zuen armarik hartu ere egin gobernuairen kontra, esku hutsik joan baitzen barkamena eskatzera.¹⁸⁶

Ziurrago zeuden erreazioaren etsaiak. Claudio Gezalaren historia laburra –edo mikrohistoria, hitz teknikoa hartuta– adibide ona da indar iraultzaileen eta erreazioaren aldekoen gerra hasi aurretik Lezon zer giro zegoen ikusteko.¹⁸⁷

Gureganaino heldu den gertakari hori eta ikerketa honetan erabilitako beste asko Lezoko udal artxiboan daude. Kasu hauetan ohikoa izaten den bezala, udal agintariek horren kontra egindako espediente judiziala da. Auzia 1870eko uztailaren 25ean hasi zen,aldi labur baterako bada ere, Miguel Antonio Salaberriak karlistekin bat egitea erabaki baino hilabete batzuk lehenago.¹⁸⁸

Egun hartan, gaueko 9:00ak eta 10:30a bitartean, errejidore bigarrenak eta Lezoko aguazilak, gaueko zaintzaren arduradunak, oihu lotsagabeak –“descompasados”– emanenez aurkitu zuten Claudio Gezala; oso urduri zegoen eta, segur aski, eskuan eskopeta zuela ikusita, errejidoreak eta aguazilak erabaki zuten harekin errietan ez hastea, eta alka-

¹⁸⁵ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1870eko abuztuaren 24ko eta irailaren 4ko gutunak.

¹⁸⁶ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1870eko irailaren 20ko txostena.

¹⁸⁷ “Mikrohistoria” hitza XX. mendearen azken herenean sortua zuen Carlos Ginzburg historialari italiarrak. Haren lana, bizitzaren eta erlijioaren ikuspegi bitxia –tokiko Inkisizioaren arreta pizteko adinakoa– zuen XVI. mendeko errotari veneziar bati buruzkoa, Claudio Gezalaren kasuarekin bete-betean asmatzen duen ikerketa metodo horren teoria eta praktika da. Ikus GINZBURG, Carlo: *El queso y los gusanos. El cosmos, según un molinero del siglo XVI*. “Patakon”-i buruzko Joseba Agirreazkuenagaren artikulua, lan honen 60. oharrean aipatu duguna, ikerketa modu horren Euskal Herriko lehen adibideetakoa da.

Nahiko metodo erabilgarria da, baina beste hainbat historialarik zalantzan jarri dute; izan ere, haien iritziz ez da adierazkorra, kasu bitxi gutxi batzuetan bakarrik oinarritzen delako, eta ez ikerketetan aztertu ohi diren gizarte eta garaietan. Dena den, zaila da aitzakia hori Claudio Gezalaren kasuan aplikatzea, ikusiko dugun bezala, Lezoko herritar ugariren laguntza handia izan baitzuen erreazioaren aurkako borrokan. Mikrohistoriari buruzko kritika horiei dagokienaz, ikus FONTANA, Josep: *La Historia después del fin de la Historia: reflexiones acerca de la situación actual en la ciencia histórica*. Beste historialari garrantzitsu ugariren erantzunak ere ez dira falta izan, noski; besteak beste, Natalie Zemonn Davies edo Jim Sharperenak, baina lan handia litzateke horiek guztiak hemen aipatzea.

¹⁸⁸ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, orriak: 1 zuzena- 1 itzulia.



II. gerra karlistako zaintzarako Jaizkibelen dagoen dorreetako bat (1873-1876).

Iturria: Carlos Rilova Jericó

tearena joaten uztea, desadostasunak harekin konpon zitzaizkion; harengana joan nahi baitzuen, errejidore bigarrenaren agintea baztertu ondoren.¹⁸⁹

Andres Arretxe alkateak, handik gutxira Miguel Antonio Salaberria ihes egindako karlista eta indultu hartzaile gisa salatuko zuenak, haren boterearen sinbolo zen makilarekin eta ausardia handiz, aurre egin zion Claudio Gezalari, hari bera zegoen lekura heltzen utzi gabe. Hala eta guztiz ere, horrek ez zuen Claudio Gezalaren jenio bizia apaldu, eta alkateari aurre egiten ausartu zen, hark handik joateko agindu zionean. Iskanbila hura guztia kale istilu bihurtzera zihoala, Claudio Gezalak haserre haren arrazoia kanporatu zuen. Esaten zuenez, aginte faltagatik zeuden Lezon istiluak. Bigarren aldiz Claudio Gezalari etxera joateko esan ondoren lortu zuen Andres Arretxek zer edo zer. Gezala etxera itzuli arren, baina, protestek jarraitu egin zuten. Etxeko balkoitik. Mehatxuka aritu zen handik eta, esaten dutenez, norbait gau hartan bertan hilko zela esan zuen. Umore txarra kanporatzeko zerabilen balkoi hartatik tiro ere egin omen zuen.¹⁹⁰

¹⁸⁹ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, orriak: 1 zuzena-1 itzulia.

¹⁹⁰ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, orriak: 1 itzulia-2 zuzena.

Andres Arretzek aintzat hartu zuen ustezko mehatxu hura. Eta bi guardia zibilen bila joan zitezen agindu zuen, "zoritxarren bat" gerta ez zedin. Guardia Zibilaren presentziak ez zuen gehiegi lagundu, ordea, Gezala apaldu egin baitzen ordurako, eta eskopeta eta haserrea alde batera utzita, balkoitik alde egin zuelako. Hala eta guztiz ere, auzipetu egin zuten. Gure onerako, noski, hark Donostiako Lehen Instantziako epailearen aurrean egingdako adierazpenei esker osa baitezakegu gerra hasi aurretik Lezon lurrun ikusezin baino pozoigarri gisa zabaltzen hasia zen giro politiko ustela.¹⁹¹

Oso bitxiak dira Claudio Gezalak ohar horietan eskaintzen dituen datuak. Horiei eta lekukoren baten oroitzapenei esker dakigu hura bilbotarra zela baina Lezon herritartu zela aspalditik han bizi zen emakume batekin ezkondu ondoren. Alzatetar batekin, alegia, horixe baitzen haren emazte Eusebiaren abizena.¹⁹²

Leinu liberalen arteko senar-emazte horren semea izan zen arazoaren iturria; gazte zirela ezkonduko ziren, Gezalak 44 urte baitzituen garai hartan. Bilbotar izandakoaren arabera, hauxe izan zen uztailaren 25eko gauean gertatu zena: gaueko bederatziak eta bederatziak eta erdien artean gazte talde bat ikusi zuen errepidean; Errenteriakoak zirela esan zioten gero. Une hartan, "Viva Carlos (sic) y muera la libertad" oihukatzen hasi ziren haiek. Emazteak etxean sartzeko eskatu zion, oihuak entzundakoan kalera irten baitzen semea, matxino haiei aurka egitera. Itxura denez, garaiz heldu zen Claudio Gezala seme-ari armak kentzeko, ezer gertatu baino lehen. Orduan egin zuen topo errejidore bigarrenarekin, eta, noski, eskopeta eskuan zuela aurkitu zuen hark Claudio, seme-ari kendu baitzion, hiru urte geroago hasiko zen gerraren lehen istilua izan zitekeena saihesteko.¹⁹³

Gaineratzen zuenez, hauxe bakarrik esan zien berak errejidore bigarrenari eta alkateari: 1868ko iraultzaren ondoren sortutako legedia errespetarazteko gauza ez zutelako sortu zirela istilu haiek; alegia, koadrilek Askatasunaren aldekoen etxeen aurrean "muera la libertad" oihuka zezaten uzten zutelako. Gezalaren ustez, behintzat, iraindu egin zioten errenteriar haiek bere iritzi liberaletan.¹⁹⁴

Bera ia guztiz errugabea zela esan zuen Claudio Gezalak; ukatu egin zuen heriotza mehatxurik eta balkoitik tirorik egin izana; Lezoko agintariak halakoetan oso laxo jokatzeko zutela erakutsi nahi izan zuen, edonori uzten ziotela Karlos VII.aren aldeko oihuak egiten. Andres Arretzek defendatu zuen bere burua akusazio haietatik, baina egia esan, ez oso ongi. Izan ere, Gezalari ematen zion ia, zera adierazi baitzuen Donostiako Lehen Instantziako epailearen aurrean: "Karlos Zazpigarrena zeritzonaren" aldeko oihuak ez zirela ohikoak Lezon, baina ezin zuela esan, ezta ere, sekula halakorik izan ez zirenik. Arrazoi bitxi bategatik ez zuela neurririk hartu nahi izan oihuka zebiltzan haien aurka; hala,

¹⁹¹ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, orriak: 2 zuzena.

¹⁹² LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, orriak: 6 zuzena-12 zuzena.

¹⁹³ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, orriak: 12 zuzena-12 izulia.

¹⁹⁴ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, orriak: 13 zuzena.

haren hitzetan, beti izaten dira oihuak, mozkorturik daudenen artean. Beraz, haren iritziz, ez dago horiengatik kezkatu beharrik, mozkorturik egoteak esan nahi baitu oihu horiek ez dituztela probokatzeko egiten. Eta horrenbestez, borrokarik izan ez denez, ez da beharrezkoa izan hark parte hartzerik.¹⁹⁵

Ironiarik latzena bezala har liteke argudio hori karlisten aurrean sistema iraultzailea babestu nahi ez duen norbaitek –ez da hori Andres Arretxeren kasua– eginez gero. Kasu honetan, baina, konbentzitu egin zuen epailea. Horiek horrela, ez zuen gai horri buruz iker-tzen jarraitu nahi izan, eta erabaki zuen Claudio Gezala zela istilu haren guztiaren ardura-dun bakarra. Hala, herriko kartzelan bete beharreko hiru eguneko kartzela zigorra ezarri zion. Karlisten atzetik ere joan ziren, aurkituz gero falta epaiketa batean deklaratu zezaten. Horixe izan zen 1870eko abuztuaren 30eko epaia. Harekin amaitzen zen auzi hura; ikus-ten dugun bezala, Lezon gerra hasi baino hiru urte lehenago Lezon zegoen giro politikoa-ren berri ematen digu.¹⁹⁶

Claudio Gezalak epaia beteko du, baina laster egingo du kontraerasoa, eta 1870eko urriaren 30ean, hiru eguneko zigorra bete eta hamar egunera, gutxi gorabehera, bake epaile izendatuko du Burgosko Auzitegiak. Eta barrutiko bake epaile izendatze hori ez zen amaiera arteko borroka bat baino, eta baliabide guztiak erabili zituen erreakzioaren alderdiaren aurka, 1873an bi aldeen arteko gerra irekia bihurtzen denetik ikusiko dugun bezala.

Alderdi kontrairaultzailearen berpizte horren, eta arerioen mobilizazioaren lehen aztar-nen ondoren –Claudio Gezalaren kasuan ikusitako punturaino–, lasaitasuna zabaldu zen Lezon eta probintziako gainerako lekuetan, eta baita bi aldeen arteko azken gerra horretan borroka-leku izango ziren gainerako lurraldeetan ere; hala ere, lasaitasun horrek gutxi iraungo du, 1872ko karlisten lehen altxamendu laburraren ondoren armak nagusitzen direnean. Orduan lehertuko da bi aldeetan pilatutako amorrua; alegia, “Viva Carlos VII” eta “Muera la libertad” oihukatzen zutenen, eta halako burlarik ez jasateagatik zigorra jaso behar zutenen artekoa.¹⁹⁷

Aztarna guztiek erakusten dutenez, iraultzaileak hartu zuten Lezo orduan. Behin betiko.

Kontrola ia erabatekoa izango da, 1872ko altxamenduarekin lehen ahalegin serioak hasten direnetik, 1875etik aurrera gerra karlista amaitzen hasten den arte. Balentria handia, kontuan hartzen badugu Gipuzkoa osoa armada karlistaren esku geratuko dela eta hori izango dela Karlosen aldekoek armada liberalen gero eta aurreratze handiagoetatik defendatzeko izango duten azken aukera, horiek 1874an Bilboko setioa gainditzen dute-

¹⁹⁵ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, orriak: 13 itzulia eta 16 zuzena.

¹⁹⁶ LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), orriak: 18 zuzena-19 zuzena eta zenbakitu gabeko orria.

¹⁹⁷ Kontsultatu LUA E 7 1, 3 (Karpeta 83), 1870eko uztailaren 25eko auzia, 1870eko urriaren 19ko egiaztagi-ria, zenbakitu gabeko orriak eta 1870eko urriaren 30eko gutuna.

netik eta Nafarroarantz, Lizarra hiriburua defendatzea erretiratzera, behartzen dituztene-
tik. Hala da; miragarria da liberalek Lezorekiko duten kontrola. Halako herri txikia itsaser-
tzeko gunerik indartsuena bihur dadin lortzen dute, probintzia guztia karlisten esku ez
geratzea. Izan ere, arazo ugari sortuko zizkiokeen horrek bando iraultzaileari. Adibidez,
izugarrizko sarraskia galdutako lurraldea berreskuratzeko; tropak lehorreratu behar izan-
go zituzketen eta guzti, agian; edo, bestela, Karlosen eta haren segiziokeen ospea onartu
behar izango zuketan agian nazioartean, Donostia eta haren industria eta finantza balia-
bide guztiak, haren hiriburu izaera –maila txikiagoan bada ere, Europako beste edozein
hiriburrekin baliokidea–, eta Pasaiaiko portua erori ondoren. ¹⁹⁸

Kontrol hori jarrera zorrotz batekin bakarrik lortu zen, noski; autoritarioa ere izan zen,
noiz edo noiz. Egia esan, ez oso liberala. Horixe uste zuen, behintzat, Lezoko auzo batek;
herritar horrek paper bitxia jokatu du, herri horretako lehen intsumisoa izango baita.

Haren hitzak oso interesgarriak dira alderdi liberalak Lezon gerrarako dituen baliabide-
ak –horietako batzuk, gutxienez– erakusteko; Claudio Gezalarenak beste. Garbia zen
haren ele edertasuna eta logikoa zen, herriko maisua baitzen Antonio Berasategi. 1873ko
otsailaren 18an, aurre egin zien agintariei, azken hilabeteetan, –1872ko udaberritik gutxi
gorabehera– eta Madrildik heldutako aginduak jarraituz, boluntario talde bat osatu baitute
trenbidea eta telegrafoa babesteko, gobernu iraultzaileko agintariak agindu bezala. Izan
ere, ezinbestekoak izango dira horiek, gerran ikusiko den bezala, garaipena lortzeko prest
zegoenarentzat. ¹⁹⁹

Diputazioaren aginduak, Funtzionario guztiak karlisten aurka armak hartzera eta nahi-
taez Askatasunaren boluntarioen taldean –1868ko iraultzatik ateratako gobernuak babes-
ten zituzten horiek– sartzera behartzen zituenak, eraman zuen horrela jokatzera. Une har-
tatik aurrera, gutun gogorrek bidaliko dizkiete elkarri hark eta Udalak –Foru Aldundiaren
aginduak betetzen saiatuko da azken hori–. Irakasleak otsailaren 18koan esan zuen berak
ez zuela zertan armarik hartu. Beste batzuk omen ziren haren betebeharrak. Horregatik ez
zen sartu boluntarioen taldean: hala eta guztiz ere behartu egin omen zuten talde horretan
sartzera, eta hori ez zen batere polita “beren buruak liberalizat dauzkaten aginta-
rientzat”. ²⁰⁰

Hitz horiek ez diete inolako minik egingo agintari liberalei, eta aurkariak baino autorita-
rioago izateko beldurrik gabe, bere postua uztera behartuko dute irakaslea, boluntarioen
taldean sartu nahi ez izanagatik. Martxoaren 9an erantzun egingo dio Antonio Berasategik

¹⁹⁸ Hirugarren gerra karlistako operazioei buruz, Euskal Herrian eta beste hainbat frontetan, ALCALA, César: *La tercera guerra carlista 1872-1876*. Lan bikain horretan operazioen mapak eta bi bandoen uniforme eta armak biltzen dira. Borroken ondorioei eta Donostiako setioari buruz, ikus MUÑOZ ECHABEGUREN, Fermin: *Anales de la segunda guerra carlista en San Sebastián. Cómo se vivió la guerra en la ciudad*.

¹⁹⁹ Gobernuaren aginduei dagokionez, kontsultatu LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1872ko apirilaren 19ko gutuna eta LUA E 5 II 1, 2 (Karpeta 77), 1873ko otsailaren 18ko gutunak.

²⁰⁰ LUA E 5 II 1, 2 (Karpeta 77), 1873ko otsailaren 18ko gutuna.

erabaki horri –erabat arbitrarioa irudituko zitzaion berari, noski– eta zera esan zuen: bera ez zela ez danbolina ez eta aguazila ere, eta Udalak ezin zuela hura nahierara erabili. Hitz haiek ez ziren ustekabeak izango, agian; izan ere, Udaleko diruzain Angel Garbizuk ere ez zuen nahi izan “eskopeta” hartu eta boluntarioen taldean sartu. Horretara iritsi baino nahiago omen zuen bere lanpostua utzi.²⁰¹

Dena den, nahikoa zen Berasategi maisuarentzat boluntario liberalen komandantean agertu beharrik ez izatea, bere betebeharrak –irakaskuntza– eta zerbitzu militarra batera ezinak zirela esaten baitzuen. Prest zegoen armadan sartu nahi ez izateagatik egiten zizkioten barrabaskeria guztien aurka protestatzeko. Baina ohikoa zen bezala, Udalak ez zuen oztoporik izan Foru Aldunditik heldu zitzaizkion arauak aplikatzeko. Horiek horrela, zigortu eta Lezoko eskolako irakasle postua kendu zioten. Probintziako Hezkuntza Batzordeak ere ez zuen erabaki hura aldatu; aitzitik, Udalaren alde jarri eta esango du Udalak eskubidea zuela pentsatzeko boluntarioekin bat egin nahi ez izanarekin Berasategik postu horri uko egiten ziola, probintziako beste edozein funtzionariok bezala. Horrek, aldiz, bere auzia defendatzeko eta bere eskubideak berreskuratzeko ahaleginak egiten jarraitzen zuen oraindik 1874an. Horiek horrela, Sustapen ministroa bere alde jar zedin lortu zuen eta, haren hitzetan, irakaslea omen zen lanpostua uztea edo ez erabaki zezakeen bakarra.²⁰²

Esan bezala, iraultzaren aldeko lezoarrek karlismoaren aurkako defentsa hori Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta beste hainbat lekutako herritan bezala gal ez zedin erabilitako metodo batzuk baino ez dira horiek.

1872tik aurrera, zehatz-mehatz betetzen zituzten Madrildik gobernu zibilarren bidez hel-tzen ziren aginduak. Hala, trenbidea eta telegrafoa “une batetik bestera” borrokan haste-koak ziren karlistengandik babesteko, talde armatuak eratzeko agindu eta gutxira, Lezoko liberalek 19 gizonen osatutako talde erabat artikulatua sortu zuten 10 egunean. Talde horretan zeuden 1870ean arerio izandakoak. Hau da, Andres Arretxe eta Claudio Gezala, Askatasunaren aurkako oihuak, Karlosen aldekoak, mehatxuak eta eskopetak izan zituen istilu hartako akusatua eta akusatzaila.²⁰³

Agintari horiek ere ez dute inolako zalantzarik edukiko, Madrilek agindu bezala karlisten altxamenduan moralki edo materialki nahastutako auzoak salatzen orduan. Horregatik ikusiko ditugu Askatasunaren Lezoko boluntarioak, Ignacio Jaka zehatz-mehatz, hainbat herritar gerrako preso gisa Donostiako kartzelara eramaten. Donostiako alkate Antonio Imazek honakoak hartuko ditu espetxe horretan 1873ko neguan, gerrako lehenean: Jose Maria Olaizola, Jose Maria Lopetegi, Francisco Salaberria, Jose Ignacio Garmendia eta

²⁰¹ LUA E 5 II 1, 2 (Karpeta 77), 1873ko otsailaren 18ko eta 19ko eta martxoaren 9ko gutunak.

²⁰² LUA E 5 II 1, 2 (Karpeta 77), 1873ko martxoaren 11ko eta apirilaren 7ko, eta 1874ko martxoaren 3ko gutunak.

²⁰³ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1872ko apirilaren 19ko mezua eta LUA E 5 II 1, 2 (Karpeta 77), eta boluntarioen zerrrenda, 1872ko apirilaren 29koa.

Jose Maria Lizarazu. Horiei guztiei 1973ko urtarrilaren 12an Lezon sortutako istiluan nahasita egotea leporatzen zieten eta, akusazioaren paperek diotenez, karlistek eragin-dakoa zirudien. Horrelako ekintzak ziren, hain zuzen, gobernu iraultzaileko agintarien Lezoko laguntzaile fidelek zaindu behar zituztenak; halakoak salatu eta epaileen esku jarri behar zituzten “karlisten aldekoak izateagatik” ezagunak ziren herritarrak, edo matxinoekin bat egitearen “komententzia” iradoki zutenak.²⁰⁴

Egia esan, artxiboko agiriek erakusten digutenez, ez zen Udaleko diruzainarena edo Berasategi maisuarena bezalako txorakeriekin ibiltzeko garaia. Izan ere, karlista ankerrak zebiltzan Lezo inguruan; Hernaldeko Manuel Santa Cruz apaiza besteak; Antonio Berasategik ezer gutxi eztabaidatuko zuen harekin, armak hartzeko haren borondate ezaren inguruan; fusilamendu pelotoia osatzeko behar den denbora baino ez; oso gustuko baitzuten apaizak haiek, harekin ados ez zeudenak edo, Lezoko maisua bezala, armak hartzeko prest ez zeudenak arrastoan sartzeko.

Halaxe da. Lezotik telegrafoaren bitartez heltzen ziren berrien arabera –funtsezkoa zen tresna hura karlistengandik babestea– benetako batailak ziruditen borrokak izaten ziren Karlos VII.aren eta 1868ko iraultzaren aldekoen artean. Horiek horrela, 1873ko urtarrilaren 9an jakinarazi zieten, Lizarragako (Nafarroa) tunelean garaitu zuten inguru hartan nagusitu nahi zuen talde karlista. Talde haren burua, Velasco, preso zuten. Gainerakoan, taldean ez omen ziren baja gehiegi izan borroka hartan. Mezu hark zioenez, Askatasunaren aldeko indarrek ez omen zuten gizon bakar bat ere galdu borroka hartan.²⁰⁵

Gerrako lehen neguko urtarril hartako berriak oso baikorrak ziren Lezoko liberalentzat; izan ere, pozez beterik entzuten zituzten urtarrilaren 9ko berri haiek, karlistak merezi zuten “zigorra” jasotzen ari zirela ziotenak. Horixe erakusten zuen Castellsen heriotzak Katalunian, borrokan jasotako zaurien ondorio zenak. Palloc ere eroria zen Murtziako frontean, eta Kataluniako liberalen Cabrinet lerroak Labales, Huget eta Drigola buru zituen “carlins” taldeak garaitu zituen; hura ere borroka hartan eroria zen. Cucadaren eta Castellongo beste hainbat buruzagiren taldeak ere ez zeuden hobeto. Telegrafo bidezko mezuak zioenez, borroka zelaia hildakoz eta zaurituz beteta utzi ondoren garaitu omen zituzten. Lezotik hurbileneko berriak ere onak ziren 1873ko urtarrilaren 11ko mezu telegrafiko haren arabera. Nafarroan, Navascues jeneralak beste garaipen bat lortu zuen inguruko karlisten aurka, Hoyos buruzagiaren taldeari garaituta. Villasecaren boluntarioek, berriz, Talladaren taldeari aurre egitea lortu zuten. Hain zen handia liberalen poza –arrazoi guztiarekin, gainera–, non berri horiek argitaratzeko aginduko baitute.²⁰⁶

²⁰⁴ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1872ko apirilaren 22ko mezua.

²⁰⁵ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1873ko urtarrilaren 9ko mezu telegrafikoa.

²⁰⁶ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1873ko urtarrilaren 11ko mezu telegrafikoa.

Hala eta guztiz ere, luzatu egingo da gerra handik aurrera. 1873ko urtarrilaren amaiera hartako beste mezu batzuk erakusten zuten, antza, borroka bat sortzen zela bestearen atzetik. Eta Lezotik gero eta hurbilago. Santa Cruz apaizaren txanda zen orduan; 1.100 gizonekin ari zen liberalen aurka. Haren kalteak gutxi izan ziren, gerrilla karlista hark egiten zituen borrokak kontuan hartuta. 35 hildako bakarrik izan zituen, eta baita zehaztu gabeko zauritu kopurua; 20 kide, berriz, preso hartu zituzten. Lehen aldia da, halaber, Lezoko liberalek bajak dituztena. 3 hildako eta 20 zauritu izan zituzten apaizaren eta haren taldekoen aurka.²⁰⁷

Adi egon beharra zegoen lubakietatik at zebilen etsaiarekin edo hari Lezon bertan laguntzen zietenekin, hauek ere ez baitziren gutxi.

Ikusi dugun bezala, Lezoko agintari militarrek salatu eta kartzelatu egiten zituzten ustez karlistak ziren guztiak. Horixe gertatu zitzaion Jose Maria Olaizolari ere, "karlisten aldekoa" zirudien istilu haren erantzule bakarrari. Hauxe izan zen istilua: Askatasunaren boluntarioetako bati armak kentzen saiatzea eta karlisten aldeko oihuak egitea; esaten zenez, litekeena zen Olaizola *Gaiztua* nahasirik egotea karlistei Jaizkibel mendian aurkitutako fusilak emate horretan. Auzi hori asko luzatu zen, eta egoera hartan jaun eta jabe zirenak ere ziren lekuko; hau da, Gezala familiako Claudio eta Regino; izan ere, Olaizolaren aurka deklaratu behar izan zuten Luis Aranalde, Ignacio Jaka, Marcial eta Vitoriano Zapiain eta Vicente Aiarzarekin batera. Azkenean, Lezo inguruko matxinada karlista haren sustatzaile edo laguntzaile izan zitezkeen lezoar guztien kontrako garbiketa politikoa izan zen hura.²⁰⁸

Lan zaila zen, kopurua ez baitzen txikia, hiru urte geroago, gerraren amaieran, egindako zerrenda kontsultatuz gero ikus daitekeen bezala. Lezoko 41 auzo zeuden zerrenda horretan, modu batera edo bestera karlistekin bat egin zutenak eta haien banderapean borrokatu zirenak. Deigarria da horietako gehienek jabetzarik ez edukitzea. Haietako asko behartsuak eta umezurtzak ziren, Sebastian Esposito edo Isidro Esposito besteak beste; izan ere, abizenik ere ez zuten, ikusten dugun bezala. Gutxi batzuk bakarrik ziren etxebizitzaren baten jabearen semeak, edo, gutxienez, halakoren baten zatiren bat zutenenak. Horien artean zeuden, hain zuzen, Jose Ramon Isasa, Saroizar baserrikoa, Jose Vicente Legorburu, Munotxukoa, Juan Jose Etxegarai Etxeberri baserrikoa edo Manuel Antonio Aiestaran.²⁰⁹

²⁰⁷ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1873ko urtarrilaren 27ko mezu telegrafikoa.

²⁰⁸ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1873ko martxoaren 24ko, maiatzaren 1eko eta uztailaren 15eko gutunak. Ezizenen inguruko gai honi buruzko hainbat gogoeta interesgarri egin ditu Enriqueta Sesmerok, baita talde horien ideologiarik ezaren ingurukoak ere; izan ere, bandolero hutsak baino ez ziren askotan, edozein uniformearen aurkakoak, txapela gorria barne. Ikus SESMERO CUTANDA, Enriqueta: "Partidas paralelas", in ZZEE: *Los carlistas*, 355-369 or.

²⁰⁹ LUA E 5 IV 1, 1 (Karpeta 79), 1876ko ekainaren 3ko zerrenda.

Gainerakoek, ideia batzuk defendatzeko bakarrik arriskatu zuten bizia. Batzuk hil ere egin ziren, ideia haiengatik. Horixe gertatu zitzairen Peliar baserriko Jose Maria Salaberriari, Buruteneako Rafael Lopetegiri, Arriandiko Jose Maria Olarrari edo Patxillerborda baserriko Francisco Aranbururi.

Lezoko karlisten artean izandako hildako kopuru hori –4–, ez zuten liberalek berdindu. Agirien arabera, Lezoko liberalen artean ez zen ia hildakorik izan, ezta galera materialik ere bigarren gerra horretan. Itxura guztien arabera, lehen gerra karlistan ez bezala taldea osorik mantentzea izan zen helburua, eta ez zuten benetako borrokarik izan ia; ez, behintzat, Donostian, Loiolan, izandakoak bezalakorik, han izan baitziren karlisten borroka handienak, Donostia babesten zuten taldeen artean sartu nahi baitzuten.²¹⁰

